goiena
Zu hemen zaude.

2024-12-05 EGUENA / 1.060. ZENBAKIA / 25. URTEA
DEBAGOIENEKO DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM

Yaman Mjahed: etorkizun oparoa duen borrokalaria

Basurdeek eragiten dituzten kalteekin kezkatuta

FINALEKO BERTSOLARI ONENEI SARIA EMATEKO OHOREA IZANGO DUTE

Almeneko bertso-eskolaren 50. urteurrenari keinu eginez, Arantzazu Loidik jantziko dio txapela Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako irabazleari, eta 25 urtez azpiko onenaren saria Patxi Goikoleak emango du. / 32

Arantzazu Loidi eta Patxi Goikolea, Almen ikastetxearen aurrean.

IMANOL BELOKI UNAMUNO

Aretxartek aurkeztu du Gabonetako spota, eta kanpaina bereziak izango dira herri ia guztietan / 5

Bailarako 24 disko, hamalau liburu eta ikus-entzunezko bat, gaur hasiko den Durangoko Azokan / 30

Nazioarteko eta tokiko akordeoi-joleen topalekua izango da Arrasate hiru egunez / 11

Stoltz Freres organo berritua herriari erakusteko hitzaldia gaur eta kontzertua domekan Bergaran / 21

SINADURAK

ANDREA GONZALEZ VALLE / 6
DANIELA PEDROZA BLANCO / 9
MALENA GONZALEZ ALTUNA / 14
JOANES PLAZAOLA / 20
OLATZ ABASOLO / 22
HIDE DOHINO / 25
IZAR ODRIOZOLA / 40

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Domekan Aramaion egindako lasterketan 45 herritarrek hartu zuten parte, ume nahiz heldu. IDOIA ARANBARRI

Gozaldia jaiarekin aurkeztu zuten Euskaraldiko hamaikakoa Arrasaten. IMANOL BELOKI



Appa Hi! lehiaketa Oñatin. I. ETXEBERRIA

Euskararen gaineko esperientziak jasotzeko Bergarako berriketa-plaza saioa. L.Z.L.

Kantu bazkaria, zapatuan, Eskoriatzan. IMANOL BELOKI

Euskara ikusgarri egiteko ekintza ugari izan dira bailaran

Euskara ospatzeko eguna izan zen abenduaren 3a, martitzena. Kalejira, dantzaldi, antzezlan eta lehiaketa ugari izan ziren. Egon da, baita ere, aurrera begirako urratsen inguruan hausnartzeko tartea hartu duenik; izan ere, erronka potoloak ditu euskarak

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Urtero moduan, Euskararen Nazioarteko Eguna ez da Debagoienean oharkabean pasa. Bailarako ikastetxeetan, euskaltegietan eta udaletan programazio bereziak izan zituzten martitzenean, eta asko izan ziren euskara ikusgarri egiteko ekintzak antolatu zituzten erakundeak eta elkarteak.

Erronkak askotarikoak dira, eta euskararen ekintzaileek publiko guztietara heltzeko proposamenak egin zituzten. Oñatiko gaztelekuan, esaterako, Appa Hi! lehiaketa egin zuten. Herriko ikastetxe guztietako DBH-4ko ikasleek hartu zuten parte, eta hitanoan trebatzeko propio sortutako aplikazioan hainbat erronka bete behar izan zituzten. Trebeenek sariak eskuratu zituzten.

Bergaran, berriz, euskararen gaineko bizipenak jasotzeko Euskara Berbabai saioa egin zuten udaletxeko areto nagusian. Euskararen gaineko bizipenak jasotzeko helburuarekin antolatu zuten berriketa-plaza izenarekin ere ezaguna den dinamika, Euskararen Historia Soziala jasotzeko egitasmoaren barruan.

1950 eta 1980. urteen artean jaiotako euskal hiztunei egin zieten parte hartzeko deialdia, eta dozena bat lagun bertaratu ziren, nork bere aletxoa jartzeko borondate onenarekin. Talde txikietan mahaiaren bueltan jarri eta arduradun baten gidaritzarekin lasai jarduteko eskatu zieten. Euskararen inguruan bizi izandako pasarteak kontatu zituzten. Horietako asko grabatuta gelditu dira.

Jaia eta aldarrikapena

Euskararen Nazioarteko Eguna martitzenean ospatu bazen ere, ekintza asko aurreko aste bukaeran egin zituzten bailarako herri gehienetan. Arrasaten, esaterako, Gozaldia jaiarekin eman zioten hasiera 2025eko maiatzean egitekoa den Euskaraldiaren prestaketa-aldiari.

Aramaioarrek, aldiz, herri-lasterketa egin zuten. 45 herritarrek hartu zuten parte, eta, azken urteetan moduan, ume nahiz helduendako egokitutako karrera antolatu zuten. Hiru etapako lasterketa izan zen: lehenengoa, laburrena, 270 metrokoa; bigarrena, ia kilometrokoa; eta azkena, luzeena, 1,6 kilometrokoa. *Aramaioxon euskeraz bizi gura dot* leloa daraman oihalarekin atera zuten argazkia amaieran.

Eskoriatzan, besteak beste, kantu-bazkaria egin zuten eta herriko Euskaraldia taldeak aitortza jaso zuen Katxiporretako pailazoen *Ostirala iritsi da!* ikuskizunean.

Ekintza askoz ere gehiago izan dira bailaran. *Goiena.eus* atariko *Euskararen Nazioarteko Eguna* atalean daude jasota horietako asko.

'Oldarralditik indarraldira'

Euskararen Eguneko ospakizunekin batera, etorkizunera begirako hausnarketek eta gogoetek ere lekua izan dute egunotan. Euskalgintzaren Kontseiluko kideek, esaterako, oldarralditik indarraldira igarotzeko unea dela adierazi dute, eta, besteak beste, indarrean diren joera soziolinguistikoak eta egiturazko arazoak itzulikatzeko neurri egokiak hartzeko eskatu dute. "Sinistuta gaude 2025a urte garrantzitsua izango dela: larrialditik indarraldirako bideari ekingo diogula, noranzko berri bati". Mobilizazioak iragarri dituzte, eta biratze prozesu horren parte izatera gonbidatu dituzte herritarrak.

DATOZEN EGUNOTAN ERE IZANGO DIRA IKUSKIZUNAK ETA HITZALDIAK ESKUALDEAN

Irudi gehiago ikusteko, eskaneatu QR kode hau poltsikoko telefonoarekin.

Debagoienean gozatzeko ekintzak asteburuan

Bihartik etzi arteko ekintzak proposatu ditu Mankomunitateak: Laboratorium museoa, Arrikrutz eta Gatz Museoa, esate baterako. Aurrez, ordea, izena ematea beharrezkoa da, 943 79 64 63 telefonora deituta edo helbide elektronikora mezu bat bidalita

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak, *Bizi natura familian* izenpean, hainbat ekintza antolatu ditu datozen egunetarako: bihar, esate baterako, egun batez artzain izateko aukera izango da Gomiztegin, 10:30ean hasita; Bergaran, berriz, Laboratorium museoan dagoen *The Black Box* (Kutxa Beltza) erakusketa ezagutzekoa, 11:30ean; eta Oñatin, Txokolateixia Interpretazio Zentroa, 12:00etan. Arratsaldean, espeleologia egin ahalko da familian Arrikrutzeko koban, 15:00etan hasita, gazteleraz; eta 15:30ean, Pottokaleku bisitatu.

Arrikrutzen eginiko Espeleotxiki irteera bat, artxiboko irudi batean. GOIENA

Horrez gain, Kandelen Gaua ospatuko dute Oñatiko Sancti Spiritu unibertsitatean, 17:30etik 19:00etara, eta doakoa izango da sarrera.

Ekintza gehiagoren berri

Etziko, hilaren 7rako, lau ekintzaren berri eman du Mankomunitateak: Laboratorium museoa familian ezagutzeko aukera izango da, 11:00etan; eta 12:00etan (euskaraz) eta 13:00etan (gazteleraz), Leintz Gatzagako Gatz Museoa. Oñatin, berriz, bi aukera izango dira: Txokolateixia Interpretazio Zentrora bisita, 12:00etan, eta Pottokalekura, 15:30ean.

Hilaren 8an, domekan, *Arantzazuko altxor galduen bila* ekintza izango da, goizeko hamaiketan, Parketxean, eta *Ilunpeko altxorrak* irteera, berriz, euskaraz, Arrikrutzen, 15:00etan. Pottokaleku aurreko egunetako ordu berean bisitatu ahalko da: 15:30ean.

Ekintza horietan parte hartzeko, ordea, izena ematea beharrezkoa da: 943 79 64 63 telefono-zenbakian edo *infoturismo@debagoiena.eus* helbidean.

Avanzako Enpresa Batzordeak greben egutegia zehaztu du

Avanzako Enpresa Batzordeak "aho batez" onartu du greben egutegia, eta noiz egingo dituzten jakinarazi du: abenduaren 5ean, 9an, 20an, 21ean eta 22an. Egun horietan guztietan, gainera, mobilizazioak egingo dituzte, eta horietako bat Arrasaten izango da, manifestazioa egingo baitute hilaren 22an, domeka, eguerdiko hamabietan.

Adinekoei laguntzeko boluntario bila dabil Gurutze Gorria

Debagoienean bakarrik bizi diren adinekoei laguntzeko programa abian du Gurutze Gorriak; egun, ehun boluntario ditu, baina gehiagoren beharra du. Horretarako, prest daudenek, bi bide dituzte Gurutze Gorriarekin harremanetan jartzeko: 943 76 55 76 telefono-zenbakia eta *altodeba@cruzroja.es* helbide elektronikoa.

"Euskaldunok, sarean, erdaraz bizi gara"

ANDER BOLIBAR IKUSGELA PROIEKTUKO KIDEA

Ikusgela proiektua nabarmendu dute aurten Rikardo Arregi Kazetaritza Sarietan; Komunikazio Saria eman diote euskarazko eta lizentzia libreko egitasmoari

Julen Murua Mesonero BERGARA

Hiru Damatxo ekoiztetxea lagun, Euskal Wikilarien Kultura Elkarteak bultzatutako ekimena da Ikusgela. Ander Bolibarrek (Bergara, 1989) jaso du saria.

Zer ekarri du saria irabazteak?

Aitortza polit bat izan da guretzat; batez ere, jende askoren lana dagoelako Ikusgelan. Indarra eman digu sinisten dugun proiektu honetan lanean jarraitzeko eta euskarazko ikus-entzunezko libreak sortzeko eta biderkatzeko.

Zer da Ikusgela?

Interneterako bideo motzak sortzen ditugu. Dibulgazio-bideoak dira, historiaren, euskal kulturaren eta filosofiaren ingurukoak, besteak beste. Kuriositatea izan nahi duen edonork euskaraz ikusi ahal izateko bideoak dira, baina baita hezkuntza testuinguruetan erabiltzekoak ere; izan ere, hutsunea zegoen, alde horretatik, eta horrelako hezkuntza baliabide irekiak eta euskarazkoak ez dira ohikoak.

Bolibar, Ikusgela proiektuak jasotako sariarekin. DABID ARGINDAR

Hutsune bat zegoela aipatu duzu.

Egunero bost bat ordu pasatzen ditugu pantaila baten aurrean, eta ordu horietatik, euskaraz, oso gutxi dira. Euskarak eta euskal komunitateak, alde batetik, behar dute horrelako material pila bat; eta, beste alde batetik, hiztunok, ohitura eta konpromisoa izan behar dugu euskaraz sortzen dena ikusteko, ezagutarazteko eta gure inguruan zabaltzeko. Hutsuneak hor jarraitzen du; proiektuak hura txikitzeko ekarpen bat egiten du, beste proiektu batzuekin batera, baina euskaldunok, sarean, erdaraz bizi gara. Guztion konpromisoa da beharrezkoa, erakundeena zein hiztunona.

Zein da euskarazko edukiak kontsumitzen dituztenen kopurua?

Ez da erraza jakitea, datuekin, zenbat eta nola ikusten den euskaraz. Gure kasuan, 110 bideo sortu ditugu, zortzi serietan banatuta. Bideo horiek Youtuben eta Wikipedian daude, proiektua Euskarazko Wikipediak koordinatzen duelako. Euskarazko Wikipedia bada euskarazko webgune bisitatuenetako bat, eta, alde horretatik, badaukagu sortzen duguna ikusi egiten den bermea. Zeintzuk dira euskarazko bideo batean zenbaki onak? Zaila da esatea. Uste dut bakoitzak ikusi behar duela norbere kultur kontsumoa zenbateraino den euskaraz eta zenbateraino ez; non kontsumitzen duen eta non ez. Orain dela gutxi argitaratu genuen bideo bat *Erronka digitalak* seriearen barruan *Euskararen mugak sarean* izenpean, eta bideo horretan laburtzen dugu euskarak dituen erronkak ingurune digitaletan eta zergatik ez den horrenbeste erabiltzen.

Euskarazko jakintza librearen sustapenari eta eguneratzeari ematen diozue balioa; ez da erronka makala.

Euskarazko dibulgazio asko egiten da; bueno, asko baino gehiago, egiten da. Askotan, baina, guk geneukan pertzepzioa oso ezberdinduta egon da gazteen narratibekin alderatuta, ikus-entzunezkoei dagokienez. Gure saiakera izan da, hasieratik, narratiba fresko eta arinekin gauzak azaltzen, baina sakontasuna galdu gabe.

Informazio gehien dagoen testuinguru honetan, desinformazioa da nagusi; zein da zuen egoera?

Gure proiektua Euskarazko Wikipediatik sortu zen, bertako ikus-entzunezkoen proiektua da, eta Wikipediak berak *fake news*-en inguruan ekarpen polita egiten duela iruditzen zait; izan ere, lehen lerroan jartzen du iturrien garrantzia eta ondo erreferentziatuta egotea. Irakurleak ariketa aktibo hori izatea eta irakurtzen edo ikusten ari den horren atzean zer dagoen aztertzeko gogoa izatea ere sustatzen du proiektu honek. Gure bideo guztiek, amaieran, kredituak dituzte, eta iturri guztiak agertzen dira; gainera, Creative Commons irudiak direnez, bideo bakoitzean erabiltzen diren irudi guztiak aipatuta daude. Uste dut era horretara sortzen dela praktika bat askoz ere osasuntsuagoa, edukiak nondik eta nola atera diren aitortzen delako eta edukiak libreak direlako, lizentziari dagokionez. Aldi berean, desinformazioaren aurka ere borrokatzen dela iruditzen zait, guztia modu kolektiboan egiten delako eta agerian uzten delako.

Azken hilabeteetan hainbat izan dira X sare sozialetik atera diren hedabideak; zer iritzi duzu horren inguruan?

Uste dugu oso garrantzitsua dela komunitateak edukitzea, eta komunitate horiek digitalak ere izan daitezke. Sare sozial pribatiboak, eta enpresa handienenak, askotan, algoritmo bati lotuta daude, eta beste logika batetik eraikitzen dira. Horrelakoetan, euskara hutsean sortzeagatik bakarrik, algoritmoak zigortu egiten gaitu. Hortaz, biralitatearen mentalitatea baino askoz interesgarriagoa da komunitate txikien mentalitate bat. Guk horren alde egiten dugu, eta komunitate horiek sortu nahi ditugu Mastodonen, Telegramen eta halako tokietan; iruditzen zaigu osasuntsuagoa dela eta desbideratu egiten gaituela biralitatearen gezur horretatik.

Zeintzuk dira, etorkizunera begira, Ikusgelaren erronka nagusiak?

Iruditzen zaigu infinitua izan daitekeela egiten dugun langintza, eta beste 100 bideo egitea polita izan daitekeela. Era berean, proiektua ezagutarazten jarraitzen dugu, eta uste dugu momentua dela Ikusgela ezagutzen ez dutenengana zabaltzeko.

"EUSKAL HIZTUNOK EUSKARAZ KONTSUMITZEKO KONPROMISOA IZAN BEHAR DUGU"

Miriam Urkiak Euskaltzaindiaren zuzendaritzan jarraituko du

Akademiak egubakoitzean egin zuen osoko bilkura, eta aretxabaletarra Iker sailburua izango da beste lau urtez

J.M.M. ARETXABALETA

Bilboko Sociedad Bilbainaren egoitzan egindako osoko bilkuran aukeratu ditu Euskaltzaindiak datozen lau urteetan akademiaren jarduna gidatuko duten lantaldeko kideak. Horien artean dago Miriam Urkia aretxabaletarra, eta, horrenbestez, Euskaltzaindiko Iker sailburua izaten jarraituko du, beste lau urtez. Urkiak bezala, akademiaren buru izaten jarraituko du Andres Urrutiak, eta haren alboan egongo dira Itxaro Borda (buruordea), Miren Agur Meabe (idazkaria), Roberto Gonzalez de Viñaspre (diruzaina), Miriam Urkia (Iker sailburua) eta Paskual Rekalde (Jagon sailburua) euskaltzain osoak. Era horretara, Euskaltzaindiko ordezkariek adierazi dute "batzorde parekidea" izango duela akademiak datozen urteetan, eta "euskararen lurralde guztiak" hartuko dituztela, "Itxaro Bordak Ipar Euskal Herriko hiru lurraldeak" ordezkatzen ditu eta.

Urkia, ezkerrean, zuzendaritzako gainontzeko kideekin. EUSKALTZAINDIA

Arrasateko Olarte kalea, Gabonetako argiekin apainduta. JULEN MURUA MESONERO

Debagoieneko kaleak, argiztatzeko prest

Hemen dira Gabonak: gaur piztuko dituzte argiak bailarako zenbait herritan, eta martxan dira erakusleiho lehiaketak zein erosketa-bonuen kanpainak. Bertan kontsumitzeko deia egin dute merkatariek. Aretxarteren iragarkiak, beste behin, mezu hori zabaldu du

Julen Murua Mesonero DEBAGOIENA

Gabonak iristear dauden honetan, etxeko gelak apaintzen hasteaz gain, herrietako kaleak ere hasi dira kolorea hartzen. Hain zuzen ere, bailarako herri batzuetan gaur piztuko dituzte Gabonetako argiak. Aretxabaletako Aretxarte elkarteak ere aurkeztu du aurtengo Gabonetako iragarkia. Beraz, orain bai, esan daiteke Gabonak hemen direla.

Argiak pizteko prest

Arrasaten, Bergaran eta Aretxabaletan gaur piztuko dituzte argiak, eta urtarrilaren 6a bitartean argiztatuko dituzte herri horietako kaleak. Oñatin abenduaren 12an –urtarrilaren 7ra arte– eta Eskoriatzan 13an –urtarrilaren 6ra arte– piztuko dituzte argiak, eta, Elgetari dagokionez, abenduaren 23tik urtarrilaren 6ra bitartean jarriko dituzte argiak, udaletxeko eta kultur etxeko balkoietan. Antzuolari dagokionez, argiak jarriko dituzte herriko erdigunean; plazan, esaterako. Aramaioren eta Leintz Gatzagaren kasuetan, ez dute argirik jarriko.

Inbertsioari dagokionez, hiru udalerritan egin dituzte handienak: Arrasaten 36.300 euroko inbertsioa egin dute, Bergaran gastatutakoa 24.000 eurokoa izan da eta Oñatiko kontratazioa 18.000 eurokoa izan da. Gainontzeko herrietan, gehiago edo gutxiago gastatu badute ere, ez dute bestelako inbertsiorik egin Gabonetako argiei dagokienez.

Tokiko komertzioak sustatzen

Urtero bezala, herritarrei tokiko komertzioetan erostera bultzatzeko hainbat ekimen jarriko dituzte martxan bailarako hainbat herritan; tartean, erosketa-bonuak eta erakusleiho lehiaketak. Arrasaten, esaterako, *Gabonetan Arrasate Piztu Deigun* kanpaina abiaraziko dute, beste urte batez, "herria bizirik mantentzeko, hainbat eragileren lanari aitortza" gisa. Arrasaten, Bergaran, Aretxabaletan eta Oñatin erakusleiho lehiaketak egingo dituzte. Gainera, Bergaran, Bedelkartxo letren lehiaketa egingo dute, eta Oñatin, urteroko erakusleiho lehiaketaz gain, *Zortea Oñatiko dendetan dago!* Gabonetako kanpaina jarriko du martxan Txanda elkarteak. Eskoriatzan eta Aretxabaletan erosketa-bonuak jarri dituzte; guztira 1.400 bonu izan dira Eskoriatzan, 14.000 euroko aurrekontuarekin, eta 875 izan dira Aretxabaletan, 17.500 euroko aurrekontuarekin; herritarrek tokiko komertzioetan kontsumitzeko hautua egin dezaten. Gainontzeko herrietan ez da erosketa-bonurik edota erakusleiho lehiaketarik espero.

TOKIKO KOMERTZIOAK SUSTATZEKO KANPAINAK ABIAN JARRI DITUZTE HAINBAT HERRITAN

Umorista oñatiar baten erasoak salatu dituzte zenbait emakumek

Idatzia argitaratu eta gutxira, EITBk bertan behera utzi du Primeran emititzen hasita zegoen 'Barraka' saioa

Larraitz Zeberio Lekuona OÑATI

Salaketa idatzi anonimo bidez heldu zen domeka iluntzean. X sare sozialean berriki sortutako *@bukatu_da_show-a* kontuan eman zuten lehenengo argitara. Ostean, Instagram kontuan partekatu zuen Oñatiko Bargasta taldeak. Idatziak honela dio: "Euskal komunikabide ezberdinetan ezaguna den mutil gazte bat erasotzailea da". Ez da gizonezkoaren izen-abizenik ematen; bai, ordea, beste hainbat datu: "Umore arlotik bakarrizketa zein show ezberdinak gidatu ditu, programa propio bat aurkeztu arte. Oñatiarra da, karisma handia du, baita babes soziala ere (...) Asko gara gizon honen eraso fisiko, sexual, psikologiko eta berbalak jasan ditugunak; ez behin, ez bitan... Erasoek denboran iraun dute, eta, gainera, ugaritu egin dira (...) Zu ere erasotua izan bazara, jakin babestuko zaituen sare bat dagoela".

Saio bat bertan behera

Idatzia publiko egin eta gutxira, Hiru Damatxo ekoiztetxeak eta EITBk komunikatu bana zabaldu zuten. Ekoiztetxeak jakinarazi du "zilegitasun osoa" aitortzen diela erasoak salatu dituztenei. "Gure proiektu bateko pertsona batek egindako erasoak salatu ditu emakume talde batek. (...) Horregatik, proiektu horren sustapena, emisioa eta sareetako zabalkundea bertan behera utziko dugu une honetatik bertatik". EITBk, berriz, "kautelazko" neurriak hartu ditu "gertaerak argitu eta dagozkien protokoloak aplikatu arte". Bertan behera utzi dute *Barraka* saioaren emisioa.

Oñatiko Udalaren urratsak

Galdetuta, Oñatiko alkate Izaro Elortzak azaldu du Udaleko Berdintasun batzordea elkartu dela eta indarrean dauden udal protokoloak aztertu dituela. Jakinarazi du erabakia izan dela mugimendu feministak hartuko dituen erabakien zain gelditzea. "Mugimendu feministarekin harremanetan gaude eta haiek salaketa jarri duten emakumeekin. Batzordeak erabaki du zein erabaki hartzen duten zain egotea haien denborak eta beharrak errespetatzeko. Ikusiko dugu beste urratsik ematen den eta nola ematen den".

L.Z.L.

Erailketa matxista salatu dute

2024an Euskal Herrian izan den seigarren erailketa matxista izan da, Pasaian, eta, hori salatzeko, elkarretaratzeak egin dituzte hainbat herritan. Senideei, lagunei eta gertukoei babesa eta elkartasuna adierazteko kontzentrazioak izan dira. Mugimendu feministak, bestetik, protokoloen eraginkortasuna jarri du auzitan eta instituzioen "pasibotasuna" salatu du.

ZABALIK

ANDREA GONZALEZ VALLE

Euskaraz

Azkenaldian askotan gertatzen ari zaidan egoera bat plazaratu nahi dut; euskararen inguruko egoera bat, eta ez, ez da Euskararen Eguna datorrelako. Kontua da, igual, agian, apika, zuetako askorentzat normala izango dela Euskal Herriko tabernetan hiru, lau edo bost kantu espainolez jarraian entzun eta dantzatzea. Niretzat, ez. Igual, agian, apika, arraroa izango naiz.

Tabernak diodanean, ez naiz ari edozein tabernaz; hiriburuetako antroetatik hasi eta gure herriko taberna edo arranoetaraino sartzen diren horiez guztiez ari naiz. Kontsumitzeko taberna baten bila ari garenean, "hori taberna euskalduna da" esan ohi dugu, baina zertaz ari gara? Bertan lanean diharduten tabernariek euskaraz dakitela? Arrano beltza eta ikurrina dituztela eskegita? Euskarazko edukien aldeko apustua egiten dutela? Hainbat dira bururatzen zaizkidan zalantzak eta kezkak, baina, igual, agian, apika, niri bakarrik etortzen zaizkit.

GURI, EUSKALDUN BEZALA, DAGOKIGU EUSKARAZKO MUSIKA ENTZUN, ZAINDU ETA ZABALTZEA

Gaur-gaurkoz, edozein genero musikaletan euskarazko sorkuntza desberdin pila bat aurki ditzakegu, batzuk gure gustukoak izango direnak eta beste batzuk ez; baina uste dut guri, euskaldun bezala, dagokigula euskarazko musika entzun, zaindu eta zabaltzea. Guri, bai, euskaldunok hori egin ezean ez duelako inork egingo.

Horrekin guztiarekin ez naiz ari esaten ezin denik erdarazko edo ingelesezko musikarik entzun eta gozatu, baizik eta euskararen aldeko apustua egiten dugunean kontuan hartu beharreko faktore asko daudela; esate baterako, euskararen erabileraren normalizazioa sustatu nahi dugula, euskal kulturaren aldeko apustua egiten dugula edota herriko artistei haien lana entzuteko espazio bat eskaintzea. Euskal Herrian euskaraz bizi eta aritzeko elkargune eta arnasgunerik ez badugu, igual, agian, apika, laster ezingo gara gure lurraldean euskaraz bizi.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA

GUTUNAK

Azaroaren 29a, Palestina Zatitzearen Aurkako Eguna! Palestinarekiko Elkartasun Eguna, ez

IGOR URIZAR MURGOITIO
ARRASATEKO BDZ-REN IZENEAN
ARRASATE

Aspaldiko kontua da urteko egun bakoitza egun berezi batekin izendatzekoa. Martxoaren 8a Emakumeen Eguna, apirilaren 17a Preso Politikoen Nazioarteko Eguna, maiatzaren 1a Langileen Eguna...

Eta azaroaren 29a Palestinarekiko Elkartasun Egun izendatu zuten. Baina azken hori nortzuek eta zergatik izendatu zuten?

Kontuan eduki behar dugu egun hori nork ipini zuen eta zergatik. 1947ko azaroaren 29an, NBEko estatu kolonialistek eta estatu horien jarraitzaileek Palestina bi estatutan banatzea onartu zuten, palestinar herria kontuan izan gabe. 1977an, NBEk azaroaren 29a Palestinarekiko Elkartasun Egun izendatu zuen; 1978an aldarrikatu zen lehen aldiz, eta, ordutik hona, ezer ez egitean datza eguna. Kolonia sionistak finantzatu eta kolonizazioa babesten jarraitu baitu NBEk.

Palestinako herriaren nahia entzunik, hau aldarrikatu nahi dugu: azaroaren 29a ez da Palestinarekiko Elkartasun Eguna izango, egun hartan Palestina bitan zatitu baitzuten.

Eskerrak Jesus Agirreri

EÑAUT URIARTE PALACIO
BERGARA

Orain hiru aste, azaroaren 16an, El Naan musika talde palentziarra entzun ahal izan giñuan San Juango ermittan, eta esan bihar dot plazer haundixa izan zala: batetik, herrixan zein eskualdian entzuten ez dan musika mota bat dalako; eta, bestetik, oso musikari onak zielako.

Musika ona maitte dogunok eta, batez ere, han geundenok gozatu ederra hartu giñuan aurten be, Jesus; beraz, mila esker, Jesus eta segi hola eta holako taldiak ekartzen San Juanera, urtian behin bada be. Zorionak!

goiena KOMUNIKAZIO TALDEA
www.goiena.eus

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.
Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Goiatz Arana, Monika Belastegi, Mirari Altube, Larraitz Zeberio.

Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailetako arduradunak
Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin, Amaia Mundiñano.

Administrazioa
Ane Berezibar, Iratxe Bengoa, Leire Etxebarria.

HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.550 ale

Inprimategia:
Zeroa Multimedia

GOIENAk ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK

Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

Gipuzkoako Foru Aldundia

BERBAGAI

"Ezinbestekoa da biztanleria eta azpiegiturak prestatzea"

AITZIBER URQUIJO URAREN AGENTZIAKO LAN HIDRAULIKOEN ARDURADUNA

Sara Lanz Azpiazu ARRASATE

Urriaren 29ko Valentziako euriteek 221 hildako eta bost desagertu eragin zituzten, eta hondamendi hark Euskal Herrian ere alarma piztu du. Klima aldaketaren eraginez, muturreko fenomenoak gero eta maizago gertatzen dira, eta Debagoienak ere ezin du beste alde batera begiratu; izan ere, nola dago prestatuta halako egoerei aurre egiteko? Eta zer gehiago egin beharko litzateke etorkizunean? Hori guztia argitzeko, Aitziber Urquijok (Amurrio, 1976), Uraren Agentziaren lan hidraulikoen arduradunak, hainbat galdera erantzun ditu.

Aitziber Urquijo. S.L.A.

Valentziako hondamendia gertutik jarraitu zenuten; zer ikasi daiteke halako egoera batetik?

Gertatutakoak argi utzi du koordinazioa eta prebentzioa funtsezkoak direla. Kalte materialak beti konpon daitezke, baina hildakoak ez dira itzuliko. Halako egoerak ekiditeko, ezinbestekoa da biztanleria eta azpiegiturak prestatzea.

2022tik 2027ra arteko plana da gaur egun indarrean dagoena; Valentziako gertaeren ondoren, ikusi duzue berrikusteko beharrik?

Orain, hirugarren zikloan hasi gara lanean; hau da, plana eguneratzen. Valentzian gertatutakoak guri, batez ere, lanean jarraitzeko indarra eman digu. Argi dugu plana betetzen jarraitu behar dugula. Eta hori ikusten dugu. Urte asko daramatzagu lanean; uste dut EAEn 350 milioi euro inbertitu direla horrelako lanetan, eta datozen lau urteetan 100 milioi gehiago inbertitzea aurreikusi da.

Debagoienean antzeko egoera bat gertatzea posible da?

Bai, guztiz posible da. 1983an Bilbon uholde handia izan zen, eta kalte handiak ekarri zituen, baita hildakoak ere. Duela 50 urte izan zen, eta halakoak gerta daitezke berriz. Euskal Autonomia Erkidegoko hainbat eskualdetan ibaiertzak oso urbanizatuak daude, eta horrek ibaiaren ahalmena murriztu egiten du. Adibidez, Bergara arrisku-eremu batean dago, ibaiaren inguruan eraikin ugari baitaude. Naturak bere bidea egiten duenean, kalteak izugarriak izan daitezke. EAEko 100.000 pertsona dira uholde-arriskuko eremuetan bizi direnak. Egoera ez da nolanahikoa, eta neurri eraginkorrak behar dira.

Zein da Debagoieneko ibaien eta azpiegituren egoera?

Ibai asko aldatu dira azken hamarkadetan, eta azpiegitura batzuek, nahiz eta beharrezkoak izan ziren hasieran, gaur egun uholdeak okerragotu ditzakete. Adibidez, zubi eta horma batzuek ura pilatzen dute uholdeen garaian. Uraren Agentzian lan asko egiten ari gara ibaiak berreskuratzeko, baina oraindik badaude egitekoak.

Zein dira, gaur-gaurkoz, hartzen ari zareten neurri nagusiak?

Prebentzioa da gure ardatz nagusia. Horretarako, ibaietako egoera etengabe kontrolatzen dugu, Euskalmetekin elkarlanean, euriteak aurreikusi eta arriskua baloratzeko. Herritarrei informazioa helarazi eta babes zibila garaiz aktibatzea funtsezkoa da. Halaber, ibaiertzak ahalik eta gehien berreskuratzen ari gara, eraikuntzak kontrolatuz. Ibaiak berreskuratzea ezinbestekoa da, naturari bere espazioa itzultzea baita uholde-arriskua murrizteko modurik eraginkorrena.

Klima aldaketak arrisku hori areagotu egingo duela diozu; zein da egoera etorkizunari begira?

Bai, muturreko fenomenoak ohikoago bihurtzen ari dira, eta horrek uholde-arriskua handitzen du. Ez da bakarrik eurite gehiago izango direla; itsasoaren mailaren igoera ere kontuan hartu behar da. Hori dela eta, plangintza hobea eta azpiegitura egokiak garatzea ezinbestekoak da.

Zer gomendatuko zenieke herritarrei?

Ibaiertzetan ez eraikitzea da lehen pausoa. Gainera, norberak neurri aktiboak hartu behar ditu: babes zibilaren oharrak jarraitzea eta etxeak egokitzeko babes-neurriak hartzea. Epe luzera, prebentzioa eta kontzientziazioa izango dira giltzarriak.

Zein gomendio ematen duzue klima aldaketa *gelditzeko?* Zer egin beharko litzateke?

Gaur egun hobetzeko balio duena etorkizunean ondo etorriko zaigu. Hau da, prebentzioa, lurralde antolaketa, eta, bestalde, aurreikusi ditugun edo egin ditugun lanak. Uholdegarritasuna murrizteko helburua dute, baina etorkizunari begira ere oso ondo etorriko dira.

"IBAIAK BERRESKURATZEA EZINBESTEKOA DA, NATURARI BERE ESPAZIOA ITZULTZEA"

"BERGARA ARRISKU-EREMU BATEAN DAGO, IBAIAREN INGURUAN ERAIKIN UGARI BAITAUDE"

TXOKOTIK ZABALERA

UNAI GAZTELUMENDI

Atzo arratsaldean aurkeztu zuten Gabonetako kanpaina, Kulturaten, udal ordezkariek zein herriko eragileek. E.A.B.

Herrigintzak piztuko ditu Gabonak, argiekin batera

'Gabonetan Arrasate piztu deigun' lelopean aurkeztu dute Gabonetako kanpaina Udalak, Ibai-artek, Santamas Komisiñuak, Txatxilipurdik eta beste hainbat eragilek. "Herria piztu gura dugu, eta hori, argiek ez ezik, herritarrek egiten dute", dio alkateak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

Kulturaten egin duten prentsa agerraldiaren bidez eman dute Gabonetako kanpainaren berri. Lehenik, Gabonetarako prestatu duten iragarkia aurkeztu dute, eta, ondoren, Maider Morras alkateak hartu du berba. "Herria piztu gura dugu, bizia eman gura diogu. Edozelan ere, herria argiz bete genezake, baina kaleak piztu dituztenak herritarrak dira. Iragarkian adierazi gura izan dugun moduan, Gabonetan herria pizten duten eragile asko daude, eta guztien arteko elkarlanari esker lortzen dugu Arrasate piztea. Horregatik, elkarlanaren balioa ekarri nahi izan dugu", azpimarratu du.

Helburua, funtsean, Gabonak herrian igarotzea da. "Eragile guztiek egiten duten ekarpenaren energia batu nahi izan du kanpaina honek; herria pizteko; herriko komertzio txikia pizteko; herrigintza pizteko; euskara pizteko; harreman berriak pizteko; eta komunitate bat pizteko. Azken finean, egun hauek Arrasaten bertan gozatzeko, gure herrian, eta gertukoekin une politak bizitzeko".

50 ekintza baino gehiago

Azaldu dutenez, gaur argiak piztuta abiatuko duten egitarauak 50 ekintza baino gehiago jasotzen ditu –iaz 30 inguru izan ziren–. Hori dela eta, egitarau fisikoa baino gehiago, egitarau digitalaren aldeko apustua egin du Udalak. "Horrek bi irizpide nagusiren araberako filtroa egiteko aukera ematen du: ekitaldi mota eta nori zuzendua dagoen".

Haurrendako boloa bihar

Haurrei dagokienez, San Nikolas boloa izango dute bihar, egubakoitza, auzoetan zein Herriko Plazan. Horrekin batera, pizgarriak ere izango dituzte Biterin, Ibai-arteren eskutik, honako egun hauetan: abenduaren 6an, 7an, 8an, 14an eta 28an. Halaber, Yougurinha Borovaren haur ikuskizuna izango da hilaren 30ean, baita Txikilandia ere, urtarrilaren 2tik 4ra.

Olatz Salvador hilaren 23an

Musika ere ez da faltako; izan ere, herriko taldeen emanaldiak izango dira –trikiti taldea, Goikobalu, Arrasate Musikal edota Txorbela Otxotea–. Era berean, Akordeoi Lehiaketa izango da asteburuan, Euskadi Brass taldea Juan Arzamendi Musika Etxean ariko da hilaren 14an eta Olatz Salvadorrek kontzertua egingo du Amaia antzokian abenduaren 23an.

Horrez gain, Erraldoi eta Kilikien Konpartsak kalejira egingo du abenduaren 21ean eta *Wonderland* kale ikuskizuna egingo dute abenduaren 20an, Ibai-artek antolatuta.

Askotariko azokak

Santamasetako azokaz gain, Arrasateko artisauen azoka izango da Seber Altubeko karpan, abenduaren 14an, 15ean, 21ean eta 23an. Bestalde, Jostailu Truke Merkatua egingo dute abenduaren 14an, Biterin, eta IMME elkarteak jostailuak banatuko ditu abenduaren 20an. Berrikuntza gisa, azkenik, bigarren eskuko liburu azoka egingo dute hilaren 14an, Loralde elkarteak antolatuta, Josle denda parean.

Erakusleiho Lehiaketa martxan

Establezimenduek abenduaren 9ra arte edukiko dute Erakusleiho Lehiaketan izena emateko aukera, BAZen zein *Arrasate.eus*-en, eta aurten sari berriak egongo direla aurreratu dute. Lehen saria 1.000 euro izango dira; bigarrena, 700 euro; hirugarrena, 600 euro; laugarrena, 500 euro; aipamen berezia, 200 euroko lau sari; Herritarren Saria, 500 euro; eta Haur eta Gazteen Saria, 500 euro. Halaber, Herritarren Saria bozkatzen dutenen artean 120 euroko hamar bonu zozkatuko dituzte herriko dendetan gastatzeko eta Haur eta Gazteen Saria bozkatzen dutenen artean, aldiz, 50 euroko bost bonu.

Karpa Seber Altube plazan

Gabonetako karpa berezia jarriko dute Seber Altube plazan, eta han gauzatuko dituzte hainbat ekintza: azokak, tailerrak eta bi drag ikuskizun, esaterako. Edozelan ere, ekintzarik ez dagoenean ere herritarrentzat aterpe funtzioa izan dezan gura du Udalak.

GAUR, EGUENA, ISIOTUKO DITUZTE GABONETAKO ARGIAK, EGITARAUARI HASIERA EMATEKO

Lursailak topografikoki mugatzen jarraitzen du Udalak

Lankidetza eskatzen die lana eremuko lurren jabeei, auzokideekin mugak adostu eta lanak ondo egiteko

E.A.B. ARRASATE

Udal ordezkariek adierazi dutenez, jabeen edo haien oinordekoen landa-ondasunen inguruko "ezagutza faltak edo ezjakintasunak" mugak nahastea edo, besterik gabe, desagertzea eragiten du. "Horrek mendia ez zaintzea dakar eta ondorio larriak eragiten ditu landa-eremuetan".

Landa-lurretan kokatutako 1.095 hektareako azalera duten 454 lursail baino gehiago mugatzeko lanekin hasi da Udala. "Proiektu honetan daukagun erronka oso garrantzitsua da, landa-lurraren hedadura handia delako. Hori dela eta, gainerako poligonoak datozen urteetan egingo dira", nabarmendu dute.

Proiektuaren helburuak honako hauek dira: katastroko mugetan egon daitezkeen akats posibleak argitzea, horiek zuzentzea eta muga zein mugarriei GPS koordenatuak ematea.

Lanak "behar bezala" egiteko, 180 jabe baino gehiagoren lankidetza izatea ezinbesteko baldintza da, haiek adostu beharko baitituzte auzokideekin lursailen mugak eta mugarriak. "Lanak egin ostean, adierazitako mugen zein mugarrien koordenatuak dituzten planoak emango zaizkie jabeei, behar izanez gero, katastroko mugak zuzenduz. Kosturik gabe jasoko dute katastroko lursailen jabeek dokumentazio hori".

Arrasateko 5, 6 eta 9. poligonoetako lurren jabe guztiei zuzenduta, hilaren 17an bilera egingo dute, Kulturateko areto nagusian.

Bedoñako Santa Eulalia jaiak ospatuko dituzte asteburuan

Hiru eguneko egitaraua prestatu dute Santa Eulalia jaiak ospatzeko, eta, besteak beste, Thierry Biscary musikari baxenabartarraren *a cappella* emanaldia izango da domekan. Horrez gain, Txatxilipurdik jolasak eramango ditu gaztetxoenendako eta auzo bazkaria egingo dute zapatuan (Egitarau osoa, *Goiena.eus* webgunean).

Udalbatzak Euskararen Erabilera Plana onartu du

Abenduko ohiko osoko bilkura egin du udalbatzak abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, eta, hain zuzen, Euskararen Erabilera Plana onartu du, babes zabalarekin; sozialistak abstenitu arren, gainontzeko hiru alderdiek alde botatu dute

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE

"Dokumentu oso teknikoa badirudi ere, bihotz handiko dokumentua da. Dokumentu horren helburu nagusi bakarra da gure Udalean, Arrasaten, eta gure herrian, Euskal Herrian, euskaraz normaltasunez bizi ahal izatea", adierazi du Joseba Ezpeleta Euskara zinegotziak.

Besteak beste, aurreko planetan ezarritako ildoak egungo egoerara eta beharrizanetara egokitzen ditu dokumentuak, "orain arte egindako urratsak egonkortuz eta datozen urteotako lehentasunak ezarriz", Ezpeletaren esanetan. "VII. plangintzaren helburu nagusia da euskara zerbitzu-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza ere izan dadin urratsak egiten jarraitzea".

Halaber, honako hauek ere badira helburuak: planaren zeharkakotasuna erronka gisa hartzea; erakundeko arduradunen inplikazioa eta lidergoa sustatzea eta hizkuntza kudeaketa erakundearen kudeaketa orokorrean txertatzea.

Abenduko ohiko osoko bilkura, Euskararen Nazioarteko Egunean. E.A.B.

"Lanean jarraitu behar dugu"

Udala "aspalditik" ari da euskara sustatzen, Ezpeletak dioenez. "Izan ere, aztertzen eta berritzen ez dena herdoildu egiten da. Asko egin eta aurreratu dugu azken hamarkadetan Arrasaten, euskaraz normaltasunez bizitzeko ahaleginean eta praktikan, baina bide luzea dugu oraindik, eta, hori gutxi balitz, erronka berriak areagotzen ari dira: digitalizazio ikusgarria, lurralde anitzetako pertsonen etorrera...".

Halaber, Udalaren zeregina "plan horretatik harago" doala ere aipatu dute. "Herrira begira, Arrasateko euskalgintza osatzen duten elkarte eta pertsonekin elkarlanean ari gara, eta, besteak beste, Geikeren bidez indarrak batu nahi ditugu, ditugun erronkei arrakastaz heltzeko".

Adierazpen instituzionalik ez

Era berean, *Euskararen Eguna* mozioa aurkeztu dute EH Bilduk eta Elkarrekin Arrasatek, besteak beste, "euskarak aurrera egiteko ezinbestekoak dituen hizkuntza politikak bultzatu eta horiek babesteko legeen oinarriak adostea" eskatzen duena.

EAJk babestu egin du mozioa eta sozialistek, aldiz, aurka bozkatu dute; beraz, ezin izan dute adierazpen instituzionalik egin.

Gracy Joseph-en hitzaldia, Harremanen eskutik, martitzenean

Ankur: emakumeak ahalduntzeko lekua izeneko hitzaldia egingo du Gracy Josephek, Indiako Ankur harrera etxeko proiektuaren sustatzaileetako batek. Kulturateko areto nagusian izango da saioa, abenduaren 10ean, 18:30ean. Hizlariari dagokionez, zera azaldu dute Harremanekoek: "Indiako hegoaldetik dator, eta Ankurren bultzatzaileetako bat da, Santa Anako Karitateko Ahizpen komunitatekoa. Haren lanbidea eta pasioa gizarte-lana da. Haren ametsa, berriz, pobreei laguntzea. Halaber, emakumeen sustapenak eta ahalduntzeak funtsezkotzat jotzen ditu". Idoia Asurmendik musikarekin girotuko du saioa.

'Luces en sombra' dokumentala, hilaren 12an, Kulturaten

Arrasateko Emakume Txokoak antolatuta, zaintza-lanetan dabiltzan emakume migratzaileen errealitatearen inguruko hausnarketa plazaratzen duen ikus-entzunezkoa proiektatuko dute Kulturateko areto nagusian, abenduaren 12an, 19:00etan.

Ione Ateneak zuzendutako dokumentala da. Era berean, Lidak, Candidak, Katiak, Silviak, Rosa Marik eta Helenak "entzun nahi ez den" errealitatea deskribatzen dute, "deserosoa, zaintzaileena, izendatzen ez dena". Hiruki Filmak eta Bidez Bide elkarteak ekoiztu dute filma eta Bidez Bide elkarteko Katia Reimberg eta Soraya Ronquillo izango dira ondorengo solasaldian.

NIRE USTEZ

DANIELA PEDROZA BLANCO

Duintasunaren aldeko borroka

Arrasate izeneko herri batera, hainbat gazte, gehienak adin txikikoak, ekarri zituzten, etorkizun oparo bat hitzemanda. Gurasoei kobratu egiten zieten egonaldia, etxebizitzaren, janaren eta ametsak errealitate bilakatzeko aukeraren truke. Josek, esaterako, futbolari profesional izan nahi zuen. Baina iruzur hutsa zen guztia. Lotsagarriena izan zen ordezkatzen ez gaituztenek sortutako plana izan zela. Egunero esperantzaz beterik saiatu arren, baldintza prekarioetan bizirauten dugu. Amerika Elkarteak, ahal zuen heinean, kalean geratu zen mutiko bat lagundu zuen. Zaurgarri eta instituzio publikoen babes barik geratu zen. Nik, pertsonalki, Udaleko, Ertzaintzako eta Gizarte Zerbitzuetako ateak jo nituen, baina ihes egin zuten, irtenbiderik eman gabe. Erantzunak etsigarriak izan ziren: "Zergatik ez duzue erroldatzen? Ez dugu larrialdietarako funtsik". Gurutze Gorriari eskerrak, gazteari elikadura-bonu bat emateagatik. Baina zer gertatzen da Udalarekin eta Gizarte Zerbitzuekin? Halako gertakariekin, zera datorkit burura: pandemiako krisi garaietan bezala, benetako berdintasuna elkarrekin aurrera egiten dugunean sortzen dela.

VITALDENT ZURE AHOA DENA DA | 35 URTE

OSASUNA, DIRUA ETA MAITASUNA ESKATZEN BADITUZU... DENA DAUKAGU.

ARRASATE
Otalora Lizentziaduna kalea 1
943 06 03 22

Gabon hauetan, Vitaldent-ek zure maiteen aho-hortzetako osasuna zaintzen laguntzen dizu %15eko deskontuarekin zure tratamenduan* eta 24 hilabeterainoko finantzaketarekin**

Zure maiteen osasunaz arduratzea ere maitasun-ekintza bat delako.

* 24/12/01etik 24/12/31ra bitarteko promozio balioduna, biak barne. Onartutako aurrekontuaren zenbateko osoari aplikatuko zaio. 250 €-tik gorako tratamenduetarako. Ezin zaie beste deskontu eta sustapen batzuei metatu. Kontsultatu zure tratamenduaren tarifak Vitaldent klinikan. Medikuaren agindupeko tratamenduak. CS10715 Osasun Erregistroa.** 24 hilabetetan 1.800 €-ko zenbatekoa finantzatzeko adibidea. % 2ko formalizazio-komisioa: 36 €, lehenengo kuotan ordaindu beharrekoak. 111 €-ko lehen kuota eta 75 €-ko 23 kuota. TIN % 0,0 UTB % 1,96. Kredituaren kostua guztira: 36 €. Zor den zenbatekoa guztira eta epekako prezioa guztira: 1.836 €. Eskurako erosketaren prezioa: 1.800 €. Vitaldentek diruz lagundutako interesak. Banco Cetelem SAUk eskainitako finantzaketa, 2024/12/31ra arte baliozkoa. RPS 255-19

"Azken urtea izango da; ase naiz futbolaz"

MIKEL AIZPURUA MONDRAKO JOKALARIA

Beasainekin bizi izan du profesionalismotik gertu dagoen futbola, baina Mondrako harrobiko jokalari horrek etxerako bidea hartu du, azken urtea egin eta agur esateko

M. Bikuña / X. Urtzelai ARRASATE

Mikel Aizpuruak (Arrasate, 28 urte) zazpi denboraldi egin ditu Beasainen futbolean jokatzen, eta 2022an, beste arrasatear baten aginduetara –Igor Gordobil–, talde bagoneroarekin Bigarren REF Mailara igo ziren. Orain, agur esateko ordua iritsi dela erabakita, harrobiko taldera itzuli da, Mondrara, urtebetez jokatzera.

Garbi duzu azken urtea izango dela?

[Barre] Bai, bai. Batzuetan, berdegunean nagoenean zalantzak sartzen zaizkit... Eta beste urtebete luzatzen badut? Baina ideia hori segituan uxatzen dut burutik; bestelako gauzak egin nahi ditut, bestelako proiektuak, ditut eta denboraz justu ibiltzen naiz. Futbolean bizi nahi nituen esperientziak bizi izan ditut jada, eta etapa honi amaiera emateko ordua iristen dabil.

Eta Mondrara bueltatu zara horretarako.

Bai, etxeko taldera, lagunengana. Hemen amaitu nahi dut nire futbol ibilbidea.

Zer geratzen da Argi Ibili Txikin hasi zen Mikel Aizpurua hartatik?

Umetako taldean hasi zitzaidan futbolerako ilusioa pizten, eta esango nuke ilusio horri oraindik eutsi egiten diodala. Bestela, aste barruko entrenamendu saioetara etortzea gogorra izango litzateke. Ilusiorik ez baduzu...

Aizpurua, Mondraren elastikoarekin, bergararren kontrako derbian. GOIENA

Eta gaztetxo hark irudikatzen zuen egin duzun futbol ibilbidea?

Ez dakit, ba... Egia da futbol jokalari mordoa daudela eta maila gorenera iristea gaur egun oso zaila dela, oso zaila. Gazte baten ilusioa beti izaten da Lehenengo Mailara iristea, baina kontziente izan naiz zein zen nire maila. Esaterako, ez nuen espero Bigarren REF Mailan jokatzea, eta lana eginda lortu genuen helburua. Ibilbide polita egin dugu.

Gazte mailara arte Mondran egon zinen, eta handik Eibarrerako bidea hartu zenuen.

Eibar gertu daukagun taldea da, eta urtero jasotzen genuen hara joateko deia. Realak hartzen ez dituen jokalari interesgarriak Eibarrek hartzen ditu, eta halaxe joan ginen. Halako talde batera joaten zarenean, zorroztasun maila igo egiten da, denbora gehiago eskaini behar zaio futbolari eta serioagoa da dena. Baina, aldi berean, polita da, eta halako esperientzietatik asko ikasten da.

Mondrara bueltatu, eta Ohorezko Erregional Mailara igo zenuten taldea.

Urte oso polita izan zen, eta berezia izan zen etxeko taldearekin halako igoera bat lortzea. Hurrengo denboraldia ere etxean egin nuen, eta orduan ere denboraldi txukuna egin genuen.

Baina, ordurako, Hirugarren Mailako taldeen deiak jasotzen ari zinen...

Dei bat jaso nuen, baina, hemengo lagun batek ordurako Beasaingo entrenatzailearekin berba eginda zeukan, eta hara joateko eskaintza egin zidaten.

Zer ikasi duzu Beasainen egin dituzun urteetan?

Errendimenduko futbolaz berba egiten badugu, dakidan ia gehiena han ikasi dut, eta futbolaz gozatzen ere ikasi dut. Jokatzera kanpora joaten zarenean gogoz joan behar duzu, egunero zerbait ikasteko asmoz, bestela ez du-eta merezi egunero autoa hartu eta bidaia egitea, gogorra izango litzateke.

Jende mordoa ezagutuko zenuen han...

Hori da futbolak eman didan beste gauza onetako bat, egin ditudan lagun guztiak. Senior mailara iristen zarenean badakizu futbolak iraungitze-epe bat daukala, baina lagunak hor geratzen dira. Gainera, Beasain da klub bat jokalarien joan-etorri handia izaten duena, urtero egoten dira fitxaketak... Eta jende asko ezagutu ahal izan dut han, bai.

Zure futbol ibilbidean bi igoera lortu dituzu...

Oso ezberdinak izan dira biak, baina bereziak izan dira niretako. Lehenengoa Mondrarekin lortu nuena, Ohorezko Erregional Mailara. Polita da, etxeko taldea beheko kategoriatik igotzen lagundu duzulako, herriko jendea harmailetan, betiko lagunekin berdegunean.... Eta bestea Beasainekin lortutakoa izan zen, futbolari dagokionez zailagoa, gehiago sufritutakoa... Biak ezberdinak, eta biak bereziak.

Futbol erdi-profesionala ezagutu ahal izan duzu Beasainen; gustatu zaizu bertan ikusi duzuna?

Bai eta ez. Zuk esan bezala, Bigarren REF Maila kategoria erdi-profesionala da; hau da, gure kontrario batzuk talde sendoak ziren, eta aurrekontu polita zuten; jokalari batzuk futboletik bizi ziren. Baina hori ez zen Beasainen kasua; guretako futbola ez zen ogibidea, eta lanarekin bateratu behar genituen entrenamendu-saioak, bidaiak... Baimenak eskatzen ibili behar genuen lanean lehenago irteteko... Esan moduan, Beasain talde umila da, eta batzuetan ez genuen hotelean egonaldirik egiteko dirurik, edo autobusean tuperretan eroandakoa jaten genuen... Tira, sasoi polita izan zen eta gauza batzuk ederrak izan ziren, eta beste gauza batzuk beste modu batera gusturago egingo nituzkeen. Talde hartako gauzarik onena zen aldagelan geneukan giroa.

Etor gaitezen Mondrara: trabatu samar dabil taldea.

Halaxe da, bai. Kategoria honetan oso parean daude indarrak eta azken partiduetan gola sartu ezinda gabiltza. Horrek eraman gaitu atzeko postuetara, baina egoerari buelta emateko konfiantzarekin ikusten dut taldea.

"FUTBOLAK IRAUNGITZE-DATA BAT DU; BERTAN EGINDAKO LAGUNAK BETIRAKO GERATZEN DIRA"

Agirretxe, Gipuzkoako kros txapeldun; Donnayk, brontzea

Asteburuan Arraten jokatutako lasterketan Arrasate Atletiko Taldeak ordezkaritza zabala izan zuen

X.U. ARRASATE

Joan den domekan Arrateko belardietan jokatutako Gipuzkoako kros txapelketan zenbait arrasatear nabarmendu ziren. Hasteko, eskolartekoen kategorian, infantil mailan Nile Agirretxek –argazkian zutik ezkerretik seigarrena– urrea jantzi zuen. Bestalde, maila absolutuan Endika Donnay aurrealdekoen borrokan ibili zen, eta podiumera igo zen, hirugarren sailkatuta (22.09). Bigarren sailkatu zen Ruben Ruzafa bi segundo azkarragoa izan zen, eta lehenengo Julen Teran (21.57) sailkatu zen. Lasterketa, gainera, Euskadiko kros ligarako puntuagarria izan zen.

Ekain Larrea eta Ander Sagarzazu korrikalariek ez zuten parte hartu, eta Julen Teranek ondo baliatu zuen egoera hori lasterketa irabazteko. Bigarren postua lortzeko lehian, berriz, Ruzafak eta Donnayk borroka estua izan zuten. Nesketan Ainhoa Sanz gailendu zen.

Gipuzkoako txapelketan egon ziren ordezkari gazteak. ARRASATE ATLETIKO TALDEA

Udaleko, Hauspoz elkarteko eta Aldundiko ordezkariak, asteon. IMANOL BELOKI

Puntako eta tokiko akordeoi-joleen ostatua

Hauspoz elkarteak, 50 urte bete berritan, urteroko hitzordua dakar esku artean: Arrasateko Akordeoi Jaialdia. Hilaren 6tik 8ra, Amaia antzokian, Kulturateko aretoan eta Juan Arzamendiko auditoriumean hango eta hemengo musikariak entzun ahalko dira

Hasier Larrea Herrero ARRASATE

Aurtengoarekin 31. aldia izango da Arrasate Hiria Nazioarteko Lehiaketa egingo dutena. Akordeoi jaialdiaren mokadu handiena da hori, baina ez bakarra. Ohi bezala, 13 eta 18 urte arteko soinu-joleek Gipuzkoako lehiaketa izango dute jokoan, eta, berrikuntza moduan, lehen aldiz jokatuko dute Akordeoi eta Ganbara Musikako Nazioarteko Lehiaketa. Bestetik, lehiaz kanpo, modu ludikoan arituko dira 6 urtetik gorako hainbat musikari, Gipuzkoa Jaialdia izenekoan.

Herrian ondo errotuta dagoen ekitaldia da Hauspozek antolatzen duena, Udalaren eta Aldundiaren babesarekin. Arrasateko alkate Maider Morrasek nabarmendu du aurten berrikuntzak daudela: "Lehiaketa herrigintzara ireki dugu, eta oso pozik gaude. Bi ikastetxetako gastronomia-formakuntzetako ikasleek otorduak prestatuko dizkiete lehiakideei, eta elkarte gastronomikoetako mahaien bueltan dastatuko dituzte".

Egitarauari dagokionez, nazioarteko hamabi partaideak Amaia antzokian ikusi ahalko dira. Ostiral goizean hasiko dira neurria ematen, eta arratsaldean jarraituko dute kanporaketek. Domeka goizean jokatuko dute, ostera, azken fasea.

Gipuzkoa lehiaketaren zatirik handiena Kulturaten izango da. Seniorrek ostiral arratsaldean hartuko dute parte lehenengo fasean eta domeka goizean azkenengoan. Gazte mailakoek hartuko diete erreleboa arratsaldean. Haur mailako lehia, ostera, Juan Arzamendin jarraitu ahal izango da, hilaren 8an baita ere, goizaldean.

HAUSPOZ-EK KALERA ZABALDU DU MUSIKAZ BETETAKO EGITARAUA, ELKARTEAREN MENDE ERDIA OSPATZEKO

Zapatu osoa eskainiko diote, bestalde, Gipuzkoa Jaialdiari eta Akordeoi eta Ganbara Musikako Nazioarteko Lehiaketari. Hala, partaideak hiru aretoetako oholtzetara igoko dira.

Itxiera ekitaldia, sari-banaketa guztiekin, Amaia antzokian egingo dute, domekan, 20:00etan.

Aurten, emanaldi bereziekin

Jarduera gehiago ere antolatu dituzte, Hauspoz elkartearen mende erdia ospatzeko. Esaterako, gaur bertan, 18:30ean, Abaroa jubilatuen etxean, iazko Gipuzkoa sariketako irabazleak joko du, Ibon Asuak. Bihar, 12:00etan, Eibarko Musika Eskolako akordeoi ikasleak kalejiran irtengo dira, eta 20:00etan kontzertua emango du, Kulturaten, Jessica Reisek. Zapatu eguerdian kalejiran irtengo direnak Arrasateko txistulariak izango dira. Domekan, azkenik, Iñaki Dieguez Akustik Triok, Txikitxu Arrostaitzek eta Oinkari Dantza taldeak kontzertua emango dute, plazan, 13:00etan.

'Safu'-ren errebeldiak hasiko du abenduko Kooltur, hilaren 12an

Sortzaile iruindarra, Flash eta The Dealers igoko dira urteko azken hiru ostegunetan gaztetxeko oholtzara

H.L.H. ARRASATE

Kooltur Ekintzak gorenean bukatu gura du 2024a, hiru proiektu interesgarri ekarrita. Musika urbanoan gotortzen da lehenengo gonbidatua: Sandra Fuentes, edo *Safu*. Iruñeko Arrotxapea auzoa du bizileku eta Kubako odol beroa dario zainetatik. Lanbidez dantzaria, azkenaldian konpositore eta musikari gisa urratu du ibilbide artistikoa, kaleko erritmoei itsatsita une oro. Rapa eta trapa askatasuna aldarrikatzeko darabil oholtza gainean, eta araurik gabeko ikuskizunak plazaratzen ditu. Lotsagabekeria eta freskotasuna daude *Safu*-ren DNAn, baita umorea eta gordintasuna ere. Hilaren 12an, 22:00etan, emango du haren gaitasun guztien berri.

Azeleragailua sakatzen

Punk dosi erradikal, kritiko, basati eta umilak banatuko ditu Flashek, Getaria eta Zumaiako taldeak, abenduaren 19an.

Abiadura handiko kontzertua izango da hilaren 26koa ere, Gasteizko The Dealersen eskutik. Sixtie eszenako talde erreferenteak 2005a ezkero darama rhythm and bluesaren bueltan, egurrean.

Sandra Fuente, kontzertuan, Iruñeko Zentral aretoan, iaz. JAVIER ESCORZO

'Itsasoa bete urre' liburua aurkeztuko du Dani Martirenak

Itsasoa bete urre kaleratu dute Dani Martirena idazleak eta Ana Ibañez margolariak, Txalaparta argitaletxearen eskutik; irudia nagusi duen eta hitz gutxi dituen lana, haurrei eta gazteei zuzendutakoa, bereziki. Abenduaren 11n, 18:00etan, emango ditu Martirenak liburuaren xehetasunak, ipuin kontaketa eta guzti, Kulturateko Jokin Zaitegi gelan. Bertaratzeko izena eman beharko da aurrez, *arrasate.eus* atarian.

"Joko bat proposatzen dugu. Ea nik ikusten dudana ikusten duzun", azaldu du Martirenak. Ibañezen margoen abstrakzioak laguntzen du, funtsean, migrazioari buruzko istorio errealista eta gordina azaltzeko.

Opera 2001 konpainia ikusteko sarrerak salgai daude

Operako eta zarzuelako pieza ezagunak oholtzaratuko dituzte Opera 2001 konpainiako kideek abenduaren 18an, 20:15ean, Amaia antzokian, Ozenki elkarteak antolatuta. Hala, Yeonjoo Park soprano korearra ariko da oholtzan, Parman (Italia) 100 Anni Puccini saria jaso berritan. Aldamenean izango ditu, besteak beste, David Baños tenorra, Slhomo Rodriguez musika-zuzendaria, Georgiy Sokolov biolin-jolea eta Coro Hernandez txelo-jotzailea.

Emanaldirako sarrerak salgai daude, 25 eurotan, udal webgunean, *ozenkielkartea@hotmail.es* helbidera idatzita eta Altuna lurrindegian.

Gaur egun eskolako aterpeak daukan itxura; grafitiak edo pintaketak daude paretetan eta lurrean. AMAIA TXINTXURRETA

Eskolako aterpea txukuntzeko deialdia

Batzorde zabal bat osatu nahi du Aramaixo Herri Eskolak aterpean zer egin hausnartzeko, eta dei egin die ikas komunitateari eta herritarrei gaur 15:00etan eskolako liburutegian egingo duten lehen bilerara joateko. Txukun jartzea da helburua

Amaia Txintxurreta Guridi ARAMAIO

Azken urteetan eskolako aterpea ez dagoela "batere txukun" argudiatuta, eta denen gustura jartzeko helburuarekin, batzorde zabal bat egiteko asmoa du Aramaixo Herri Eskolak. Herriaren ideiak eskolarentzat "garrantzitsuak" direla esanez, ikas komunitateko kide guztiak eta herritarrak gonbidatu dituzte gaur, eguena, 15:00etan eskolako liburutegian egingo duten lehen bilerara joan daitezen.

Grafitiekin eta pintaketekin

Auzolanean margotu zuten duela urte dezente eskolako patioa, baina azken urteetan oso zikin dagoela adierazi du Aramaixo Herri Eskolako ikasketa buru Leire Aperribaik: "Duela urte dezente margotutakoaren gainean etengabe grafitiak egiten dira, eta oso zikin dago garai hartan margotu zena. Gainera, grafitiak eta pintaketak bata bestearen gainean dabiltza egiten, eta, gaur egun, dena irudiz bete-beteta dago. Autore bakoitzak egindako lanak ere ez dira errespetatzen, bata bestearen gainean eginda daudelako asko, eta ikusten dugu ordena eta txukuntasuna behar dituela aterpeak". Paretetan ez ezik, lurrean ere badaude askotariko grafitiak eta pintaketak.

Herri guztiari zabalik dagoena

Aperribaik gaineratu du eskolako orduetan eskolako kideek erabiltzen dutela, baina eskola orduez kanpo eta asteburuetan herri osoarendako egoten dela zabalik, eta, herriko espazio bat denez, herritar guztiei egin die eratu nahi den batzordean parte hartzeko gonbidapena. Gaur, eguena, egingo dute lehen bilera: "Bertan ikusiko dugu zein jende dagoen interesatuta, eta, horren arabera, bilerak noiz izango diren zehaztuko dugu –eskola orduetan edo eskola orduetatik kanpo–. Plangintza bat egin beharko dugu, interesen arabera, eta ikusiko dugu zein ilusio eta interes dagoen gai horrekiko eta zein indar daukagun ikasturte honetan horri erantzuteko", adierazi du. Ez dute baztertzen nola margotu erabakitzeko lehiaketaren batedo martxan jartzea.

GRAFITIAK ETA PINTAKETAK BATA BESTEAREN GAINEAN MARGOTUTA AGERI DIRA AZKENALDIAN

Eskolan lanketa

Grafitiak eta bestelako pintaketak herriko hainbat txokotan azaldu dira azkenaldian: eskola inguruan, frontoian, Santa Anan... Eta iaz ikasleekin egin zuten lanketa bat horren inguruan; zer den grafitia, zein kultura duen, artelan bat izanik nola errespetatu behar den beste autore batek egindako grafitia… Eskolan lanketarekin jarraituko dutela argi dute.

Hamasei urte igaro eta gero, etxebizitzak eraiki ahalko dira

Lur-jabeak itxaroten egon diren berria onartu ahal izan dute, azkenean, azaroan egindako ohiko osoko bilkuran

A.T.G. ARAMAIO

Joan den eguenean egin zuten azaroko ohiko osoko bilkura, eta bertan, besteak beste, aho batez onartu zuten behin-behineko landa-guneeen bigarren plan berezia. Horrek zuzenean eragingo du, hamasei urte igaro eta gero, Aramaioko landa-gune batzuetan eta partzela zehatz batzuetan, etxebizitzak eraiki ahal izatea.

Hainbat urtetako lana

Hirigintza-plangintza garatzeko arau subsidiarioen kontua aspalditik dator, eta, hainbat lege aldaketa tarteko eta Udalak egindako hainbat planteamendu Eusko Jaurlaritzak atzera bota ostean, azkenean, 16 urteko ibilbide eta negoziazio ugariren ondorioz, Arabako Foru Aldundiak eta Aramaioko Udalak lortu dute Eusko Jaurlaritzarekin orain udalean onartu den plana aurrera eraman ahal izatea.

Dokumentuetan Ibarra eta Oleta *urbano* izenez bereizten dira, eta gainontzeko auzoak, berriz, *landa-nukleo* bezala izendatzen dira.

Landa-nukleoei dagokienez, hirutan ezin dira etxebizitza gehiago egin; momentuz, behintzat. Barajuenen, Zabolaren eta Untzillaren kasua da hori, bakoitzean 25 etxebizitza baino gehiago daudelako.

Eta beste landa-nukleoetako partzela zehatz batzuetan dagoeneko etxebizitzak eraiki ahal izango dira, kontua 16 urtez geldi egon ostean: "Lur-jabe asko itxaroten zeuden kontua da, eta, azkenean, etxebizitzak eraiki ahalko dira partzela zehatz batzuetan. Dena den, ez da nahikoa. Guk nahi duguna da jendeak baserriak konpondu ahal izatea, berriak egin ahal izatea, arkupe edo portxeak egin ahal izatea… Izan ere, ezin badira egin, jendea ez dator baserrietara", adierazi du Asier Agirre alkateak.

Gaia udalbatzan onartu ostean, Foru Aldundira eta Eusko Jaurlaritzara bideratuko da berriz, eta, zigilua jaso ostean, 16 urte igaro eta gero, partzela batzuetan –jabeek badakizkite zeintzuk diren– hasi ahalko dira etxeak egiten. Lizentziak ematen hasten direnean, lur-jabeek hiru urteko epea izango dute, eta, horiek pasa ostean, berriro ezin izango da etxebizitzarik eraiki landa-nukleo horietan.

Izen-ematea zabalik abenduko KZguneko bi ikastaroetarako

Bi ikastaro egongo dira abenduan KZgunean, eta, horietan parte hartzeko, izena eman beharko da abenduaren 11ra bitartean, *itxasokultura@gorbeialdea.eus* helbidera idatzita.

Hauek dira abenduan eskainiko diren bi ikastaroak: *Adimen artifiziala, Chat GPT eta haren alternatibak* ikastaroa izango da abenduaren 16an, 17an eta 18an, sei orduz eskainiko dutena; eta *Zibersegurtasuna eta pribatutasuna sarean* izango da beste ikastaroa, eta hori emango dute abenduaren 19an eta 20an, lau orduz.

Ikastaro biak izango dira arratsaldez: 16:00etatik 18:00etara bitartean.

Intentsitate handiko indar entrenamendu tailerra izango da

Iturzuri emakume elkarteak antolatuta eta Aramaioko Udalaren laguntzarekin, intentsitate handiko indar entrenamendu tailerra egingo dute Aramaioko frontoiko gimnasioan datorren zapatuan, abenduaren 14an, 10:30etik 12:30era bitartean.

Aurretik izena ematea derrigorrezkoa izango da, eta, horretarako, bi modu jarri dituzte: 635 73 84 75 telefono-zenbakiaren bitartez edo *iturzuri@gmail.com* helbidera idatzita. Prezioa 40 euro da.

Guztira, hamalau pertsonarendako lekua egongo da indar entrenamendu tailerrean, eta lehentasuna izango dute elkarteko kide direnek.

DEBAGOIENEKO OSASUN ZERBITZUAK

DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA
Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA
Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER
Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARANDO IRIARTE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Iturriotz 7 – 1 / 943 79 69 45

ARRASATE HORTZ KLINIKA
Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA
Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

CAVIGLIA SILVANA
Bergara / Simon Arrieta 3-2B / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA
Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO
Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE
Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

VITALDENT
Arrasate / Otalora lizentziaduna kalea 1 / 943 06 03 22

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA
Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO
Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA
Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE
Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA
Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA
Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN-DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA
Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA
Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA
Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN
Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA (AITA MENNI OSPITALEA)
Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Iragarkia jarri nahi baduzu, deitu **943 25 05 05** zenbakira.

Kale garbitzaileak Herriko Plazan lurzorua garbitzen, ekarri duten azken aparailuarekin. ARETXABALETAKO UDALA

Kaleko garbitasuna hobetze aldera, aldaketak

Zazpi lagunek ematen dute zerbitzua, gaur-gaurkoz, eta aurtengo gastua ia 452.000 eurokoa izan da; garbitasunera bideratutako baliabideak eraginkorrak izan daitezen gura du Udalak, eta, "hobetzeko", hainbat aldaketa egin ditu azken hilabeteetan

Mirari Altube ARETXABALETA

Udalak jakinarazi du kaleko garbitasuna hobetzea helburu duten hainbat neurri hartu dituztela azken hilabeteetan. Eta neurri gehiago ere etorriko direla gaineratu dute. "Ez da aparteko kexarik jaso. Sasoi honetan, adibidez, hostoak pilatzen direlako izan ohi dira gehienak", adierazi du Ion Albizu zinegotziak.

Aparailu berezia

Garbitasuna hobetzeko neurrien artean honako hauek daude: kirolguneetan garbiketa maiztasuna handitzea, astean hiru egunetik sei egunera pasatuta; paperontzi gehiago jartzea herriko gune estrategikoetan –kirolguneak, futbol-zelai inguruak, parkeak eta Azbeko pasealeku ingurua–; eta toki batzuetan lurzorua garbitzeko programa berezi bat jarriko da martxan, Bedarretako San Migel auzunean eta Herriko Plazako arkupeetan hasita. "Presio bidezko garbiketa egin beharrean, beste garbiketa mota bat egingo da, lurrean urteetan itsatsita dagoen zikinkeria kentzeko. Aparailu bat erosi du enpresak eta horrekin hainbat proba egingo ditugu: espaloietan, arkupeetan…", azaldu du Albizuk.

Zazpi laguneko taldea

Serbitzu SL enpresak du kale-garbiketaren ardura eta zazpi laguneko taldeak ematen du zerbitzua, "hainbat baliabiderekin". Orain arte, 343.339 euroko gastua izan du, eta 2024an 451.984 eurora igo da. "Eta etorkizunean kopuru hori handitzen joango da, igotzen ari diren hainbat gastu direla medio. Beraz, denon artean egin behar zaio aurre erronka horri", dio Albizuk. Udalaren helburua da kaleak "espazio txukun eta erosoak" izatea: "Udalak hartutako neurriekin eta norberaren konpromisoarekin, herrian espazio garbi eta atseginak izatea lortuko da".

LURZORUA PRESIO BIDEZ GARBITU BEHARREAN, BESTE APARAILU BAT ERABILTZEN HASI DIRA

Kimatze lanetan hastear dira

Lorezaintzari dagokionez, egunotan hasiko dituztela kimatze-lanak aurreratu du Albizuk. Iaz legez, etxebizitzetatik gertuen dauden zuhaitzen adarrak moztuko dituzte; gainerakoak, ez: "Zentzuzko kimaketak egitea da kontua. Horregatik, trabarik egiten ez duten zuhaitzak ez dira ukituko; Santutxu inguruko platanondoak eta Belorrietako ibai albokoak, esaterako".

Aste honen bukaeran ez bada datorrenaren hasieran ekingo diete lanei Makai enpresako lorezainek: "Jendearen kexa batzuk entzun ditugu berandu gabiltzala esanez, baina hostoak bota ostean moztea da egokiena".

"Gaztaina kontuak" partekatzeko elkartu dira Areantzan

Iaz artoak zuritzen jardundakoan jasotakoak ikusi zituzten, baita gaztaina erreak jan eta txokolatea hartu ere

M.A. ARETXABALETA

Areantza auzoko Etxebarri baserriko Lastakaran elkartu zen azaroaren 26an ia 40 laguneko taldetxo bat. Julen Abasolok gonbidatu zituen, eta, Areantzakoez, gain beste auzo batzuetako bizilagunak ere batu ziren deialdira; Arkarazoko, Mendiolako eta Aozaratzako hainbat, esaterako. "Gaztaina kontuak" partekatzea zen helburua, eta kontu-kontari jardun zuten, sasoi bateko bizipenak eta istorioak gogora ekarriz. Egonaldia goxatu zuten, gaztaina erreak janda eta txokolate beroa hartuta.

Arto-zuriketa, bideoan

Ez da egiten duten lehen bilkura izan. Iazko azaroan ere elkartu ziren Etxebarriko Lastakaran; orduan, ia 50 lagunek arto-zuriketan jardun zuten. Ekimen hura ere Abasoloren burutazioa izan zen, eta kontakizun asko ekarri zituzten gogora "transmisioari eutsi nahian". Orduko hura irudietan jaso zuten, gainera, eta bideo hori erakutsi zuten gaztaina kontuak partekatzeko elkartutakoan. Ikus-entzunezko hori dagoeneko Youtuben jarri dute ikusgai, *Kanpai-joleak* kanalean.

Etxebarri baserriko Lastakaran elkartutakoak. JULEN ABASOLO

NIRE USTEZ

MALENA GONZALEZ ALTUNA

Asexualitatea

LGTBI+ kolektiboan aniztasun handia dago; guztiak disidentzia sexu-generikoaren parte dira, baina bakoitzaren errealitatea oso ezberdina da. LGTB siglak gehienok ezagutuko dituzue, baina zer gertatzen da gehi horren barruan dauden gainontzeko errealitateekin? Ezagutzen al ditugu? Kolektibo honetako parte diren pertsonen gehiengoa alosexuala da; hau da, sexu erakarpena sentitzen dute gainontzeko pertsonekiko. Pertsona asexualek, aldiz, ez dute erakarpen hori sentitzen.

Sexu orientazio bat gehiago den arren, etengabe baliogabetzen eta zalantzan jartzen den errealitate bat da; gainera, mito ugari daude horri lotuta: osasun-arazoren bat dutela, ez dutela egokia den pertsona aurkitu eta horregatik ez dutela erakarpenik sentitzen, abstinentziaren berdina dela, etapa bat dela, pertsona hotzak direla… Zapalduen artean ere badaude gainontzekoak baino zapalduagoak dauden pertsonak, eta, LGTBI+ kolektiboak emandako aurrerapausoak asko diren arren, asexualitateak oraindik ez ditu hainbeste eman, guztiz ezabatua izan delako. Heldu da errealitate horren inguruan hitz egiteko ordua.

Gabonei "beldur barik" ekiteko egitaraua, gertu

Udaleko Kultura Sailak eta Aretxarte elkarteak ekitaldi mordoa iragarri dituzte datozen asteetarako; aurten, aldaketa batzuk ere izango dira: Olentzero eta Mari Domingi, esaterako, menditik jaitsiko dira, baina goiz partean ez dira Herriko Plazan izango

Mirari Altube ARETXABALETA

Gabonetako kanpainari hasiera eman diote Aretxarte elkarteko merkatariek, urteroko iragarkiarekin. Kepa Errasti eta AZ Visual Media izan dituzte bidelagun, beste behin, eta "beldur barik herrian kontsumitzera" gonbidatu dituzte aretxabaletarrak.

Aretxarteko eta Udaleko ordezkariak, Gabonetarako antolatutakoen berri ematen. M.A.

Erakusleiho lehiaketa

Gaur bertan piztuko dituzte argiak kaleetan, Gabonei ekiteko. Aldaketak egin dituzte aurten, eta apaingarriak beste era batera zintzilikatu dituzte. "Ea herritarren gustuko diren", adierazi dute Udaletik.

Argiekin batera erakusleiho lehiaketa jarriko da abian astelehenean, eta hilaren 20ra bitartean apainduta izan beharko dituzte saltokiak parte hartu gura dutenek, nahiz eta izenik eman beharrik ez dagoen. Erakusleiho onena aukeratzeko orduan kontuan hartuko dituzte, besteak beste, erakusleihoaren kalitatea, publizitate mezuaren imajinazioa, originaltasuna, eraginkortasuna eta argien erabilera. Lehen saria epaimahaiak erabakiko du eta bigarrena, herritarrek, boto bidez; abenduaren 9tik 16ra bitartean eman ahal izango da botoa, Arkupen jarritako kaxan edo webguneko galdetegia beteta. Irabazleen berri hilaren 23an emango dute.

Herriko ekoizleen, artisauen eta merkatarien azokak ere ez du hutsik egingo; abenduaren 14an eta 15ean jarriko dituzte postuak, Durana kalean, 11:00etatik 15:00etara bitartean.

Olentzero eta Mari Domingi

"Ekintzaz betetako Gabonak izango dira, askoren gustua asetzeko modukoak; gospela, bertso saioa urtarrilean, Iker Galartzaren eta Zuhaitz Gurrutxagaren antzezlana eta Ane Goitiaren bakarrizketa emanaldiak izango dira, besteak beste", azaldu du Ibai Zangitu Kultura zinegotziak. Sasoiko ohiko ekitaldietan, ostera, aldaketak iragarri ditu: "Gurasoen elkarteekin lanketa bat egiten hasi ginen, eta hortik etorri dira aldaketak. Olentzero eta Mari Domingi ez dira etorriko eguerdian; haien ordez, laguntzaileek jasoko dituzte gutunak. Iluntzean bai iritsiko dira, baina, kiroldegitik beharrean, mendi aldetik". Bizaruri, ostera, aurten ez da Aretxabaletatik pasatuko.

Aretxartekoen eskaintza

Merkatarien elkarteak, berriz, hainbat kontu antolatu ditu jai egunotarako. "Umorea lagun, herriko erosketak sustatu gura ditugu", adierazi du Aitziber Gaunak, Aretxarteko presidenteak. Bezeroei, gainera, esker ona adierazteko, egutegia oparituko diete.

Aurten ez dute zigiluen eskaintzarik egingo, eta, horren ordez, herriko kaleak girotzea erabaki dute: "Batetik, kale ikuskizun bat egongo da, hankapaluek eta suak lagunduta; eta, bestetik, txu-txu trena izango da hilaren 23an".

Ekitaldietako batzuk

Abenduak 14 eta 15
11:00 Neguko Azoka.

Abenduak 19, eguena
19:00 Dantza: Dab konpainia: *Nun zira?*

Abenduak 20, egubakoitza
20:00 Antzezlana: *Almazenean.*

Abenduak 23, astelehena
Egunean zehar, txu-txu trena.

Abenduak 26, eguena
19:00 Kontzertua: Samaria Gospel Singers.

Abenduak 27, egubakoitza
20:00 Bakarrizketa: *Katana* (Ana Goitia).

Abenduak 29, domeka
19:00 Kontzertua: Aretxabaleta Abesbatza.

Abenduak 30, astelehena
Kale ikuskizuna: Polarix.

YAAKAR ELKARTEA

Banatu dute eskolako materiala

Kurtzebarri eskolako ikasleek bildutako diruarekin erositako eskola-materiala banatu zuten azaroaren 30ean Senegalgo Mbam udalerrian. Yaakar elkarteak bideratutako laguntza izan da eta Mbamgo alkateak banatu zien Lehen Hezkuntzako 150 ikasleri. Herriko biztanle gehienek hartu zuten parte ekitaldian jasotako laguntza eskertzeko.

Mendi Federazioaren aukerak aldatzeko epea zabalik dago

Murrukixo mendizale elkarteak jakinarazi du bazkidetza eta Mendi Federazio aukerak aldatzeko epea zabalik dagoela. Gainera, hemendik aurrera federatu txartelak digitalak izango direnez, helbide elektronikoa jakinarazteko eskatu dute.

Euskal Mendizale Federazioaren informazio guztia, lizentziaren estaldurak eta prezioa, besteak beste, *Efm.eus* webgunean daude. Aldaketak egiteko edo zalantzak argitzeko, Murrukixora jo behar da; horretarako, helbide elektroniko bidez jakinarazi –*murrukixo@outlook.com*– edo Mitarte kalean duen bulegora jo, martitzenetan (19:00-19:30). Azken eguna abenduaren 10a da.

Pilota eta bola txapelketak zapatuan, GuGeuk antolatuta

Eskupilota eta bola txapelketak deitu ditu abenduaren 7rako GuGeu Atxabalta taldeak. Iturrigorri pilotalekuan eta bolatokian jokatuko dituzte, 16:30ean hasita. Horiek bukatutakoan, Josu&Okina bikoteak kontzertu akustikoa egingo du.

Txapelketatan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago, Instagram kontura idatzita.

'Lo que quede' liburua aurkeztuko du Irantzu Varelak hilaren 11n

Irantzu Varela Urrestizala komunikatzaile feministaeta aktibista bizkaitarrak *Lo que quede* liburua aurkeztuko du. Jabetze Eskolak gonbidatu du eta abenduaren 11n izango da ekitaldia, Arkupen, 18:00etan. Liburuak salgai izango ditu ekitaldian bertan.

Era berean, Jabetze Eskolak antolatutako autodefentsa feminista ikastarorako izen-emate epea zabalik dago. Abenduaren 28an eta 29an izango da eta norberaren buruarekiko konfiantza landuko dute, eta erasoei aurre egiteko oinarrizko teknikak ikasi. Izena emateko *berdintasuna@aretxabaleta.eus* helbidera idatzi behar da.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

Ipuin-bilduma osatu dute, pasarteetatik abiatuta

Eskoriatzako Matxingorri Taldeak hamalau kontakizunen bilduma aurkeztu du asteon, Ibarraundi museoan. Testuekin eta ilustrazioekin osatuta, elkarlanean egindako lana da, eta Eskoriatzako eta Gatzagako hainbat kondaira, istorio eta pasadizo biltzen ditu

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA

Miren Diaz de Gereñu eskoriatzarrak abiatutako proiektua da *Eskoriatzako eta Gatzagako betiko ipuiñek* liburua, eta zenbait herritarrek elkarlanean egindako lana da. Ahozkotasuna errekuperatzeko, bertako kondaira eta istorioak mantentzeko, Eskoriatzako euskara gordeta geratzeko eta haurrei kontakizunak egiteko, bertako ipuinen kontakizun-sorta egin dute. Liburua aste honetan aurkeztu dute, Euskararen Egunean, hilaren 3an, Ibarraundi museoan, eta liburuaren kontakizuna Dorleta Kortazarrek egingo du hilaren 14an, 18:00etan, Ibarraundi museoan.

Eskoriatzako eta Gatzagako betiko ipuiñek liburuaren aurkezpena. MATXINGORRI TALDEA

Hamalau ipuinen bilduma

Hamalau ipuinek osatzen dute, guztira, *Eskoriatzako eta Gatzagako betiko ipuiñek* liburua: *Zuluen trabaute, Gaba gabekuendako, Atxorroxko kondairie, Gatzagarren promesie, Eulixek, Urkuluko zubixe, Mari, Irulie eta katu baltza, Ni neu naz, Txerrenen edadie, Lamiñaren potzue, Metal-ure, Leteko karegillie* eta *Olentzero*. Gainera, kontakizun bakoitza euskara batuan zein euskalkian dago idatzita. "Testuetan erabili dugun hizkuntza-aldaerari dagokionez, hautua egin dugu bertako hizkeran eta euskara batuan egiteko. Hasiera batean, euskalkian bakarrik argitaratzea zen asmoa, baina, proiektuak aurrera egin ahala, iruditu zitzaigun egokia zela batuan ere jasotzea, horrek ipuinak boz goran kontatzea erraztu zezakeelakoan. Horrekin ez dugu gure hasierako helburua ahazten; alegia, istorio horiek imajinatu eta kontatu ziren eran jasotzea. Hau da, ahozko hizkuntzatik hurrago. Lan horretarako, Badihardugu Deba Ibarreko Euskara Elkartearen irizpideak izan ditugu kontuan", dio Miren Diaz de Gereñu eskoriatzarrak.

'ESKORIATZAKO ETA GATZAGAKO BETIKO IPUIÑEK' IZENPEAN, LIBURUA ARGITARATU ETA AURKEZTU DUTE

Betiko istorioak mantentzeko

"Eguneroko pasarteak fantasiarekin elkartu, pertsonaia eta agertoki harrigarriak sortu, eta horien hazietatik jaiotzen dira ipuinak. Kontakizun horiek guganaino iritsi dira, batez ere, ez hain aspaldian, familiek, etxeko sutondoan, ipuinak sortu, kontatu eta transmititu zituztelako, artaburuak aletzen zituzten bitartean. Industrializazioak, ordea, horretarako behar zen patxada berarekin eraman zuen, eta etxe gehienetan komunikabideek hartu zuten ahozko transmisioaren lekua. Pena da, berandu iritsi garelako gure adinekoen kontakizunak ahoz jasotzeko, baina, zorionez, gure aurretik, antzeko kezkak zituztenak ere izan ziren, eta, haiei esker, liburu honetako ipuinak gure inguruan, gure herrietan eta gure etxeetan ere kontatu zirela dioten idatziak aurkitu ditugu; batez ere, Barandiaranen *Obras completas* lanean.

Prozesuaren urratsak

Ipuin-bilduma osatzeko bidea luzea izan dela dio Diaz de Gereñuk. Gaineratu du oinarriak hartuta bertsio luzeagoak egin dituztela. "Bakoitzak bere alea jarri du. Iñaki Agirianorekin eta Arantzazu Loidirekin hasita, Oxel Uribe-Etxebarria batu zen taldera, eta liburutegian bilerak egiten hasi ginen. Dorleta Kortazar agertu zen behin, azaldu genion zer ari ginen egiten, eta taldera batu zen. Ondoren, euskaraz ondo idazteko, Karmele Agirregabiriarengana joan ginen... Beharraren arabera taldera gehitzen joan da jendea".

Honako hauek hartu dute parte proiektuan: Miren Diaz de Gereñu, Dorleta Kortazar, Karmele Agirregabiria, Oxel Uribe-Etxebarria, Arantzazu Loidi, Iñaki Agiriano eta Ainhoa Segura arduratu dira testuez; ilustrazioez, berriz, Miriam Isasmendi, Sara Agiriano, Maialen Gallastegi eta Naiara Errasti; eta maketazioaz Naiara Errasti arduratu da.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

Egitasmora batu diren zenbait kide. AXTROKI MERKATARI ELKARTEA

Euskaraz barra-barra egiteko, ekimenarekin bat egin dute

Axtrokiko bederatzi establezimendu batu dira euskararen presentzia bermatzeko egitasmora

I.B. ESKORIATZA

Euskararen Egunaren baitan, Axtroki Merkatari Elkarteak eskoriatzarrei jakinarazi nahi die elkarteko zenbait establezimenduk *Euskaraz barra-barra* egitasmoarekin bat egin dutela.

e// marka Eusko Jaurlaritzak beste hainbat erakunde eta batzorderekin batera abiatutako egitasmoa da, Euskal Herriko establezimenduetan euskara erabiltzeko aukera bermatzea erronka duena. Guztira, bederatzi establezimenduk egin dute bat egitasmoarekin: Ixkur ile-apaindegia, Kiribil ile-apaindegia, Khalma ile-apaindegia, Altuna harategia, Azkoaga estankoa, Aloña fruta-denda, Pagalday harategia, Coviran eta Urrestilla taberna.

Euskaraz egiteko aukera

Establezimendu horietan bermatzen da nahi duten herritarrek euskaraz egin ahal izango dutela, bertan lan egiten duten guztiek euskaraz ulertzen dutelako. Gainera, horietan gaztelera hutsezko errotulu, ohar edo idatzirik ez da jarriko, euskararen presentzia bermatzeko eta hari lehentasuna emateko.

GORA ETA BEHERA

Basurdeek eragindako kalteak

Herritar batek Artabilla baserri pareko zelaian basurdeek eragindako kalteak salatu ditu: "Diputazioa eta federazioa ez daude ados, eta, iazko Debako istripuaren ostean, ez dakite gaia nola kudeatu. Ehiztariak geldi daude eta kalteak izugarriak izaten ari dira".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?
berriak@goiena.eus
edo 688 69 00 07.

Pilar kalekoa herrigunera sartzeko zazpi ateetako bat zen; gaur egun, bost mantentzen dira. IMANOL BELOKI

Bisitak egiten dituen Aitor Larrañaga Bateko Kopako iturrian. I.B

San Inaxio kaleko arkua edo herri sarrerako atea. I.B

Dorletako gazteluaren azpian, albo banatan dorlak sutan. I.B

Herriaren sorrera, historia eta bitxikeriak, bisita gidatu berezian

Erdi Aroko herri harresituarekin lotutako bisita bereziak egiten ditu Aitor Larrañagak, Leintz Gatzagako Udaleko teknikariak. Eskaripekoak izaten dira bisitak, eta herriaren sorrera eta historia azaltzeaz batera, dituen bitxikeria ugari azaltzen ditu horietan

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Leintz Gatzagako herriaren sorrera eta historia ezagutzeko bisita bereziak egiten ditu Aitor Larrañagak, Leintz Gatzagako teknikariak eta Gatz Museoko arduradunak. Udaletxe alboko haur-parkean hasten ditu bisitak, bertatik ikusten baita gatz-gunea. Han, udaletxeko eraikin aurrean eraikinari buruzko datuak emateko aprobetxatzen du, eta, ondoren, Bateko Kopako iturrian egiten du geldialdia; iturria aipatzeaz batera, herrian zeuden zazpi sarrera-irteerei buruzko datuak ematen ditu. Amaitzeko, herriak zuen harresiaren bueltan ematen dio amaiera bisitari, besteak beste.

Herriaren sorrera

Herria sortu zeneko arrazoia azaltzen du lehenbizi Larrañagak. Alfonso XI.a Gaztelako erregeak, iturburua eskuratzeko grinak bultzatuta, 1331n hiri-gutun batekin herria sortu zuela azaltzen du. "Dorletako Santutegia garai batean iturburua zaintzeko eta bertan zuten jarduera ekonomiko guztia kontrolatuta izateko dorre bat zen. *Dorleta* hitza *dorla* hitzetik dator; bandeja bat da dorla bat; gatz-ura suarekin lagunduta gatz bihurtzeko erabiltzen den".

Publikotasuna mantendu

Gatza ekoizteko egurra behar zen garai batean, eta Leintz Gatzagan pinu gutxi eta hosto-zabal ugari daude. Horren arrazoia, hau da, baso eta zuhaitz ugari izatearen arrazoia gatza dela nabarmentzen du bisitan Larrañagak: "Desamortizazio garaietan, lurrak saltzen hasi ziren Gipuzkoako eta Bizkaiko herri askok, ekonomia berrindartzeko. Leintz Gatzagak ez zituen saldu, eta mendiaren publikotasuna mantendu egin zuen, eta orain arte mantendu da. Gaur egun, Gatzagako lurren %85 publikoak dira; herri-lurrak dira. Egin den kudeaketa oso kontzientea da, eta, pinuak ere egon arren, paisaiaren mantentzea egiten dugu: 46 barietate daude; gehienbat, pagoak eta haritzak dira".

"UDALETXEA XVII. MENDEKOA DA, ETA 90EKO HAMARKADAN BERRITU EGIN ZUTEN"

Herria, mugitzen

Herriaren armarria udaletxeko eraikinean dago, eta bertan ageri da Dorletako gaztelua eta dorlak sutan, gatz-ura lurruntzen. Bisitako zati horretan, urtero-urtero herria milimetro bat mugitzen ari dela azaltzen du udaletxe aurreko geldialdian. "Geologia enpresa batek neurketak egiten ditu. 90eko hamarkadan lur-irristatze izugarria izan zen eta pitzadura esanguratsua agertu zen udaletxean. Udaletxea harriz harri desmuntatu eta diseinu berri batekin muntatu zuten. Harri guztiak banan-banan zenbatuta izan zituzten. XVII. mendeko eraikina da, 90eko hamarkadan berritu zena. Udaletxea kartzela ere izan zen, jendea artatzeko ostatua ere bai…".

Erdi Aroko herri harresitua

Herri barrura sartu eta Bateko Kopako iturriaren parean, Leintz Gatzaga herri harresitua zela adierazten du, eta herriak Erdi Aroko almendra forma mantentzen duela erakutsiz. "Harresia gurutzatzeko zazpi ate zeuden bere garaian, eta gaur egun bost mantentzen dira".

Historia aldarrikatzeko plaka herriko plazan

Martitzenean bistaratu zuten ikurrina eta Nafarroako bandera San Martin plazan jarri izanaren arrazoia azaltzen duen plaka bi ikurren azpian; 2022an onartu zuen Bergarako udalbatzak bi ikurrak jartzearen alde Nabarraldek egindako mozioa

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA

Ikurrina eta Nafarroako bandera Bergarako San Martin plazan egotearen zergatia azaltzen duen azalpen-plaka jarri dute, bergararrek eta herria bisitatzen dutenek horren zergatia zein den jakin dezaten.

Martitzenean egin zuten bistaratze ekitaldi instituzionala, Nafarroako Foru Gobernuko Frantzisko Xabierkoaren Egunean eta Euskararen Egunean. Bergarako Udaleko eta Nabarralde Fundazioko ordezkariak izan ziren han, eta bi aldeek adierazi zuten 2022an Amaiurko setioaren bosgarren mendeurrenaren bueltan onartu zuela Bergarako udalbatzak bi ikurrak jartzearen aldeko Nabarraldek proposatutako mozioa, eta aste honetan jarri dute plaka.

Rafa Santxez Muxika Nabarraldeko kidea da, eta adierazi zuen duela bi urte Bergarako Udalean mozioa jartzeaz gain, Oñatiko eta Antzuolako udaletan ere gauza bera egin zutela: "Eskatu genuen ikur biak elkarrekin jartzeko garai hartan, gure independentzia galeraren 500. urteurrena gogoratzeko".

Azalpen-plaka. I.A.A.

Bergararen sorreraz

Bergarako Udalaren izenean Gorka Artola alkateak hartu zuen hitza, eta adierazi zuen Euskal Herriko independentziaren alde borroka egin zutenen memoria omentzeko jarri dela plaka. Gogoan izan zuen Bergararen sorrerako garaia: "Bergarako lurrak eta bergararrak nafarrak ziren Bergara sortu zen sasoian, nahiz eta, ondoren, 1268an Gaztelako Erresumaren baitan jaso herri-ituna. Azkenean, herri bat gara, eta, historian zehar gu Gipuzkoa bihurtu garen moduan, beste modu batean garatu balira, agian, nafarrak izango ginatekeen; eta gaur egun nafarrak diren ekialdeko euskaldunek beste izaera bat izango lukete".

Artolak historian sakondu zuen; adierazi zuen "Pirinio hegoaldeko baskoiek 824. urtean Eneko Aritzaren gidaritzapean Iruñeko Erresuma" sortu zutela. Azaldu zuen Nafarroako erresumak, euskal herritar guztien batasunaren alde, mendebaldeko lurrak berreskuratzeko ahaleginak egin zituela. Eta gaineratu zuen ez diotela inoiz ere euskal nafarren batasunari uko egin.

Santxezen ustez, kontakizuna berreskuratzeko beste urrats bat izan zen martitzeneko ekitaldia: "Gure kontakizuna galduta egon da. Beti eduki ditugu kontaketa espainola eta frantsesa. Orduan, Nabarralderendako, halako gauzak beste urrats bat dira gure kontakizuna berreskuratzeko. Azken finean, guk, euskal nafarrok, ere autoukazioa eta autoestimu eskasa izan dezakegu, besteak beste, gure kontakizuna ez dugulako ezagutzen".

Azalpen-plakan jasotakoa

Testuan lau hizkuntzatan irakur daiteke XI. mendekoak direla Bergara aipatzen den lehen lerro idatziak, orduko hartan Bergara inguruak Iruñeko Erresumaren baitan zeudela eta Nafarroako euskal erresumaren eskualde bat izan zela, 1200. urtean Gaztelak lurralde haiek indarrez inbaditu zuen arte. Plaka martitzenean bistaratu zuten arren, Amaiurko setioaren bosgarren mendeurreneko datan dago sinatuta: 2022ko uztailaren 19an.

Bergarako Udaleko eta Nabarraldeko ordezkariak, ekitaldian izan ziren herritarrekin. IDOIA ARANBARRI ARZUAGA

Eider Usobiaga, Udaleko Euskara zinegotzia, *Harixa* egitasmoaren batzarrean. B.U.

Herriko enpresetan euskara areagotzea, 'Harixa'-ren helburua

2024ko batzar nagusian, aurten eginikoak errepasatu eta datorren urteko lan-ildoak zehaztu zituzten

I.A.A. BERGARA

Duela astebete egin zuten *Harixa* egitasmoaren urteko batzar nagusia, Miguel Altuna Lanbide Heziketako zentroan. 2024a errepasatu eta datorren urteko lan-ildo nagusiak zehaztu zituzten. Bergarako enpresetan euskararen erabilera areagotzen jarraitzea izango du helburu ekimenak. Horretarako, egitasmoan parte hartzen duten 38 entitateen arteko harremanen inguruko diagnostiko bat egin zuten; hala ere, batik bat, Bergarako Udalarekin eta Miguel Altuna zentroari zuzentzen dizkieten idatzietan darabilten hizkuntzak identifikatu eta haietaz jardun zuten. Are gehiago, enpresa barneetako harremanei dagokienez, Euskle metodologia abiatu dute konpainia batzuek, "euskaraz hitz egiteko gaitasuna duten pertsonen ohituretan eragiteko", Bergarako Udalaren hitzetan.

Azaldu zutenez, iazko ondorioetako bat izan zen lanean euskara gehiago erabili zedin "beharrezkoa" dela hornitzaileak diren zerbitzu enpresak ere egitasmora batzea; bada, jakinarazi dutenez, datozen asteetan bat egingo dute konpainia batzuek.

Lau lan-ildo zehaztu dituzte

Datorren urtera begira, lau lan-ildo zehaztu eta landu zituzten: euskararen aktibaziorako sarea osatzea, langile berriei enpresarako harrera euskaratik egitea, adimen artifiziala eta hizkuntza teknologiak, eta enpresaren irudia eta euskara.

Azken lan-ildoari buruzko hitzaldi bat egin zuen Gorka Barruetabeñak, Sorland komunikazio enpresako kideak. Hark adierazi zuenez, "euskara enpresaren balioekin lotuta dago eta propositu eta baliodun enpresak errentagarriagoak dira".

OHARRAK

Bisita gidatuak zapatuan

Abenduaren 7an, 11:00etan, museoko bisita egingo dute; eta 12:30ean, hiru bisita gidatuetako bat egiteko aukera egongo da.

Bi lehiaketa Bolua auzoan

Gabonetako balkoi eta leiho lehiaketarako eta haurren apaingarrien lehiaketarako izen-ematea hilaren 13an amaituko da.

Keinu ikastarorako izen-ematea

2025eko urtarrilaren 8tik maiatzaren 7ra egingo dute Aransgik antolatutako zeinu hizkuntza ikastaroa, UNEDen. Eguaztenetan izango da, 18:00etatik 20:00etara. Matrikula: 5 euro. Izen-ematea: *bergara@aransgi.org*. Plazak mugatuak dira.

Biboteak moztu eta Umore Ona elkartean bazkaldu aurretik, talde-argazkia atera zuten, azaroaren 30ean, Iralan. IMANOL SORIANO

Bibote solidarioek harrera ona izan dute aurten ere

Movember Gara taldeak bederatzigarren urtez jarraian antolatu duen egitarauak erantzun ona jaso du; bereziki, Lola Dacosta sexologoaren hitzaldiak. 2025ean hamar urte beteko dituzte: "Ekitaldi gutxiago baina handiagoak egitea da hasierako asmoa"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Azaroa bereziki mugitua izaten da barrabiletako eta prostatako minbiziaren ikerketarako dirua batzea helburu nagusi duen Movember Gara taldearentzat. Aurten bederatzigarren aldia izan da, eta, taldeko kide Unai Azkarateren arabera, hilabete osoan antolatutako ekintzek harrera ona izan dute. "Aurtengo nobedade nagusia Bilboko Lola Dacosta sexologoaren *Sexualitatea prostatako minbizia sendatzean* izeneko hitzaldia izan da, Miguel Altuna Lanbide Heziketan egin zena. Iaz, suizidioa izan zen hitzaldiko gaia, eta, egia esan, aurtengo gaiak harrera hobea izan du; gainera, hitzaldia amaitu ostean gurekin etorri zen Dacosta, pintxo-potera, eta, orduan, giro lasaiagoan, azalpenak ematen jarraitu zuen. Jendea oso gustura geratu zen".

'The Great Bro' izendapena

Aurtengo beste berritasun bat izan da Venti pizzerian kontzertu bakarra egin beharrean bi kontzertu egin dituztela: azaroaren 22an, Maddi eta Irene aritu ziren –eta, ondoren, bertsolariak egon ziren–; eta azaroaren 29an, berriz, Elgoibarko Brillet rock taldea. "Venti pizzeriako arduradunekin harreman oso polita dugu; Movember Gara taldearekin oso ondo portatzen dira, musikariei eta teknikariei afaltzen ematen, besteak beste".

Egitaraua borobiltzeko, azaroaren 30ean, mendi buelta, bibote mozketa zein enkantea eta ondoren bazkaria egin zuten, Umore Ona elkartean. Azken ekitaldi horretan izen propio bat nabarmendu nahi izan du Azkaratek, Aritz Bikuña: "Urtero egiten diogu aipamen berezi bat taldeko kideren bati; *The Great Bro* izendatzen dugu. Iaz, Eñaut Uriarte bertsolariari eman genion diploma, eta aurten, Uriartek Aritz Bikuñari eman dio. Izan ere, Bikuñak txartelen salmentaren errekorra ondu du aurten, zortzi txartel-sorta salduta".

IKERKETARAKO BATU DUTEN DIRU KOPURUA ZENBATEKOA IZAN DEN DATORREN ASTEAN ESANGO DUTE

2025ean hamar urte

Barrabiletako eta prostatako minbiziaren ikerketarako zenbat diru batu duten galdetuta, Azkaratek dio oraindik ez dutela kopuru zehatza zenbatu: "Datorren astean emango dugu kopuru zehatzaren berri". Gainera, zozketako zenbaki irabazleak honako hauek izan dira: lehen saria, 1.208 –ordezkoa, 544–; bigarren saria, 1.199 –agertu da irabazlea–; eta hirugarren saria 883 –ordezkoa, 1.352–.

2025ean ekimenak hamar urte beteko dituela-eta, zerbait berezia egiteko asmoa dute: "Pentsatzen ari gara ekitaldi gutxiago baina handiagoak edo esanguratsuak egitea datorren urtean".

Euskaraldia abiatzeko saioa hilaren 10ean, Kike Amonarrizekin

2025eko maiatzaren 15etik 25era egingo den Euskaraldiaren laugarren edizioa abiatzeko, saioa antolatu dute abenduaren 10erako, udaletxean (19:00). "Saio horretan laugarren edizioaren ezaugarri eta berritasunak aurkeztuko ditugu, herriko aktibazioaren eta saretzearen ideia garatuko dugu eta iritziak elkar trukatu zein ekarpenak egiteko tartea hartuko dugu, giro atseginean. Aktibazioa izango denez Euskaraldiaren arrakastaren gakoetako bat, Kike Amonarriz izango dugu ondoan, kaleratu berri den euskara aktibatzaileen gidaliburuaz eta aktibazioaren garrantziaz hitz egiteko", adierazi dute Jardunekoek.

Napar Feriaren 16. edizioa bereziki oparo dator aurten

Abenduaren 21ean egingo dute Napar Feria, San Antonion, goizean zehar: Andoni Urzelai gogoratuko dute (10:45); txistularien eta erraldoien kalejira egongo da (11:00); hildako auzotarren aldeko meza egingo dute (11:00); Nafar Feria irekiko dute (11:15); patata eta txorizoekin egindako lehiaketa gastronomikoa egongo da (10:00etatik 12:00etara), eta ondoren plater bana emango zaie azokako erosketa-txartela erakusten duten guztiei; erraldoien gunea eta errekortadoreen eskolaren erakusketa egongo dira (12:00etatik 14:00etara); eta, azkenik, Jon, Jaione eta haien seme-alabek kontzertua emango dute, Canalejasko plazatxoan.

IMANOL SORIANO

Aitortza, odol gehien ematearren

Bergarako Odol Emaileen Elkarteak odol gehien eman duten herritarrak omendu zituen azaroaren 30ean, San Joxepeko Arin eguneko zentroan; diplomak eta opariak banatu zituzten. Hurrengo ateratzea abenduaren 11n egingo dute, Arin zentroan, 16:30ean hasita. Urtarriletik aurrera *www.gotatanta.eus* webgunean hartu ahal izango da odola ateratzeko hitzordua.

UGARTE
AROZTEGIA · ALTZARIAK
Proiektuak · Koltxoiak
Horma-armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak
ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630
AROZTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491
BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com
21 K KALITATEA

San Silvestre prestatu dute, nork bere erritmora

Abenduaren 31ko herri lasterketan ahalik eta emakumezko gehien izateko Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchezek gidatu dituen prestaketa saioak arrakastatsuak izan dira; urriaren 26ean egin zuten lehena, eta azkena abenduaren 15ean izango da

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

Hankaluze Trail taldeko Maria Sanchez korrikalariak gidatuta eta Udalaren laguntzarekin, herriko emakume talde bat antxintxika egiteko elkartzen hasi zen urriaren 26an. Egun hartan egin zuten lehen irteera, abenduaren 31ko San Silvestre Trail probarako prestaketa moduan, eta ordutik beste hiru irteera egin dituzte; azkena domekan egin zuten, abenduak 1, baina beste irteera bat ere egingo dute. "Hasiera batean, abenduaren 1ekoa izan zen behar zen azken prestaketa saioa, baina erabaki dugu abenduaren 15ean beste bat egitea. Izan ere, abenduaren 1ean Zarautzen lasterketa mistoa zegoen eta taldean parte hartzen dutenetako batzuk bertara joan ziren. Azaroko azken saioan 42 lagun elkartu ginen eta domeka honetan, 29; gainera, Aretxabaletatik ere etorri ziren korrikalari batzuk. Oso pozik gaude kopuruekin eta taldean sortu den giroarekin", dio Sanchezek.

Korrikalari talde bat, Aranerreka auzoko Itsasmendi baserrian, abenduaren 1ean. M.S.

Azken saioa, "berezia"

Sanchezek aurreratu duenez, abenduaren 15eko azken saioa "berezia" izango da: "Gorlara igoko gara, eta handik Irimora joatea da asmoa. Ez dugu erabat zehaztu, baina, seguruenik, kideetako batzuk 08:00etan elkartuko gara palmondoaren ondoan eta beste batzuek 09:30ean Gorlatik abiatuko dute irteera. Buelta osoa egin ostean, denok batera bazkalduko dugu".

Sanchezek azpimarratu duenez, ekimena abiatu zuten emakumeak trail mundura hurbiltzeko: "Gertatu ohi da emakumeok nahi dugula antxintxika hasi, baina lotsagatik, bideak ezagutzen ez ditugulako edo beste motibo batzuengatik ez garela animatzen. Ni gizonezkoz inguratuta hasi nintzen eta gogoan daukat hasieratik gustura sentitu nintzela, baina ulertzen dut emakume guztiei ez zaiela gauza bera gertatzen. Helburua hori da, lotsak alboratzea eta lasterketetan parte hartzeko ere herriko emakumeak ahalduntzea".

Pozik dago Sanchez, irteerekin hasi zirenetik taldea handitzen joan delako eta haietako batzuek abenduaren 31ko San Silvestre Trail proban parte hartuko dutelako: "Ea 2025ean ere taldeko kideek antxintxika jarraitzen duten; ederra litzateke".

350 korrikalari banaka, eta 50 bikote

Azaroaren 2an ireki zen San Silbestre Trail probarako izen-ematea eta banakako modalitateko 350 dortsalak ordubetean agortu ziren. Binakako dortsalak, berriz, bi egunetara agortu ziren gutxi gorabehera; 50 bikotek hartuko dute parte. Proba 12:00etan irtengo da San Martin plazatik eta 7,4 kilometro inguruko ibilbidea egin ostean Irala kalean amaituko da.



Bergarako bikote bat, Iralako helmugan, 2023ko San Silvestre Trail proban. GOIENA

NIRE USTEZ

JOANES PLAZAOLA

Eskubideak negozio

Etxebizitza, eskubidea beharrean, negozio borobila da gaur egun. Milaka etxe hutsik dauden arren, eraikuntza enpresek proiektu publiko berriak jasotzen dituzte. Etxebizitza sozialak ere negozioaren logikan harrapatuta daude, behar dutenentzat irtenbide eraginkorra izan beharrean.

Eskualdean bertan dugu adibide on bat: La Caixak alokairu sozialekin espekulatzen du, egoera txarrean dauden paperezko etxebizitzak eskaini eta bertatik etekina ateratzen du, alokairu kontratuetan legez kanpoko klausulak ezarriz eta bizilagunen eskaerei ezikusiarena eginez.

Egoera honen aurrean, eskualdean eta beste hainbat lekutan, bizilagunak eta Etxebizitza Sindikatu Sozialista antolatzen hasi gara, La Caixaren abusuen aurka borrokatzeko. Antolakuntzaren bidez soilik lortuko dugu egoera aldatzea eta etxebizitza eskubide unibertsal bihurtzea. Horregatik, abenduaren 14an Bilbon egingo dugun manifestaziora deitzen dugu, etxebizitzaren negozioari ezetz esan eta guztiontzat etxebizitza eskubidea bermatu dadila aldarrikatzeko. Etxebizitza eskubidea guztiontzat!

Txapelketa eta zozketa bereziak Gabonetarako, BKEren eskutik

Urteroko zozketa erraldoiarekin batera, alebin eta gazte mailetako txapelketa bana antolatu ditu futbol sailak

J.B.L. BERGARA

Gabonetarako antolatu dituzten ekintzen berri eman du BKEko futbol sailak. Kirol hitzorduei dagokienez, abenduaren 28an alebin txapelketa izango dute Agorrosinen (10:00) eta gazte mailako Alfredo Najera Memoriala urtarrilaren 4an izango da Agorrosinen (17:00); gazte mailako Bergara, Real Sociedad eta Osasuna arituko dira nor baino nor gehiago. Bestalde, Gabonetako zozketa berezirako txartelak, klubeko kideek saltzeaz gain, Depor, Irrintzi, Arkupe, Labegaraieta eta Agorrosingo tabernan zein kantinan ere egongo dira salgai. Bost sari egongo dira: Gabonetako otarre erraldoia, patinete elektrikoa, asteburu baterako opari txartela, telebista bat eta BKEko kirol materiala. Zozketa, urtero legez, abenduaren 31n egingo dute, 20:30ean; sariak abenduaren 6tik aurrera egongo dira ikusgai, Depor taberna ondoko erakusleihoan. Gainera, kirol materiala erosteko martxan dute *www.bergarakodenda.com* ataria; eskaerak garaiz egitea eskatu dute, pilaketak ekiditeko.

Eskubaloi partidua bertan behera, kantxa hezeegi zegoelako

Nekez ahaztuko dute joan den asteburuko partidua Lehen Territorialeko senior mailako gizonezkoen eskubaloi taldeko jokalariek. Eibarko MEK taldearen aurka bereziki defentsako lanean partidu ona egiten ari zirela eta 21nako berdinketarekin baloia bergararrek zutela, epaileak partidua geratzea erabaki zuen, kantxaren hezetasunaren ondorioz lesio-arriskua handia zegoelako. Egoera hark eragindako erabakiaren ondorioz, garrantzi handiko lau minutu jokatzera itzuli beharko dute bergararrek Eibarrera; izan ere, sailkapenean soilik 3 puntu gehiago ditu Eibarko MEK taldeak.

Bestalde, senior mailako nesken taldeak liderraren aurka jokatu zuen Orion, eta diferentzia handiz galdu zuten (36-16). Hemendik aurrerako partiduetan "markagailu lehiatuagoak" izatea izango dute helburu.

"Organoa liburu ireki bat da, harribitxi erraldoia"

AITOR OLEA JUARISTI SAN PEDRO ELIZAKO ORGANO-JOLE TITULARRA

Stoltz Freres organo berritua herriari erakusteko, kontzertua emango du Oleak hilaren 8an (18:00); zaharberritu dutenek hitzaldia egingo dute gaur, Seminarixoan (20:00)

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA

2008ko urriaren 12a ezkero da San Pedroko elizako organo-jole titularra Aitor Olea Juaristi (Arrasate, 1969), eta dio "oso pozik" dagoela domekan bertan emango duen kontzerturako; aurkezpen ekitaldi bat egingo dute, 17:45ean, eta Oleak 18:00etan joko du. Domekan bertan, Arientzako kanpai-joleek (11:30) eta parrokiako koruak girotutako meza eta organoaren bedeinkapena izango dituzte. Eta gaur, organoa berritu dutenek hitzaldia egingo dute Seminarixoan (20:00). Nekez ahaztuko duen astea ari da izaten Olearentzat.

Nola zaude domekako kontzertu berezira begira? Ze sentsazio?

Oso pozik. 16 urteren ostean, lortu dugu bakarra den organo hau behar bezala berritzea; orain, partekatu beharra dago, eta belaunaldi berriei utzi.

Zer aurreratu dezakezu emanalditik piezei dagokienez?

Organo berrituari ahalik eta etekin gehien ateratzeko, zazpi pieza joko ditut, honako konpositore hauenak: Camille Saint-Saëns, Johann Sebastian Bach, Gabriel Pierne, Jesus Guridi, Eugene Gigout, Louis Vierne eta Franz Liszt. Organo honek 36 joko ditu, 36 soinu ezberdin, eta horien arteko konbinazioen bidez beste soinu batzuk lortzen dira. Margolariek oinarrizko koloreetatik abiatuta beste kolore batzuk lortzen dituzte, eta domekan saiatuko gara beste soinu batzuk aurkitzen; betiere, organoaren baliabide guztiak erabilita.

Aitor Olea, San Pedro elizako organoan, artxiboko irudi baten. A.O.

Zaharberritzea lan nekeza izan da, ezta? Organoa %100 dago gertu?

Organoa prest dago. Jatorriko soinua errespetatzea izan da premisa, eta lortu dugu. Borroka eta buruhauste asko izan dira, eta bidelagun asko. Batzuek ezingo dute organo berritua entzun, joan zaizkigulako... Haiei guztiei, bihotzez, eskerrik beroenak.

Michele Jurine eta Artez enpresen lana azpimarratu beharra dago...

Zalantzarik gabe. Instrumentua barrutik birgaitu dutenak Lyongo [Frantzia] Michele Jurine enpresako artisauak izan dira, baina ezin da ahaztu Bergarako Artezekoek organoa estaltzen duen kaxa erraldoia eta lau figurak berritu dituztela.

Harremana egin duzu haiekin, ala?

Organoa guztiz hustu eta Lyonera garraiatu ostean, ia bi urte egon ziren, eta 2024ko maiatzean itzuli zuten San Pedrora. Ordurako, baina, Artez enpresakoek estalkia eta irudiak birgaituta zituzten, lan horretan aritu ziren-eta urtarriletik martxora bitartean. Lan bikaina egin dute. Prozesuan harreman estua egin dugu, bai. Lyonera birritan joan naiz, adibidez, eta hango tailerrean lan nola egiten zuten bertatik bertara ikusi ahal izan nuen. Organoa hemen zegoela, maiatza ezkero ia egunero etorri izan naiz Bergarara...

Inbertsio handia izan da, hori bai.

Instrumentuak 468.000 euroko inbertsioa ekarri du: Aldundiak 234.000 euro jarri ditu, Bergarako parrokiak 80.000 euro, Bergarako Udalak 60.000 euro, elizbarrutiak 46.000 euro eta Stoltz Freres Organoaren Elkarteak 41.000 euro –2013a ezkero elkartea arduratu da mantentzea ordaintzeaz, eta, beraz, 65.000 euro jarriko zituen elkarteak guztira–. Horrez gain, elizbarrutiak 60.000 euro gehiago jarri ditu, Artezek organoaren kutxa berritu zezan.

Inbertsio handia, baina merezi zuena; diozu organoa "bakarra" dela...

Stoltz Freres etxeko jatorrizko soinua mantentzen duen munduko organo handiena da San Pedrokoa, hiru teklaturekin eta 36 jokorekin. Instrumentu bakarra da, bai, beste asko eletrifikatuak izan direlako. Honen bikietako bat Tolosan dago, 1885ekoa dena, baina elizako sabaiko harri zati handi bat erori zitzaion eta kontsola hondatu zuen; saiatu ziren birgaitzen, baina ez zen erabat lortu. San Pedrokoa liburu ireki bat da; mugarri bat musikaren, ingeniaritzaren eta artisautzaren ikuspegitik, harribitxi erraldoia.

XIX. mendeko teknika erabili dute

Oleak azpimarratu duenez, San Pedro elizan 1889ko martxoaren 18an inauguratu zen Stoltz Freres organoa garai hartako teknikan oinarrituta berritu dute. Eta adibide bat jarri du: "Esku-lan itzela dago atzetik, ordu asko, eta ez da teknika berririk ezarri. Adibidez, hauspoen narrua bera eta narru hori itsasteko lehengaia animalietatik eratorritakoa da; eta prozesua bera naturala izaten da, dela igurtzia, ureztatzea edota lehortzea, besteak beste. XIX. mendean horrela egiten zen".

Dena da mekanikoa, Olearen arabera: "Motorra eta organistarendako argia dira elementu elektriko bakarrak. Argindarra joan izanez gero, lau pertsona beharko lirateke hauspolari lanetan, baina aukera egongo litzateke argindar barik organoa bere osotasunean jotzeko. Ezer berririk ez da jarri, hori izan da premisa".

Organo berritua. THE BADASS PROJECT

Sarrerak salgai daude oraindik Gabonetako kontzerturako

Gabonetako ekitaldi klasikoetako bat den Bergarako Musika Bandaren, Bergarako Musika Eskolaren, Orkestra Sinfonikoaren, Aritzeta abesbatzaren, Orfeoiaren eta Orfeoi Gaztearen kontzertua abenduaren 21ean izango da, 20:30ean hasita. Aurten, leku aldaketa da nobedade nagusia; izan ere, urri erdialdean hasi ziren frontoiko obrek eraginda, San Pedro elizan egin beharko dute kontzertua.

Sarrerak martitzenean jarri zituzten salgai, abenduak 3, zortzi eurotan. Oraindik ere erosi daitezke, *seminarixoa.eus* webgunean; pertsona bakoitzak sei sarrera erosi ahalko ditu gehienez, eta, aldez aurretik guztiak agortzen ez badira, kontzertu egunean erosteko aukera egongo da, San Pedro elizan bertan, 19:00etatik aurrera. Kontzertuak ordu eta erdi inguru iraungo du.

Jardunek eta Goienak antolatuta, liburu aurkezpena Olason

Goienak eta Jardunek antolatuta eta euskarazko sortzaileak eta irakurzaletasuna hauspotzeko, Juan Martin Elexpuruk bere azken liburua aurkeztuko du abenduaren 11n Olaso dorrean (18:30): *Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan*. Goienakideek eta Jarduneko bazkideek liburua merkeago erosi ahalko dute bertan.

Goienagusik Iñaki Galdos gonbidatu du abenduaren 11rako

Goienagusik antolatuta, Iñaki Galdosek (Oñati, 1966) *Abentura bat baino askoz gehiago 1974-2024* liburua aurkeztuko du abenduaren 11n Seminarixoan (10:00). 1974ko irailaren 2an Boisetik (Idaho, AEB) heldu ziren 90 lagunen bisitak euskal diasporan izan zuen eraginaz arituko da Galdos, besteak beste; betiere, arreta pertsonengan jarrita.

Alberto Ramirezen 'Atzera begirada bat' erakusketa Aroztegin

Sevillan jaio eta 1962a ezkero Soraluzen bizi den Alberto Ramirez artistak *Atzera begirada bat* izeneko erakusketa irekiko du gaur, abenduak 5, Aroztegin. Pintura eta eskultura lana erakutsiko ditu Ramirezek, abenduaren 22ra bitartean: "Artista autodidakta, heldua eta kultua da Ramirez, artea ezagutzen duena", dio Bingen de Pedrok.

Aiherra auzotik Kalebarrenerainoko tartea itxi egingo du Udalak, oinezkoendako eremu bakarrik bihur dadin. A.R.K.

Udalak "mugikortasuna hobetzean" du erronka

Oinezkoei "presentzia handiagoa" emateko neurriak hartzen dihardu Udalak, eta datozenen berri eman du: Aiherra kaletik Kalebarrenera eten egingo du zirkulazioa, eta Mañarietan eta Buztinzurin kamerak jarriko ditu, "ibilgailuen jarduera murrizteko"

Amaia Ramirez de Okariz Kortabarria ANTZUOLA

Udalak adierazi duenez, "herrian mugikortasuna hobetzeko erronka handia" du, eta neurriak hartzen dihardu, horrenbestez. "Bizi baldintza hobeak eta kalitatezko mugikortasuna bermatzeko herritar orori, hilabete batzuk daramatzagu herrian mugikortasuna aztertzen, eta, ondorioz, Mugikortasun Planarekin lotuta dauden erabaki batzuk martxan jarri ditugu, oinezkoei presentzia handiagoa emateko eta protagonismoa berreskuratzeko". Hala, iragarri dute urrats gehiago egingo dituztela aurrerantzean, zenbait neurri zehatz zehaztu baitituzte datozen asteetan aktibatzeko.

Batetik, azaldu dutenez, Aiherra kaletik Kalebarrenerainoko bidean ibilgailuen zirkulazioa mugatu egingo dute, eta soilik oinezkoei zuzendutako gunea izango da. Bestetik, berriz, "ibilgailuen jarduera murrizteko asmoz", kamerak jarriko dituzte Mañarieta eta Buztinzuri auzoetan, ohartarazi duten arren araudia osorik zehaztu gabe dutela: "Kamerek matrikulen argazkiak aterako dituzte soilik, ez ditu grabazioak egingo, eta ibilgailuei bideratuta bakarrik egongo da".

Hain zuzen ere, urtarrilean onartutako 2024ko udal aurrekontuetan zehaztu zuten puntuetako bat da kamerena. Udal Gobernuaren arabera, orduko hitzak gogora ekarriz, "zirkulazio arauak kontrolatzeko" ezarriko dituzte, eta ordutegietatik kanpo dabiltzan ibilgailuei aterako dizkiete argazkiak; horretarako, aurrekontuetatik 25.000 euro bideratzeko erabakia hartu zuten.

HERRITARREKIN LANKETA BAT ABIATU NAHI DU UDALAK, MUGIKORTASUNA OINARRI HARTUTA

Orain arteko neurriak

Orain arteko neurriei dagokienez, egindakoen artean, herriko erdigunetik aparkalekuak kentzea –Kalebarrengo iturriaren albotik–, "oinezkoen pasabidea errespetatzeko" loreontziak ipintzea –Buztinzurin, zehazki– eta Errekalden, GI-2636 errepidean, "oinezkoen segurtasuna hobetzeko" obrak aipatu dituzte: "Esan behar da herritar gehienek eskertu egin dutela". Are gehiago, neurri horiek "eragina" izan dutela erantsi dute.

Udalaren hitzetan, "klima aldaketaren urgentziak erronka atzeraezina" du, eta lanean jarraituko dute datozen urteetan ere: "Mugikortasun gaietan, egunerokotasunean ikusten ditugun hobekuntzetan baliabideak ipintzen, herritarrak ahalik eta egoera hoberenean bizi daitezen". Horretarako, bada, jakinarazi dute lanketa bat jarriko dutela martxan datozen hilabeteetan, "herritarrekin eta askotariko eragileekin" batera.

Txistor-janean izena emateko aukera hilaren 10ean eta 12an

Landatxopek antolatuta, abenduaren 20an egingo dute, eta karta txapelketako sariak banatuko dituzte

A.R.K. ANTZUOLA

Txistor-janean izena emateko aukera izango da hilaren 10ean eta 12an, Landatxope jubilatu eta pentsiodunen elkartean, 16:30etik 18:00etara bitartean. Joxe Anjel Arbulu lehendakariaren hitzetan, abenduaren 21erako, San Tomas egunerako, antolatu izan dute beste aldi batzuetan, baina orain, egun bat aurreratzeko –hilaren 20an egingo da– erabakia hartu dute, 21a zapatua delako: arratsaldeko seietan izango da, elkartean, bazkideei zuzenduta.

Ez da, ordea, eguneko ekintza bakarra izango, karta txapelketako sariak banatuko baitituzte.

Txapelketako irabazleak

Azaroaren 18an, 19an, 21ean eta 22an jokatu zituzten karta txapelketako partidak, Landatxopen, eta garaipena eskuratu zuten: puntxoan, Salvador Serranok eta Nicomedes Velardek; briskan, Mari Carmen eta Lorentxo Iturbek; tutean, Pako Cabrerak eta Angel Peñalbak; eta musean, Jose Javier San Sebastianek eta Jose Ignacio Garitanok.

NIRE USTEZ

OLATZ ABASOLO

Benetako oparia

Opari: norbaiti, maitasun, adiskidetasun edo esker onaren erakusgarri ematen zaion gauza.

Definizio borobila. Opariak egin eta jasotzea gauza ederra izan daiteke, norbait zutaz oroitu den seinale. Egun jakinak ezarri ditugu, baina, opari horiek jasotzeko: data seinalatuak, urtebetetzeak edota, nola ez, Gabonak.

Merkantilizatu egin dugu oparia, eta erori gara kontsumismoaren zulora. Urriko turroi kanpainatik hasi eta jostailu zein perfume iragarki perfektuetara, irudi idiliko bat jarri dugu begien aurrean, lortzeko helburu bat. Urtean-urtean opari gehiago edo garestiagoa edo ikusgarriagoa jaso zein egiteko joera. Eta ez dut gustuko, ez dut horren parte izan nahi. Baina ni ere barruan naiz, gurpilean bueltaka, arnas bila.

Ez da erreflexio berria gaur hemen eginikoa, ezta originala ere, baina badirudi ahaztu egin dugula zer den benetako oparia. Klixea badirudi ere, badakit zer nahi dudan: osasuna, eta gertukoak maitasunez, adiskidetasunez eta esker onez gozatzeko aukera.

Etxebizitzetan energia berriztagarria instalatzea aztergai

Gipuzkoako Eraldaketa Energetikoaren Bulegoak martxan du *Energia argitu* programa, eta Antzuolan izango dira hilaren 10ean, etxebizitzetan energia berriztagarria instalatzeko aukeren berri ematen, 18:30ean, Olaranen. Aurrez izena ematea komeni da: 605 75 76 87 telefonoan edo *energiabulegoa@gipuzkoa.eus* helbidean.

'Miñan' ikusteko sarrerak salgai astelehenetik aurrera

Miñan antzezlana izango da hilaren 28an, zapatua, Torresoroan, 19:00etan, eta sarrerak astelehenetik, hilaren 9tik, aurrera egongo dira salgai liburutegian; ezingo da online erosi. Ander Lipusen zuzendaritzapean, Artedramak ekoiztutako lana da, eta Ibrahima Baldek eta Amets Arzallusek idatzitako *Miñan* liburua du oinarri.

"Jende jatorra dago Elgetan; pozik egon naiz"

NESTOR MAIDAGAN LAZKANO ELGETAKO PRAKTIKANTEA ORAIN GUTXIRA ARTE

34 urte egin ditu praktikante lanetan, eta horietako gehienak Elgetako kontsultan. Azaroaren 20an hartu zuen erretiroa, eta disimulurik gabe dio oso ondo bizi dela

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Estimu handia diote Elgetan Nestor Maidagani (Arrasate, 1960). Urte asko egin ditu erizain lanetan eta oso gertukoa izan da herritarrendako. Hura ikusi, eta bospasei herritar gerturatu zaizkio goraintziak ematera elkarrizketa hau egiteko hartutako ordu erdiko tartean. Bisitan gehiagotan etorri beharko lukeela esan diote gehienek.

Zure azken lanegunean etxafuegoak entzun genituen herrian.

[Barre] Etxafuegoena... Kontsultara etorri zen bati komentatu nion botako nuela bateren bat, eta erantzun zidan bazituela pare bat etxean. Ekarri egin zizkidan, eta bota egin genituen. Egun berezia izan zen. Abesbatzako dozena bat lagun ere etorri ziren niri hiru kantu abestera. Doinu ezagunak abestu zizkidaten, baina momenturako moldatutako hitzekin. Detaile oso polita izan zen, eta oso hunkigarria.

Zer moduz bizi zara orain?

Oso ondo. Zaletasun pila ditut. Garrantzitsuenetakoak dira lo egitea eta ezer ez egitea. Baina ezer ez egitea, italiarren *dolce far niente* adieraz; hau da, ezer ez egitearen plazera. Irakurtzea eta abesbatzan kantatzea ere asko gustatzen zaizkit, eta motorzalea naiz. Badugu taldetxo bat, non ni nintzen erretiroa hartzeko gelditzen zen bakarra; beraz, pentsa! Ez naiz aspertuko.

34 urteotan asko aldatu dira gauzak kontsultan?

Alor teknikoan bai. Dena informatizatuta dago orain, elektrokardiogramak eta halako tresneriak bertan ditugu... Gauzak oso bestelakoak ziren heldu nintzenean. Ordenagailuak 2000. urtean heldu ziren, txandak telefonoz hartzen ziren... Nire gauzak batzen ari nintzela aurkitu nuen txandak emateko sasoi batean kontsultan erabiltzen genituen kartoizko txartel horietako batzuk. Teknikoki gauzak asko aldatu dira, bai, baina aldatu ez dena da jendearekin tratua. Jarraitzen du izaten oso-oso gertukoa. Pozik hartu dut erretiroa; goizetan asko kostatzen zitzaidan etortzea, baina, behin Elgetan egonda, oso gustura pasatzen nuen eguna. Hori horrela da.

Nestor Maidagan Lazkano, Elgetako kontsulta atarian. L.Z.L.

"URTE ASKO EGIN DITUT ELGETAN, ETA ALDATU EZ DENA DA JENDEAREKIN TRATUA"

"LEHEN, OSO GUTXITAN JOATEN GINEN MEDIKUARENERA, ETA GAUZA SERIOENGATIK IZATEN ZEN"

Eta gaixotasunak asko aldatu dira?

Poliomelitisa, tetanosa, elgorria, errubeola, tosferina… ia ez dira ikusten orain. Gehiagotu direnak dira edadearekin lotutakoak. Gizarte gero eta nagusiagoa gara, eta hori nabaritu egiten da. Dena den, nire ustez, gehien aldatu dena da gaixotasunen inguruan dugun pertzepzioa. Lehen, oso gutxitan joaten ginen medikuarenera, eta gauza serioengatik izaten zen. Neurri batean, oraindik ere gertatzen da Elgetan. Bada jendea medikuarenera etorri aurretik botikatik pasatzen dena, eta, batzuetan, gauza serioekin. Orokorrean, baina, gaur egun joaten gara medikuarenera katarro batengatik edo sukar apur bat eduki orduko. Eta errespetua ere aldatu egin da. Etxez etxeko ospitalizazioan ibili nintzenean gertatu zitzaidan etxe batera joan eta gaixoa ile-apaindegian zegoela entzutea. Elgetan horrelako gauzak ez dira gertatzen. Beste errespetu bat dago.

Eta zenbateraino da egia elgetarrek odol argiagoa dutela oxigeno maila handiagoa dutelako?

[Irribarre] Elgetan dagoena da jende oso jatorra. Egia esan, 600 metrora dago herria eta ez dago beste leku batzuetan dagoen kutsadurarik. Horrek izango du bere eragina! Nik uste dut elgetarrek badiote odol hobea dutela, ba, horrela izango dela. Eta beste gauza bat esango dizut: hainbeste urtean hona etorrita, nire odola ere hobetuko zen, ezta? Horrela espero dut.

Gustura egon zara, orduan, Elgetan?

Oso-oso gustura egon naiz, eta heldu nintzenetik. Interinitate bat betetzera etorri nintzen ni, eta, beste zenbait lekutan ibilia banintzen ere, Elgetakoa izan zen denboralditxo baterako nire lehen lanpostua. Azkenean, 17 urte izan ziren. Gero, tarte batez etxez etxeko ospitalizazioan ibili nintzen, baina berriz itzuli nintzen Elgetara.

Eta urte gehienak Iñaki Urgoitia medikuaren alboan.

Bai, hasieratik. Eta uste dut tandem ona osatu genuela. Oso osagarriak gara: hura gizon serio eta zuzena, eta ni apur bat dispertsoagoa. Botikakoekin ere harreman oso estua izan dugu beti; zalantzak argitzeko, gertatutakoen berri izateko, kontsultak egiteko… Leku askotan inbidia digute.

Nola bizi izan zenituen pandemia urteak?

Egia esango dizut: pozik etortzen nintzen lanera. Gutxik genuen etxetik irteteko baimena, eta haien artean geunden osasun langileak. Ez nuen nire lana betetzeko arazorik izan. Elgetako kontsultan ez genuen ezer bertan behera utzi, eta eskatutakoak bete genituen. Iluntzeetan, berriz, txaloak entzuten nituen, pentsatuaz haiek niretzat ere bazirela… Elgeta herri txikia da eta pandemian ere hori nabari izan da.

Elgetan galdu dugu pediatraren zerbitzua eta gutxitzen doaz sendagilearen orduak; zer gomendatuko zenieke herritarrei?

Pandemiarekin galdu ziren osteguneroko pediatraren kontsultak. Lan asko egiten zen umeendako zein gurasoendako, eta niretzako ere lan diferentea zen, atsegina. Gainera, txanda guztiak betetzen ziren, kontuan hartuta errebisioak egiteko bakarrik izaten zirela. Baina zerbitzua murrizten hasi ziren, guztiz kendu zutenera arte. Pena benetan handia hartu nuen. Medikuarekin ere berdin hasi dira: lehen, medikua egun osoz egoten zen; eta orain, egun erdiz dago. Gero, aste honetan ez dator, udako beste aste honetan bi egunez bakarrik egongo da… Herritarrei esango nieke adi egoteko. Garrantzitsua da zerbitzua ez galtzea. Egia da erizaina badagoela, baina erizaina ez da medikua.

Hiru ekintza dituen Aste Berdea, astelehenean hasita

Argazki erakusketa batekin zabalduko du Udalak Elgetako Aste Berdea. Buztin gelan izango da ikusgai, astelehenetik domekara, eta hondakinak ondo sailkatzeko gomendioak eta herriko hondakin-guneetan gaizki egindako sailkatzeak ikusi ahalko dira. Bigarren ekintza Maala guraso elkartearen eskutik etorriko da, eta Gabonetan apaingarri jasangarriak egiteko eskulan tailerra izango da. Eskolako ganbaran da hitzordua, eguenean, 16:30ean. Hirugarren eta azken ekintza bigarren eskuko azoka izango da. Barikurako iragarri dute, 17:30etik 19:30era. Interesatuek mahaia eskatu behar dute udaletxean.

Gazteendako irteera ohe elastikoen parke batera hilaren 14an

Elgetako gazteleku zerbitzuak datorren astebururako iragarri du ikasturteko bigarren ekintza. Irteera zapatuan egingo dute, hilak 14.

Gazteek horrela eskatuta, ohe elastikoen parke batera egingo dute txangoa, eta aukeratutako parkea Bilboko JumYard izan da. Taldea 10:00etan irtengo da Elgetatik eta 13:30ean abiatuko dira bueltan Bilbotik. Egunotan zabalduko dute izen-ematea.

Aurrekoetan bezala, 2008-2012 urteen artean jaiotako gazteendako irteera izango da. Ekintza aurrera ateratzeko, gutxienez hamar lagunek eman beharko dute izena. Gehienez hogei lagunendako lekua dago.

OHARRAK

Liburu bat opari

Liburu gomendioak jaso nahi ditu udal liburutegiak, eta hilaren 16ra arteko epea zabaldu du. Sariak daude jokoan. Informazio gehiago, liburutegian.

Goibekoren batzarra

Elgetako euskara elkarteak urteko batzarra deitu du hilaren 19rako, 18:00etan, Ozkarbi elkartean.

Arantzazu erreka Usako parean. O.E.G.

Esku hartzeak egingo dira Usakon, txukuntzeko

Usakoko paisaia lehengoratzea da asmoa, eta dagoen bezala mantentzea helburua, gauza berririk egin barik, turismo jasangarriaren izenean. Horrela, heldulekuak aldatuko dituzte, komuna egurrez forratu eta oinez heltzeko bidexka konpondu

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Usako inguruko paisaia lehengoratzeko proiektura bideratuko du Udalak turismo jasangarrirako Europako Next Generation funtsetatik jasotako dirulaguntza zati bat. Horrela, gauza berriak sartu barik, dagoen tokian bertan txukuntze-lanak egin nahi dituzte, paisaiarekin bat eginez.

Mahairik ez

Adibidez, zaharkituta dauden heldulekuak aldatu eta berriak jarriko dituzte, errekara jausteko arriskua dagoela ikusten den gunetan. Zuazolako zubitik putzura bitarteko bidexka ere konponduko dute, eta komuna egurrez forratu. Lan txiki horiez gain, putzu ondoko berdegunera zuzenago iristeko bidea egingo dute ondoko zelaitik, besteak bezala Udalarena da-eta orain hori. "Aipatzekoa da lursail bat erosi duela Udalak inguru hartan. Hain zuzen ere, Exibai baserritik zubia pasa eta Usakora sartzeko zegoena. Horrekin egingo dena da oinezko bide zuzenagoa Usakoko berdegunetara", azaldu du Udaleko Turismo batzordeburu Xabier Igartua Loidik. Lursail hartan, gainera, zuhaitz batzuk landatuko dituzte, haritzak alde batean eta erreka bazterretara ondo moldatzen direnak beste aldean.

Berdeguneetan mahaiak jartzeko proposamena ere aztertu zuten proiektua egin dutenek, baina aukera hori baztertu egin zuen Udalak hasieratik, Usako den bezalakoa mantentzearen alde eginda, hura zaintzeko. "Uste dugu Usako dagoenetan ere erakargarria dela askorendako, ez duela gehiagoren beharrik jendea erakartzeko. Behar zuena zen, agian, bertako ibilbideak, inguruak, txukuntzea. Eta Europatik jasotako diru hori erabiliko da hango putzuak eta urak hobeto hartzeko eta bidexkako lurzorua konpontzeko. Ingurua bera da polita, eta horrela mantentzea litzateke helburua".

BERDEGUNEETARA ZUZENAGO IRISTEKO BIDE BAT EGINGO DUTE, UDALAK EROSITAKO ZELAITIK

100.000 euroko aurrekontua du Usako lehengoratzeko proiektuak –lursailaren erosketa barne–, eta udarako lanak bukatuta egotea da aurreikuspena.

Bidegorriko lanak, paraleloan

Paraleloan joango dira, bestalde, Torreauzotik Usako sarreraraino joango den bidegorriaren lanak; hori ere udarako bukatuta egotea gurako lukete. Azaroko ohiko osoko bilkuran onartu zuen udalbatzak Usakoraino helduko den bidegorria egiteko proiektua behin betiko onartzea, onura publikotzat deklaratzea eta hori egina ahal izateko beharrezkoak diren lursailen desjabetzeen prozesua behin betiko onartzea.

"Gure elikadurarekin ari gara gizartea eraikitzen"

JAKOBA ERREKONDO SALTSAMENDI AGRONOMOA

Aholkuak eman eta galderak erantzungo ditu hitzaldian

O.E.G. OÑATI

Oñatiko Elikadura Taldeak abendurako antolatutako jardunaldien barruan, *Agroekologia eta etxeko ortua* izeneko hitzaldia egingo du Jakoba Errekondok (Usurbil, 1961) eguaztenean, hilak 11, zinema-aretoan, 18:30ean.

Nori zuzenduta egongo da hitzaldia?

Ortua dutenendako eta izan nahi dutenendako. Nola hobetu azalduko diet batzuei, eta oinarrizko aholku batzuk eman besteei.

Zer izan behar dute kontuan bigarren horiek?

Ortua izango dugun lurra, tokia, ezagutu behar da lehenbizi: ongarri naturalak erabili, bertako haziak erein, erremintak ondo ezagutu... Eta erraz haziko diren barazkiak landatu: piperrak, berakatza, patata eta marrubiak, adibidez. Tomateak izan gura ditu mundu guztiak etxeko ortuan, eta helduko dira, baina landare errazagoekin hastea da nire aholkua.

Bertako produktuen aldeko aldarria entzuten da, baina gero, kontsumitzen dira?

Gero eta gehiago, esango nuke. Kontsumo taldeak, azokak eta zuzeneko salmentak horren adibide dira. Bestalde, kontzientzia badago, eta hori ere asko da. Kontzientzia jaten duguna bertakoa eta osasuntsua denaz, eta kontzientzia lehen sektorearen garrantziaz. Baserritarrek zaintzen dute inguru giroa, euren lanak definitzen du zer ur, lur, baso edo aire izango dugun. Ditugun paisaiak ere eurek marrazten dituzte; polita iruditu eta argazkiak ateratzen dizkiegun paisaia kulturalak.

Jakoba Errekondo. GOIENA

Zenbaterainoko garrantzia du bertakoa kontsumitzeak?

Izugarria. Gure elikadurak kalitatea izango duelako, gure osasuna eta bizimodua nolakoa izango den esango digulako. Elikadurarekin ari gara gizartea eraikitzen. Garrantzi izugarria du zer jaten dugun eta non eta nola ekoiztua dagoen.

Zer gehiago ematen du ortuak?

Denbora. Landare bat landatu eta hazten doan heinean ikasi egiten da. Abenduan landatutako letxuga, adibidez, apirilean egongo da jateko moduan. Lau hilabete dira horiek, eta beharrezkoa duen denborak pentsarazten digu lan horrek, produktu horrek, duen prezioan; alegia, duen balioan.

Urbasara joango dira urteko azken irteeran

Arrakasta izaten dute mendi sailak antolatzen dituen irteerek, eta azkar betetzen da autobusa; parte-hartzaileen taldea bera egonkortu egin da denborarekin. Datorren astean egingo dute urteko azkena, eta elkarrekin bazkalduaz agurtuko dute urtea

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Urtarrilean egin zuen urteko lehen mendi irteera Aloña Mendiko mendi sailak, eta abenduaren 15ean Urbasara egingo dutenarekin itxiko dute aurtengo egutegia.

Nafarroako Barbagain gaina. ALOÑA MENDI

Talde egonkorra

Denborarekin, egonkortu egin da ohitura. Baita eguna eta parte hartzen dutenen taldea ere. Hileko hirugarren domekan izan ohi dira, eta 60 bat laguneko taldea finkatu da. "Autobusa jartzen dugu irteeretara joateko, eta 40 lagunendako tokia egoten da. 60 bat dira ohikoen taldean, eta autobusa bete egiten da beti; azkar, gainera, batzuetan. Lagun taldea osatzen dute dagoeneko parte-hartzaileek, bai", dio Aloña Mendiko mendi saileko Mikel Oterok. Irteerek arrakasta dutela gaineratu du, eta inguruko herrietakoak ere joan izan direla batzuetan: "Horrelakoetan, Oñatin federatuta daudenei ematen diegu lehentasuna".

Urtean hamar irteera egiten dituzte, eta, horrez gain, zeharkako eskian ibiltzeko beste bat, gutxienez. Horietan plaza gutxiago egoten dira, 20 edo 22, aterpetxearen arabera, eta bete egiten dira horiek ere. "Adinari begiratuz gero, 40 eta 65 artekoak dira parte-hartzaile gehienak. Egia esan, oso pozik gaude, jendeak estimatu egiten ditu-eta txango horiek. Hori bai, jarraitzeko moduan gauden arren, ongietorria izango da laguntza".

Urbasara hilaren 15ean

Nora joan pentsatzeaz mendi saileko taldekide batzuk arduratzen dira gehienetan, baina parte-hartzaileek eurek ere proposatzen dituzte irteerak: "Egiten ditugunetatik, bat edo bi eurek proposatutakoak izaten dira. Saiatzen garena da mendian ibiltzeko ohitura duen edonork egiteko modukoak izaten txangoak: hamalau bat kilometrokoak, lurzoru egokitik eta 800 metro baino desnibel handiagorik ez izaten, adibidez".

Urteko azkena Urbasa aldera egingo dute, hilaren 15ean, eta, ohitura duten moduan, elkarrekin bazkalduaz emango diote amaiera urteari. Hilaren 12a da izena emateko azken eguna: *alonamendi.mendi@gmail.com*. Aste honetan egin dute lehen bilera, hurrengoak prestatzeko.

NIRE USTEZ

HIDE DOHINO

Euskararen garrantzia XXI. mendean

Aurten ere etorri da Euskararen Eguna. Baina dagoeneko asko esanda dago. Agian, hobe da beste gai bati buruz idaztea. Hala ere, oraingoan ere konplizea izatea erabaki dut.

Hizkuntza berri bat ikastea ekimen sortzailea dela esango nuke, bizimodua edo, behintzat, pentsamoldea pixka bat bada ere aldatzen baitzaigu: hau da, bakoitzak bere burua apurtu eta berreraikitzeko aukera ematen digu, edo, beste modu batean esanda, umetu eta berriz heltzekoa, bigarren bizitza bizitzea balitz bezala. Nire ustez, zaila da geure burua ezer aldatu gabe hizkuntzak ikastea lortzea, eta euskararekin askoz zailagoa. Beraz, garaiak inposatzen digun bizitza *normal*-ari buelta emateko parada izan daiteke. Niretzat, bederen, bai; filosofia iturri gisa hartzen dut euskara. Zentzu horretan, orain euskarak gero eta garrantzi handiagoa hartzen duela uste dut, XXI. mendean nola bizi behar dugun hausnartzeko tresna bihurtzen baita. Eta, horregatik, euskaldunek bakarrik ez, gizaki guztiok zaindu behar dugu euskara. Animo eta eskerrak euskaltzaleei!

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA

AMAIA TXINTXURRETA

Hasi du bidea Aixotu taldeak

Euskara bultzatzeko eta herrian haren aldeko jarrera berpizteko helburuarekin sortu dute Aixotu euskara taldea eta Euskararen Egunean egin zuten, hain zuen ere, aurkezpena. Durangon abenduaren 7an egingo den manifestaziora joateko deia egin zuten ekitaldian, "euskararen kontrako erasoaldi eta oldarraldiak" salatzeko.

1.650 euroko elkartasun txekea jaso du Hotz Oñatik

Urte hasieran martxan jarri zuen *merchandising* solidariotik lortutako dirua Hotz Oñatiri eman dio Aloña Mendik: 1.650 euro guztira. Bestalde, joan den zapatuan Larrañako egoiliarrendako egindako arropa bilketak ere erantzun ona izan zuen eta jasotako guztia behar bezala sailkatu ostean, hiruzpalau auto bete zituzten kaxekin.

Txekea jasotako unea. I.S.

Amiantoa izango dute hizpide Lagun Lekun eguaztenean

Amiantoa. Hiltzaile isila izeneko hitzaldia antolatu du Lagun Leku elkarteak datorren asterako. Amiantoaren biktimen elkarteko kide Jesus Uzkudun izango da hizlaria eta amiantoak osasunean izan duen eragina izango du hizpide. Hitzaldia eguaztenean da, abenduak 11, Lagun Lekuk Eltzian duen lokalean, 18:00etan.

'Askatasun doinua' ipuinaren tailerra haur liburutegian

Askatasun doinua ipuinaren aurkezpena eta tailerra egingo dute abenduaren 12an haurren liburutegian. Egileetako bat egongo da han, Mitxel Elortza, eta kulturartekotasunari eta elkartasunari balioa ematea helburu duen ipuinaren kontaketa eta tailerra gidatuko ditu. LH-1etik gorako umeendako da eta aurrez eman behar da izena.

oñargi

ADMINISTRARI LAGUNTZAILE POSTUA

OÑARGI SL udal enpresak, Oñatin argindar banaketa kudeatzen duenak, **ADMINISTRARI LAGUNTZAILE** posturako deialdia egiten du.

ZEREGINAK: bezeroei arreta, bezeroen kudeaketa eta gainbegiratzea, kontratazio berriak eta aldaketak, artxibatze lanak, kontabilitate lanak...

EZINBESTEKO BALDINTZAK:
- **Titulua:** gradua, diplomatura, lizentziatura enpresen administrazio eta finantza arloan edo baliokidea.
- **Hizkuntza-eskakizuna:** euskara naturaltasunez menperatzea hitz eginez eta idatziz. Hirugarren profila baloratu egingo da.

KONTRATUAREN IRAUPENA: sei hilabete.

Interesa izanez gero, bidali curriculuma *onargi@onargi.eus* helbidera.

Ematen diren datuak konfidentzialtasunez tratatuko dira. Datu Pertsonalak Babesteko 2016/679 arauduaren (UE) 13. Eta 14. Artikuluak ezartzen dituen irizpideei jarraikiz.

"Zapaldua den gorputz orori abesten diot"

AIERT ALBERDI ELORZA MUSIKARIA

Euskarazko zortzi kantak osatzen dute musikari oñatiarraren lehen diskoa: 'Somateka'. Dio prest eta gogotsu dagoela askotariko espazioetan aurkezteko

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Soinu digital asko erabili ditu Aiert Alberdi Elorza (Oñati, 2005) musikari oñatiarrak bere lehen diskoan. Durangoko Azokan egongo den lanetako bat da.

Kalean da lehen diskoa; egia bihurtutako ametsa?

Hori baino gehiago, lan handiaren emaitza. Lanordu askoren eta bidelagun izan ditudan pertsona askoren lanorduena.

Nolakoa da? Zer entzun daiteke?

Definizioz, bilduma politiko biziduna da diskoa eta euskarazko zortzi kantak osatzen dute. Soinu elektronikoen eta organikoen arteko tentsioa eta fusioa entzun daiteke momentu batean. Oihu gordinenak eta laztan intimoenak ere jasotzen ditu. Esango nuke intimitatean oinarritzen dela, baina horren alde gordinena eta goxoena hartuz. Eta kontzeptu honetara iritsi nintzen konturatu nintzenean abesti guztiak lotzen zituena zela –Paul B. Preciado teorialari feministaren eta queer-ak esan moduan– bizipen politiko edo biolentzia estruktural baten erantzun edo erreakzio batetik sortutakoak izatea. Nire eraikuntza artistikoan eta politikoan eragina izan duten ertzei, eta beste pila bati, egindako bilduma da. Somateka da estratifikazio mota bat; pairatzen duzun biolentzia jasanezina denean sortzen da estruktura bat zure gorputzaren estratu bihurtzen dena, eta hor pairatzen duzu mina jasangarria izateko, gorputzak bizirauteko eta, aldi berean, armadura bilakatzeko.

Zeri edo nori abesten diozu?

Zapaldua den gorputz orori.

Zeureak dira doinuak eta hitzak?

Bai. Ekoizpenean, El Tigre Estudios-eko Jon Agirrezabalaren laguntza izan dut; produkzioko lanaz gain, ekarpen handia egin dio diskoko sorkuntza artistikoari ere.

Gitarraz gain, beste zein instrumentu entzuten da?

Soinu digital asko erabili ditugu. Ahotsa ere tresna moduan ulertu dugu, eta horrela erabili, erabilera ezberdinak emanez. Txaloak, oihuak... ere badaude; akaso, ez direnak musika kontsideratzen, baina kontzeptuarekin oso bateragarriak direnak.

Zer erlazio dago kantuen artean?

Zaurgarriak, sentsibleak dira kantuak; denok gara hauskorrak, nire ustez. Bestetik, gitarra bai, baina kanta askoz elektronikoagoetarainoko saltoa ere badago euren artean.

***Ama* kantua da bat; hori lehenagotik datorrena da, ezta?**

Bai. Lehen diskoa da eta orain dela urte batzuetako abestiak ere badatoz bertan. *Ama* kantua 13-14 urterekin sortutakoa da, bildumako zaharrena, eta abesti biluziena edo organikoena. Gitarrak eta ahotsak izan behar zuten protagonistak han.

Aiert Alberdi musikari oñatiarra. OSKIA ARANGUREN

"OIHU GORDINENAK ETA LAZTAN INTIMOENAK JASOTZEN DITU DISKOAK"

Olatz Salvadorren kolaborazioa duzu kantu baten; nolakoa izan da elkarlana?

Oso berezia. Aspalditik jarraitzen dut haren musika, eta *Autodefentsa* moduko kantu bat materializatzea, harekin egitea, ikusten nuen. Autodefentsaren beharretik, horren faltagatik sortzen da *Autodefentsa*, etsipen oihu bat, baina bortitz bihurtzen den oihua, eta deia, autodefentsa kolektiborako.

Noiz entzuteko da egokia diskoa?

Nahiko intimoa da, baina oso aldakorra ere bada, eta modu eta momentu askotan entzungarria.

Nola bizi izan duzu prozesua?

Buruko min askoko eta gozamen handiko prozesua izan da, baina egin behar nuena hau zela iruditzen zitzaidan, eta hori sentitu dut prozesu osoan. Eta laguntzaile asko izan ditut.

Hainbat kontzertu emandakoa zara, baina diskoa aurkeztekoak izango dute beste xarma bat, ezta?

Bai; forma berezia hartuko dute aurkezpen kontzertuek. Bakarrik egongo naiz eszenatoki gainean, baina ez dut gitarra bakarrik izango alboan. Prest eta gogotsu, askotariko espazioetan jotzeko.

DANBAKA
MUSIKA LEHIAKETA
6. ALDIA

ONDARE
MAIDER MIMI
721-GOGOR GABILTZA
BANANA SHAKE

Bergarako
Seminarixoa
Abenduak 13
21:30

Chill out gunea
20:00etatik aurrera
San Martin plazan
DJ BALZA

Sarrera arrunta **5 €**
Goiena aplikazioan alta emanda **2 €**
Goiena txartela erakutsita **0 €**

Finala
URTARRILAK 17

Bergarako Udala
GIPUZKOA Kultura
SEIN
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

Lagunartekoan parte hartu zuten jokalariak eta epaileak, Oñatiko eskubaloiko jokalari gazteekin batera, *Euskaraz bizi nahi dut* lelodun zapiekin, Euskararen Egunean. ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

Betekada harmailetan eta indarrak parean partiduan (30-32)

ESKUBALOIA Bera Beraren eta Zuazoren arteko lagunartekoak goraino bete zituen, martitzenean, Zubikoako harmailak. "Sekulako poztasuna hartu dugu jendeak zelan erantzun duen ikusita", adierazi du Aloñako presidente Iñaki Mendarozketak

Xabier Urtzelai Atxa OÑATI

Bera Bera eta Zuazo taldeetako ordezkariak harrituta geratu ziren martitzenean Zubikoako harmailetan izan zuten giroarekin, eta aitortu zuten ligako partiduetan etxean jokatzen dutenean ere ez dutela harmailetan halako jendetzarik izaten. Izan ere, oñatiarrek ostera ere erakutsi dute herrian zelako eskubaloi zaletasuna dagoen, eta lehenengo mailako bi talde aurrez aurre ikusteko aukera ez dute alferrik galdu nahi izan. Harmailetan zutik ere ez zen jende gehiagorik sartzen.

Nahiz eta jokalari internazionalak Europako Txapelketan egon, kantxara salto egin zutenek ikuskizun polita eman zuten, eta indarrak parean egon ziren partidua ikusi zuten zaleek. Zuazo gailendu zen, 30-32, bereziki Bera Berako taldean aldaketa dezente izan zituzten partiduan.

Eskola Kirolekoendako oparia

Norgehiagoka hasieran, Bera Berako eta Zuazoko jokalariak Oñatiko Eskola Kiroleko eskubaloi jokalariekin kantxaratu ziren, eta atsedenaldian, gainera, elkarren kontra partidutxoa egin zuten: "Oso pozik geratu gara, eta gure jokalari gazteendako momentu berezia izan da, seguru. Harmailak goraino bete dira eta klubak egin duen lanak merezi izan du. Bera Berako eta Zuazoko ordezkariak ere pozik geratu dira, lagunartekoak eman duenarekin eta harmailetako babesarekin; horrenbestez, balorazioa oso positiboa da".

Eskola kiroleko gazte oñatiarrak Bera Berakoekin.

Zuazokoak erasoan.

Kantxara salto egiteko zain.

JUNE AMILIBIA
ZUAZOKO JOKALARIA

"Hiru astez geldirik egotea larregikoa izango litzateke, eta halako partiduek lehiaketako txipa mantentzen laguntzen digute".



LAIDA ZABALA
ZUAZOKO JOKALARIA

"Halako lagunartekoak ondo etortzen dira ligan etena izaten dugunean joko erritmoa ez galtzeko, sasoiari eusteko eta jokoan gauza berriak probatzeko".



UGAZI MANTEROLA
ZUAZOKO JOKALARIA

"Bera Bera ligako talde indartsuenetako bat da, eta halako saioak ederrak dira guretako; laster jokatuko dugu euren kontra ligan".



OIHANA MURGIONDO
BERA BERAKO JOKALARIA

"Ni gazte mailako jokalaria naiz eta gaurkoa esperientzia berria da niretako; halakoak garrantzitsuak dira guk ere aukerak izan ditzagun".

JUNE DEL CAMPO
BERA BERAKO JOKALARIA

"Bigarren taldeko jokalaria naiz, baina lehenengo taldearen dinamikan sartuta gaude eta halako partiduek tentsioan mantentzen zaituzte".

ESTHER ARROJERIA
BERA BERAKO JOKALARIA

"Kirola egiten dugunok badakigu entrenamenduak egitea baino nahiago dugula partiduak jokatu, eta geldialdi hauetan bikain datoz halakoak".

Julen Zelaia, iazko irraileko derbian, baloia gidatzen; orduan, arrasatearrak nagusitu ziren (0-1). GOIENA

Joera negatiboa aldatzea dute jokoan bi taldeek

FUTBOLA Ligan azkenaurreko postuan dagoen Aloña Mendik azken sei partiduetan puntu bat batu duen Mondra hartuko du egubakoitzean Azkoagainen (16:30). Bietako inor ez dago etxafuegoak botatzeko, baina derbia baliatu nahi dute joera aldatzeko

Xabier Urtzelai Atxa OÑATI

Aloña Mendi eta Mondra ez daude bolada onean: hamaika puntu dituzte arrasatearrek eta hamar oñatiarrek. Eta elkarren kontra jokatuko dute bihar, egubakoitza (16:30), zubiagatik aurreratutako norgehiagokan. Ohorezko Erregional Mailara igotzeko urte ikusgarria egin eta gero, futbolaren bestelako aurpegia bizitzen ari dira bi taldeak aurten: nahia eta ezina. Arrasatekoek ez zuten liga hasiera ikusgarria egin, baina urri erdialdean jarraian eskuratutako bi garaipenek arnas apur bat eman zieten Xuban Epelderen mutilei. Bi garaipen haiek, baina, ez zuten jarraipenik izan, eta ez hori bakarrik: puntu bakarra batu dute ordutik hona.

Biharko kontrario Gotzon Urzelairen Aloña Mendi ez dago hobeto. Etxeko bi garaipenei esker ez daude beherago, eta haiek ere hilabete daramate partidurik irabazi barik; hala, joan den astean Mutrikun lortutako puntua (1-1) biharko derbia irabazita borobildu nahi dute.

Bergara bai ondo

Bergara iazko bide beretik doa aurten ere, oso ondo. Iker Ruiz de Larramendiren mutilek urte ona egin zuten, eta bistan da hartua diotela neurria kategoriari. Mahoneroak sailkapeneko bigarren postuan daude. Bihar, sailkapenean azken postuan dagoen Vasconiaren (16:30) zelaian jokatuko dute. Baina gizonezkoak bakarrik ez, emakumezkoen mailan ere bergararrak nabarmentzen dabiltza, haiek ere bigarren daude-eta sailkapenean. Asteburuan atsedena izango dute, eta Hernani hartuko dute datorren astean.

Aretxabaletak, Deusto

Hirugarren FEB Mailan joan den astean etxean Durangoren kontra merezitakoa baino zigor handiagoa jaso ostean (1-2), Aretxabaletak Deustoren zelaian, Etxezurin, jokatuko du zapatuan (17:45).

ARETO FUTBOLA Bigarren dagoen Mondratek Afantxo hartuko du

Euskadiko Hirugarren Mailan denboraldi hasiera ederra egiten dabilen Mondratek etxean jokatuko du bihar, egubakoitza. Sailkapenean bigarren daude arrasatearrak, jokatutako hamar partidutatik zortzi irabazita, eta Afantxo zazpigarrena da. Taularen erdian dagoen Eskoriatzak, berriz, Araban jokatuko du bihar, Rivabellosan.

Donipariren kontrako partiduan. GOIENA

FUTBOLA Atzeratu egin dute Elene Guridiren omenaldia

Aloña Mendik omenaldia egin behar zion Realeko jokalari Elene Guridik bihar, Azkoagainen. Oñatiarrek Mondraren kontrako derbia baliatu behar zuten emakumezkoen maila gorenera iritsi den erdilariari errekonozimendua egiteko. Baina, hain justu, klub txuri-urdinak talde-argazkiak atera behar ditu bihar.

ERRUGBIA Talde seniorrek kanpoan jokatuko dute zubian

Hainbat kirol jardueratan asteburuan atseden izango dute, baina errugbian senior mailako taldeek normal jokatuko dituzte partiduak. Emakumezkoek Logroñon jokatuko dute, zapatuan (16:30), eta gizonezkoek Larrea kiroletxeko zelaian, Zornotzan, 16:30ean. Errugbi eskolakoek lan-saioa izango dute Mojategin (10:30)

PILOTA Santamasetako jaialdiko sarrerek 'hegan' egin dute

Jakinekoa da azken urteotan santamasetako pilota jaialdian ze giro sortzen den Uarkapen, eta bistan da geroago eta arrasatear gehiagorendako galdu ezin den hitzordua dela, sarrerek *hegan* egin dute eta. Internetez eta tabernen bitartez salgai jarritako sarrera guztiak ordu gutxian saldu dituzte. Mila sarrera dira, gutxi gorabehera.

SASKIBALOIA Liderraren kantxan jokatuko du MUk zapatuan

LF2 kategorian MUko neskek atsedena dute, baina FEB3 mailako gizonezkoek lider dagoen Castillo de Gorraiz Valle de Egues taldearen kontra jokatuko dute zapatuan, Iruñean (19:00). Nafarrek partidu bakarra galdu dute ligan, eta azken seiak irabazi egin dituzte. Berrocalen mutilak, berriz, sailkapenaren erdialdean daude.

Bakarka + Bakarka bi
Ruper Ordorika
Elkar

Gizatasunetik at!
Txakurrak
Autoekoitzia

Somateka
Aiert
Autoekoitzia

Zapatekin Arnas
Alaia Martin, Mirari Sagarzazu
Oñatiko Algaraz Ikuskizun Elkartea

Erraustsetatik loratzen
Añube
Autoekoitzia

El valle del hierro
Ane Odriozola
Autoekoitzia

Batera hagan
Azkaiter Pelox
Autoekoitzia

Un mundo en pie de guerras
David Lazkanoiturburu
Autoekoitzia

Inorenak ez diren lurretan
Bidelapurrak
Autoekoitzia

Botere handi batek
Iban Zaldua, Julen Ribas
Autoekoitzia

Euskaldun fededun
Pruden Gartzia
Elkar

Tortura Arrasaten: genero ikuspegitik
Iñaki Barrutia, Nekane Sesma, Juan Ramon Garai
Intxorta 1937 Kultur Elkartea

Garazi eta Sala
Garazi eta Sala
Autoekoitzia

Trilogia
Jon Fosse, Joanes Jauregi
Elkar

Arnasak estu hartzeraino
Garratz
Autoekoitzia

De amar y desandar
Idoia Asurmendi
Altafonte Network SL

Azken Portuko postdatak
John Andueza, Asel Luzarraga
Elkar

Demo, bilduma, single eta raritieak
Kaleko Urdangak
Tough Ain't Enough Records

2000 del Winnipeg: Diario de a bordo
Josu Chueca
Intxorta 1937 Kultur Elkartea

Loak irauteko
Karena
Autoekoitzia

Uzta oparoa aurten Debagoienetik Durangora

Ibarreko 24 disko, hamalau liburu eta ikus-entzunezko bat egongo dira han

Jone Arruabarrena ARRASATE

Badator, beste urte batez, Durangoko Azoka; aurten ere, nobedadez josiko da Landako gunea, gaur hasi eta domekara bitartean. Hain zuzen, 933 kultur produktu berri izango dira salgai; horietatik 38, Debagoienari lotutakoak – joan den urtean baino zortzi gehiago–. Guztira, 153 partaide izango ditu Landako guneak, eta 274 erakusmahai jarriko dituzte, iaz baino hamazazpi gehiago. 639 liburu, musikari lotutako 216 lan, 47 aldizkari eta bestelako 31 argitalpen, zehazki. Landako gunetik harago ere eskaintza zabala prestatu du Gerediaga elkarteak: Talaia, Ahotsenea, Irudienea, Kabia, Saguganbara eta Szenatokia guneak egongo dira. Horietan ez dira faltako kultur ekitaldiak: 200 baino gehiago izango dira lau egunean.

Musika barra-barra

Aurten ere uzta oparoa eraman dute Debagoieneko musika sortzaileek Durangora. 23 disko aurkeztuko dituzte, hain zuzen, baita *Alosia* disko-fanzinea ere. Azken hori Perlata taldeak ateratakoa da, eta hainbat tatuatzaileren marrazkiekin, taldearen hitzekin eta hausnarketekin osatu dute fanzinea. Diskoa liburuxkaren barruan egongo da. Bestalde, Orhi taldeak ere azokan bertan aurkeztuko du bere lehen diskoa: *Izarrik ez*. Bergarako, Azpeitiko eta Antzuolako sei lagunek osatzen dute, eta pop-rock estiloa darabilte. Abenduaren 7an egingo dute aurkezpen-kontzertua, Ahotsenean, 11:00etan.

Bailara, orri artean

Literatura aldetik ere ugari dira Debagoienean ekoitzi eta Durangon salduko diren lanak. Esaterako, Intxorta 1936 Kultur Elkarteak hiru liburu eramango ditu: *Tortura Arrasaten : genero ikuspegitik, 2000 del Winnipeg: Diario de a bordo* eta *Orratz begia: 1936 Gipuzkoako gerra*

Euskarazko izenak erromatar garaiko aldare eta hilarrietan

Juan Martin Elexpuru

Nabarralde

Zamalanak

Keia

Autoekoitzia

Ultra

La Furia

Baga-Biga Musika Ideiak

Bi zauri bizi, bi lore txiki, bi harribitxi

Lemak

Autoekoitzia

Han egon zen

Mikel Zubimendi

Txalaparta

Esan ez direnak

Malko

Autoekoitzia

Laberintuak

Maniaks

Autoekoitzia

Martin

Martin Errasti, Hodei Vicario

Airaka

Nick Linbött

Nick Linbött

Autoekoitzia

Izarrik ez

Orhi

Autoekoitzia

Orratz Begia

Monica Jato, Josu Chueca

Intxorta 1937 Kultur Elkartea

Osaba Kimu

Osaba Kimu

Autoekoitzia

Alosia

Perlata

Autoekoitzia

Gipuzkoako armarria, gure historiaren ispilu

Patxi Olabarria

Nabarralde

Lagunekin topa!

Potx eta Lotx

Algaraz Ikuskizun Elkartea

Anomaliak

Perlata

Autoekoitzia

Ahanzturaren babesean

Rebel Noise

Autoekoitzia

haurrak. Talaia gunean aurkeztuko dituzte guztiak: abenduaren 8an 12:30ean lehena eta abenduaren 6an 18:00etan azken biak. Nabarmentzekoa da Joannes Jauregik euskarara itzuli duen *Trilogia* liburua ere. Jon Fosse Literaturako Nobel saridunaren liburua itzuli du Jauregik, AEDko eta Arrasateko Udalak antolatutako Jokin Zaitegi itzulpen lehiaketako bekaren bidez. Oñatiko Algaraz Ikuskizun Elkarteak, berriz, Alaia Martinek eta Mirari Sagarzazuk sortutako *Zapatekin arnas* liburua aurkeztuko du, Potx eta Lotxen *Lagunekin topa!* diskoaz gain.

Ikus-entzunezko berezia

Ines Osinagak *Bat, bi, hiru kanta. Igual lau. (#itsasoadabidebakarra sessions)* lana aurkeztuko du abenduaren 6an, 12:00etan, Irudienean. Hala ere, ez da ohiko ikus-entzunezko lan bat. "Bideo-audizio kolektiboa" da, Osinagak sortu eta Xerra estudioak zuzendu duena. Hogei minutu irauten du lanak, eta bertan hainbat performance aurkeztuko ditu artista arrasatearrak, "artea normalean kontsumitzen ez den lekuetara" eramateko helburuarekin, eta guztiak dokumental musikal batean bilduta.

Debagoiendarren aurkezpenak

ABENDUAK 5

- **Geuretik Sortuak.** *Lau elementuak* film laburren bildumaren proiekzioa. Lau film laburrak segidan ikusteko aukera izango da, Irudienean, 18:30ean.

ABENDUAK 6

- **Ines Osinaga.** *Bat, bi, hiru kanta. Igual lau* ikus-entzunezkoaren aurkezpena. Dokumental musikatua Zugaza zinemako Irudienean egingo dute, 12:00etan.
- **Intxorta 1937 Kultur Elkartea.** *Orratz begia. 1936 Gipuzkoako gerra haurrak* eta *2000 del Winnipeg. Diario de a bordo* liburuen aurkezpenak. Durangoko Museoko Talaian, 18:00etan.
- **Aintzane Agirrebeña eta Idoia Etxeberria.** *Appa Hi!* eta *hika.ahotsak.eus* proiektuen aurkezpena. Landako guneko Kabi@ gunean, 19:20an.

ABENDUAK 7

- **Orhi.** *Izarrik ez* diskoaren aurkezpena. Plateruenako Ahotsenea musika-gunean kontzertua egingo dute Bergarako eta Azpeitiko taldearen lehen diskoa aurkezteko, 11:00etan.
- **Karena.** *Loak irauteko* diskoaren aurkezpena. Plateruenako Ahotsenea musika-gunean kontzertua egingo du Antzuolako eta Hernaniko taldeak, 12:10ean.
- **Ekain Martinez de Lizarduy.** *Prosopagnosia* film laburra aurkeztuko du ikus-entzunezko horren zuzendariak berak, eta proiekzioa izango da. Zugaza zinemako Irudienea gunean, 14:30ean.
- **Julen Ribas eta Iban Zaldua.** *Botere handi batek* komikia aurkeztuko dute egileek. Ahotsenea Literatura gunean egingo dute aurkezpena, 17:30ean.

ABENDUAK 8

- **Potx eta Lotx eta Alaia Martin.** *Zapatekin arnas* liburua aurkeztuko dute pailazoek eta Martinek, eta txikientzako ikuskizuna ere egongo da. Saguganbaran egingo dute, 10:30ean.
- **Intxorta 1937 Kultur Elkartea.** *Tortura Arrasaten genero ikuspegitik* liburua aurkeztuko du Arrasateko elkarteak. Landako guneko Talaia gunean izango da, 12:30ean.
- **Asel Luzarraga eta John Andueza.** *Azken portuko postdatak* liburua aurkeztuko dute egileek eurek. Ahotsenea Literatura gunean izango da, 16:00etan.
- **Keia.** *Zamalanak* diskoa aurkeztuko du Oñatiko taldeak, hainbat herritan aurkezpen-bira egin ondoren. Plateruenako Ahotsenea Musika gunean izango da, 16:50ean.

Patxi Goikolea eta Arantzazu Loidi, Almen ikastetxearen aurrean. IMANOL BELOKI UNAMUNO

Bertso-eskolak batu, eta finalean elkartu

Goxotasunez gogoratu dituzte Loidik eta Goikoleak Almeneko lehen bertso-eskolaren hastapenak. Hilaren 14an Donostian jokatuko den finalean Loidik jantziko dio txapela txapeldunari, eta Goikoleak 25 urtez azpiko bertsolari onenaren saria emango du

Jone Arruabarrena ARRASATE

Aurten 50 urte bete dira zapatuetako lana bertan behera geratu zenetik, eta hori da lehenengo bertso-eskola sortu zenetik igaro den denbora ere. Ez da kasualitatea: zapatu goizak arintzeko hasi ziren Patxi Goikolea, Joanito Akizu eta Xanti Iparragirre Almeneko ikastetxean lehenengo bertso-eskolak ematen. Eskola haietako lehenengoetako ikaslea izan zen Arantzazu Loidi. Han hasi zen bien arteko lotura, eta, mende erdi geroago, berriro elkartuko dira; hilaren 14an Donostiako Illunben jokatuko den finalean, oraingo honetan: Arantzazu Loidi aretxabaletarrak jantziko dio txapela txapeldunari eta Patxi Goikolea arrasatearrak, berriz, 25 urtez azpiko bertsolari onenaren saria emango du. Hala ere, hori baino lehen, GOIENArekin hizketaldi bat izateko batu dira biak.

Goxotasunez gogoratzen dute biek ala biek bertso-eskola martxan jarri zuten garaia. 8 urte zituen Loidik eskola haietara joaten hasi zenean: "Beti egon da bertsozaletasuna gure familian. Eta eskolatik antzerkia edo bestelako ekintza batzuk egitea eskaini zigutenean, nik bertsolaritza aukeratu nuen". Ikastaro horren beste aldean, Goikolea zegoen, Akizu eta Iparragirrerekin. Hark ere ondo gogoratzen du nola hasi ziren: "Eskolakoek ikasleentzako eskolaz kanpoko zerbait nahi zuten, eta, guri bertsolaritza gustatzen zitzaigunez, hori bera proposatu genuen. Ikastaroaren propaganda egin genuen, eta 125 ume agertu ziren eskoletara. Hiru gelatan banatu genituen, bakoitzean gutako batekin, irakasle. Bertso zaharrak erakusten hasi ginen". Loidik ez dauzka ahazteko bertso haiek: "Bai! bertso zaharrak buruz ikasten genituen, eta behin eta berriz kantatu".

Lehenengo bertso-eskola hark asko eman zion Loidiri: "Afizioz aukeratu genuen, gustura genbiltzan, eta, batez ere, lagun talde ederra osatu genuen. Bai Almenen osatu genuena, eta gerora sortu genuena ere bai". Bertso zaharrak ikasi eta kantatzen hasi ostean, bertsotan ondo egiten zuten ume talde bat nabarmendu zen; haien artean zegoen Loidi. "Igartzen nuen Arantzazuk balio zuela bertsotarako, erraztasuna zuela", dio Goikoleak. Haiekin aparteko eskolak ematen hasi ziren, barikuetan, Apotzagan. Eta han hasi ziren, apurka, bat-batekoak kantatzen ere, Goikoleak azaldu duenez: "Hiru urte egin genituen Almenen, eta, laugarren urtean, hoberen moldatzen ginenekin Apotzagara aldatu ginen, teknika hobetzeko. Lagunak ziren elkarren artean, eta oso garrantzitsua izan zen ekipoa egitea". "Hiru aita ziren guretzako", dio Loidik: "Hara eta hona eramaten gintuzten kantatzera, goxo hartzen gintuzten, eta bakoitzari behar genuen babesa eta laguntza ematen ziguten. Bazekiten zeintzuk ziren bakoitzaren indarguneak eta ahulguneak". Hain zuzen, Loidik 10 urte zituela hasi ziren jendaurrean kantatzen. Bertsolari ospetsuen saioetan *telonero* lanak egiten zituzten. Buruz ikasitako bertsoak kantatzen zituzten umeek, baina jendeari bat-batean ari zirela sinetsarazita. "Xalbador etorri zen behin, eta haren aurretik kantatu genuen; emozionatu egin zen Xalbador, umeak bertsotan ikusita", dio Loidik.

"Esker onez" jaso dute biek Gipuzkoako Bertsolari finalean sariak banatzeko gonbidapena. "Gaurko bertsolariek gauza berriak kantatzen dituzte, gaurko mundukoak: hizketa eta gaiak ezberdinak dira. Batzuetan, niri ere kosta egiten zait ulertzea eta jarraitzea. Eta horrela izan behar du; mundua aldatzen doan heinean, bertsolariek ere aldatzen joan behar dute", dio Goikoleak. Loidi ere bat dator: "Ikuspegi berri bat ekarri dute, mundu berri bat. Bertsozale Elkartea ere lan ederra egiten ari da".

"GAURKO BERTSOLARIEK GAUZA BERRIAK KANTATZEN DITUZTE"

PATXI GOIKOLEA

"XALBADOR EMOZIONATU EGIN ZEN UMEAK BERTSOTAN IKUSITA"

ARANTZAZU LOIDI

HARTZEA EMATEA DA!
GOIENA TELEBISTA
ABENDUAREN 5EAN, 6AN, 7AN ETA 8AN, 20:00ETAN
KULTURA-MAGAZINA DURANGOKO AZOKATIK
DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA
goiena
Zu hemen zaude.

Gipuzkoako finalaren atarian geratu da Arregi

Maider Arregi oñatiarra Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalean sartzetik puntu bakar batera geratu zen domekan Arrasaten egindako finalerdian. Oihana Iguaranek lortu zuen finalerako zuzeneko txartela, 519 puntu batuta

Jone Arruabarrena ARRASATE

Domekan jokatu zen Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalaurrekoa, Arrasaten. Oihana Iguaran nagusitu zen, 519 punturekin, eta, horrenbestez, zuzenean sailkatu da abenduaren 14an jokatuko den finalerako. Debagoieneko ordezkari bakarra, Maider Arregi oñatiarra, hirugarrena izan zen, 511 punturekin. Finalean sartzetik puntu bakar batera geratu zen.

Arrasateko Uarkape frontoia guztiz bete zen domeka arratsaldean Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako azken finalerdiaren testigu izateko. Iñigo Mantzizidor, Oihana Iguaran, Andoni Rekondo, Eñaut Martikorena, Maider Arregi eta Agin Laburu izan ziren oholtzan kantuan aritu ziren sei bertsolariak. Abenduaren 14an Donostian jokatuko den finalerako txartela zuten jokoan.

Maider Arregi, Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalaurrekoan, Arrasaten. GOIENA

Arregi, hirugarren

Bigarren sailkatu zen Andoni Rekondo, 513,5 punturekin –finalean izango da–; hirugarrena izan zen Maider Arregi oñatiarra, 511 punturekin; Agin Laburu, laugarren, 499 punturekin; bosgarrena izan zen Eñaut Martikorena, 482 punturekin; eta seigarrena, Iñigo Mantzizidor, 478 punturekin.

Hatz puntekin ukitu zuen finala Arregi oñatiarrak, finalean sartu den zortzigarren bertsolariak, Aner Peritz Euzkitzek, 512 puntu baitzituen. "Gustura" ibili zen Arregi taula gainean. Adierazi zuen kostatu egin zitzaiola apur bat saioan sartzea, baina bigarren ariketatik aurrera oso gustura ibili zela: "Zortziko txikian Oihanarekin, seiko motzean ere bai *Mantxi*-rekin. Eta bakarka ere gustura ibili naiz". 1991. urteaz geroztik, debagoiendar bakarra iritsi da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera; Jon Sarasua aretxabaletarra, hain zuzen ere.

TXAPELKETAREN BALORAZIO ONA EGIN DU OÑATIARRAK; HAREN HELBURUAK BETE DITU

Orokorrean, txapelketaren balorazio "ona" egin du oñatiarrak: "Nire helburua zen finalaurrekora heltzea, horrela Euskal Herriko Txapelketarako sailkatzen baikara. Hasierako helburua hori izan arren, gero esaten nuen: ea finala... Baina listo. Gertu geratu naiz, eta gustura nago egindakoarekin".

Finala, abenduaren 14an

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finala abenduaren 14an izango da, Illunben (Donostia), 17:00ean. Oihana Iguaran zuzenean sailkatu zen hara joateko, domekan, 519 punturekin. "Oso pozik" zegoen Iguaran, txapelketari begira "ahalik eta urrutien heltzea" zeukalako helburutzat. Finalera "gogoz" iritsi dela aitortu zuen: "Gertatu liteke nekatuta iristea, baina ez, alderantziz gertatu zait. Akaso, aurkitu ez dudan aldarte baten bila noa, kantatzeko gosez". Gehitu zuen finala "lasai" prestatu nahiko lukeela, baina zaila egiten zaiola horretarako denbora aurkitzea: "Pentsatu nahi dut burua prest daukadala. Etxeko lan batzuk ikusi dizkiot neure buruari, eta horretan saiatuko naiz". Saioan oso ondo ikusi zituen kideak Iguaranek: "Andoni ikusten nuen sendo, Maider ere bai. *Mantxi* ere gozatzen ikusi dut ariketa batzuetan. Agin ere oso-oso goitik ikusten nuen, eta ez genekien nola joango zen. Giroa ere oso ona izan zen, eta horrek zalantza sortzen dizu zenbateraino den erreala".

Finalerako sailkatu diren bertsolariak honako hauek dira: Beñat Gaztelumendi, Alaia Martin, Oihana Iguaran, Ane Labaka, Nerea Elustondo, Eneritz Artetxe, Andoni Rekondo eta Aner Peritz Euzkitze. Maider Arregik aurreratu du ikusleen artean izango dela, eta Alaia Martin eta Oihana Iguaran dira haren faboritoak: "Nire ustez, buruz burukora helduko dira biak".

Goienakideen txokoa

ABENDUKO SARIAK

Errigorako saskia
Parte hartzeko sariaren izena: errigora
ERRIGORA

Sarrerak
ARRIKRUTZ oñatiko kobak
Arrikrutz kobak bisitatzeko, sarrerak.
Parte hartzeko sariaren izena: Arrikrutz

Otarrea
www.harremandenda.org Bidezko Merkataritzako produktuak
Bidezko merkataritzako produktuak.
Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:
Posta elektronikoa: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen ouztapena gestionatzea. Eskubideak izango ditu datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatzeko, helbide honetara idatziz: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako sarrerak
Arrasateko Udalari esker
'Ernokume baten borroka eta metamorfosia' antzerkirako sarrerak ditugu.
Arrasate | Amaia Antzokia | Abenduak 15 | 19:30

PARTE HARTZEKO:
E-postaz: goienakide@goiena.eus WhatsApp: GOIENAKIDE "antzerkia" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
'goiena app'-a / zozketa atalean. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen ouztapena gestionatzea. Eskubideak izango ditu datuetan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezabatzeko, helbide honetara idatziz: goienakide@goiena.eus

Irabazi bi pertsonarendako otordua
SANTA ANA HOTELARI ESKER
Begiratu *Puntua* aldizkariko *Otorduan* atala eta hartu parte!
Parte hartzeko azken eguna: abenduak 10
943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.
GOIENAKIDE *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailez gozatzeko...

Ordaindu 2025eko kuota, 65€, eta abantailak DOAN aurtengo abendura arte
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus

DESKARGATU GOIENA APLIKAZIOA!

goiena kide
Okm: batzen gaituen distantzia.

Jon Garcia arrasatearraren Del Val taldeak zabaldu zuen hirugarren kontzertu-gaua.

Antzuolako eta Hernani aldeko musikariak batzen dituen Karena boskotea, Seminarixoko agertokiko bigarren lehiakideak.

Unai Urkiak gidatzen duen Oñatiko Henko proiektua, estreinakoz taularen gainean.

Aretxabaletako Txerrikumeak taldeak borobildu zuen gaua.

Proiektu berri bitxi gehiago

Dream popa, pop lasaiagoa, metala eta punk-rocka entzun ziren Seminarixoan jokatutako seigarren Danbaka Musika Lehiaketaren hirugarren kontzertu gauean

AITZIBER ARANBURUZABALA

Gertu sumatzen da finala, lau musika proposamen bakarrik geratzen dira Seminarixoan aurkezteko. Eskualdeko musika aniztasunaren erakusle argia izan zen seigarren Danbakaren hirugarren kontzertu gaua ere: erpin askotako poparekin hasi, metalari tokia egin eta punk-rockarekin borobildu zuten gaua.

Aniztasuna, aldi berean, taularen gaineko musikarien profilari begiratuta. Ederra da urteetako eskarmentua duten musikariak eta kasik hastapenetan daudenak oholtza bera partekatzen ikustea. Eta eskertzekoa da, era berean, aurreko urteetako Danbaka lehiaketetan parte hartutako musikariak proiektu berriekin eskualdeko musika lehiaketara itzultzea.

Erpin askotako popa

Erromintxelak taldearekin izan zen Jon Garcia arrasatearra orain dela bi urteko Danbakan, baina eskaintza oso ezberdinarekin zabaldu zuen egubakoitzeko lehiaketa. Orain dela bospasei urte etxean sortzen hasi eta dagoeneko bigarren diskoa ere grabatuta badu ere, zuzenekorik egin bakoa zen, eta ondo aprobetxatu zuen aukera, garai batean pisu-kide izan zituen musikari profesionalekin batera, doinu elektronikoak oinarri dituen Del Val proiektua erakusteko. Gitarra Garciaren eskuaren parte dela uste zuten ikusleendako, bereziki, opari polita izan zen Arrasateko musikaria, mikroa eskuetan, euskarazko eta gaztelerazko kantuak sintetizadoreak jotzen zituen bitartean abesten entzutea.

Lotsati samar hartu zuen lekukoa Antzuolako eta Hernani aldeko musikariak batzen dituen Karena taldeak, baina segituan bereganatu zuen agertokia. Goraipatzekoa da bi Irati abeslarien ahotsen joste eta jolas gozoa, eta azpimarratzekoa, aldi berean, musikari batzuek instrumentu bat baino gehiago jotzeko erakutsitako abilezia.

Abiadura azkarra bigarrenean

Oñatiko Unai Urkiak etxean landutako proiektu pertsonala izan zen Seminarixoko agertokian aurkeztutako hirugarren proposamena. Baxua eskuetan izaten da gehienetan agertokian; oraingoan, baina, mikroa zuen tresna bakar. Ondo defendatu zituen oinarrian metala baina bestelako estilo nahasketak dituzten doinu azkarrak, ahots apurtuarekin abesten, eta, horretarako, ezinbesteko bultzada eman zion alboan zituen Broken Legacy eta Lee-Kore taldeko musikari lagunen babesak.

DEL VAL, KARENA, HENKO ETA TXERRIKUMEAK TALDEAK IZAN ZIREN AGERTOKIAN

Punk-rockarekin amaitu zen gaua, Aretxabaletako Txerrikumeak taldeak lekukoa hartuta. Talde horretan ere badago aurrez Danbakan parte hartutako musikari bat: aurreko aldiko sari nagusia eskuratu zuen The Clayton-eko Xabier Muñez. Emanaldi bizia eta dibertigarria egin zuten, iaz kaleratutako *Nora heldu* izeneko hirugarren diskoa oinarri hartuta eta aurrean zuten publikoaren feedbackarekin.

Jamaikako doinuak kanpoan

Sanprubusa bertaratuta, musikazaleen topagune bihurtzen da chill out gunea. Disko jartzaileei egin zaie aurten tokia, eta Bilboko DJ Navajita Suarezek –Irene Suarez– asmatu zuen doinu jamaikarrak aukeratuta hotz samar zegoen gaua berotzen.

GOIENA TELEBISTAN, 'DANBAKA.EUS'-EN ETA 'GOIENA.EUS'-EN DAUDE KONTZERTU GUZTIAK IKUSGAI

Talde bakoitzak bere jarraitzaileak eroaten ditu Seminarixora.

DJ Navajita Suarez –Irene Suarez– gonbidatu zuten chill out gunera. ARGAZKIAK: IMANOL SORIANO

Del Val | Arrasate

Urduri hasieran, baina gozatu ederra hartu zuela aitortu zuen Jon Garciak, saioa bukatu orduko. Argitaratu bako bigarren diskoko kantuekin osatu zuen errepertorioaren zati nagusia, eskualdean ohikoak ez diren doinuak eta instrumentuak erabilita.

Karena | Antzuola

Loak irauteko diskoa izan zuen boskoteak kontzertuaren bide-orri, eta emanaldi gozoa egin zuten, sostengu izan zuten publikoaren aurrean. Bertsioei tokia egiteko ohitura dute, eta Odolkiak Ordainetan taldearen *Askatasun ipuinak* aukeratu zuten.

Henko | Oñati

Hirugarren aldia zuen Danbakan Unai Urkia oñatiarrak; 2006an Black River taldearekin hartu zuen parte, eta Broken Legacyrekin orain dela bi urte. Proiektu pertsonala du Henko, baina gertutasun handia zegoen taularen gainean zituen musikarien artean.

Txerrikumeak | Aretxabaleta

Aretxabaletakoei motz geratu zitzaien ordu erdia, dituzten hiru diskoak erakusteko; bada, kantu berrienak aukeratu zituzten euren onena emateko. Gustuko duten Kuraia taldeari omenaldia egin zioten amaieran, *Ezin gelditu* kantua jota.

Aretoan jasotako iritziak

IRENE SUAREZ
DJ NAVAJITA SUAREZ

"Reggae, early reggae, ska, rocksteady eta calypso diskoak jarri ditut, erritmo jamaikarrekin zapatak mugitzeko. Oso gustuko dut musika kultura bultzatzen duten guztiak, eta, bide horretatik, Danbaka ekimena asko gustatu zait".

JULEN NARBAIZA
EPAIMAHAIKIDEA

"Oso gustura egon naiz gaurko kontzertuetan ere. Giro ona izan da eta jende dezente etorri da. Aipagarria da bailaran dugun musikarien kopurua eta aniztasuna; horren erakusle, gaurko eskaintza: popa, elektronika, metala eta punka entzun dugu".

OIER URIBESALGO
PUBLIKOA

"Oso gustura egon gara gaurko kontzertuak ikusten; batez ere, Txerrikumeak taldea ikustera etorri gara, lagun ditugulako; hala ere, orokorrean, asko gozatu dugu, erakusleiho polita da-eta Danbaka Musika Lehiaketa".

JULEN AGIRRE
PUBLIKOA

"Orain dela bi urte parte hartu genuen Danbakan, Letagin taldearekin, eta oroitzapen asko etorri zaizkit gaur, lehiakideen urduritasunak sumatuta. Henko, Txerrikumeak eta Karena ikustera etorri gara, bereziki, lagunak ditugu- eta tartean".

HURRENGO KONTZERTUA
Abenduak 13, egubakoitza, 21:30.
Bergarako Seminarixoa.
- **Ondare**
- **Maider Mimi**
- **721-Gogor Gabiltza**
- **Banana Shake**

Publikoaren Sariaren sailkapena

1	**K-PO** Bergara	**Botoen %16,9**
2	**MALKO** Oñati	**Botoen %14,3**
3	**SOTOALDE** Bergara	**Botoen %11**
4	**ETEN** Aretxabaleta	**Botoen %10,4**
5	**KORDA ROTA** Arrasate	**Botoen %9,5**
6	**TXERRIKUMEAK** Aretxabaleta	**Botoen %9,5**
7	**KARENA** Antzuola eta Hernani	**Botoen %8,6**
8	**REBEL NOISE** Arrasate	**Botoen %4,7**
9	**KTARSIA** Bergara	**Botoen %3,7**
10	**721-GOGOR GABILTZA** Aretxabaleta	**Botoen %2,8**
11	**HENKO** Oñati	**Botoen %2,7**
12	**BANANA SHAKE** Arrasate	**Botoen %2,4**
13	**LOW COST DELUXE** Bergara	**Botoen %1,8**
14	**DEL VAL** Arrasate	**Botoen %1,1**
15	**ONDARE** Arrasate	**Botoen %0,4**
16	**MAIDER MIMI** Aretxabaleta	**Botoen %0,2**

BOTOA EMATEKO
Danbaka.eus webgunean edo *Goiena.eus* webgunearen *Danbaka* izeneko kanalean eman daiteke botoa, 2025eko urtarrilaren 14ra bitartean.

'Danbakast' bideo podcastak ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Arrasateko Garagartza auzoa. Etxebizitza unifamiliarra saltzen da Arrasateko Garagartza auzoan. Interesatuak deitu 943 58 42 13 telefono zenbakira. Arratsaldean, mesedez (20:00etatik aurrera).

102. EROSI

Etxea erosiko nuke. Etxebizitza erostea nahi dut Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Berdin zait egoera. Momentuko ordainketa egin dezaket. 623 17 95 37

3. LOKALAK

301. SALDU

Oñatiko estetik zentroa salgai. Estetikako negozioa saltzen dut erretiroagatik. Oñatiko erdigunean kokatua dago. Interesa baldin baduzu, deitu mesedez hurrengo telefono zenbakira: 943 78 01 46

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Oñati. Jatetxeak lanaldi osoko zerbitzaria behar du. Gosari eta bazkariak astelehenetik larunbatera. 688 74 18 18

402. ESKAERAK

Aretxabaleta, Arrasate eta Bergara. Garbiketa lanak egiten edota pertsona nagusien zaintzan lan egingo nuke. Telefonoa: 602 06 52 12

Arrasate eta inguruak. Arrasateko neska goizetan, haurrak zaintzeko, ikastolara eramateko eta etxeak garbitzeko gertu. 637 22 40 16

Arrasate eta inguruak. Neska euskaldun eta gaztea naiz. Umezain edo hantzeko lanak egingo nituzke. Astelehenetik igandera, arratsaldez, malgutasun osoa. Telefonoa: 688 69 53 79 edo 676 13 06 64

Arrasate. Goizetan haurrak zaindu edota eskolara eramateko prest. Neska gazte eta euskalduna naiz. Irakasle ikasketak egiten ari naiz. Deitu 633 08 39 16 telefono zenbakira.

Arrasate. Neska arrasatearra, arduratsu eta atsegina, umeak zaintzeko eta nagusiei paseatzera lagundu edota konpainia egiteko gertu. Deitu telefono zenbaki honetara: 695 73 87 95

Bergara eta inguruak. Neska euskalduna naiz, haurrak zaintzeko prest. Haur hezkuntzako gradua eta goi mailako zikloak ditut. Esperientzia daukat haurrak zaintzen. Edozein galdera egiteko deitu edo idatzi lasai asko. Telefonoa: 634 42 85 11

Debagoiena. 56 urteko neska arduratsua, goizeko 9:00etatik arratsaldeko 16:00etara bitartean pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest . 689 50 70 54

Debagoiena. Asteburutan zerbitzari lanak egiteko prest dagoen emakume euskalduna. Esperientzia daukat. Deitu 650 67 16 91telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakume arduratsua pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxetik kanpo bizi izaten edo orduka lan egingo nuke. Soziosanitario titulua dut. 653 36 85 80

Debagoiena. Emakume gaztea ostalaritzan, pertsonen zaintzan edota garbiketan lan egiteko gertu. Aste barruan arratsaldez lan egin dezaket. 603 71 72 39

Debagoiena. Emakumea lan egiteko prest. Pertsona nagusiak zaintzen edota garbiketa lanetan. Bestelako lanak egiteko aukera. Malgutasun osoa dut. 632 54 45 86 (Lise Romero).

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Telefonoa: 634 02 95 44

Debagoiena. Emakumea pertsona nagusiak zein umeak zaindu eta garbiketa lanak egiteko gertu. Orduka lan egingo nuke. 632 03 95 68 (Blanca)

Debagoiena. Esperientzia duen pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, baita ospitaletan txandaka ere. 643 50 58 27

Debagoiena. Etxeak, lantegiak, elkarteak eta bestelakoak garbitzeko prest dagoen gizonezkoa. Esperientzia dut ospitaleen eta enpresa industrialen garbiketan. Ordutegi aldetik malgutasuna daukat. Gidabaimena eta kotxea ditut. Deitu telefono zenbaki honetara: 645 72 92 87

OÑATI

Jatetxeak lanaldi osoko zerbitzaria behar du. Gosari eta bazkariak astelehenetik larunbatera. 688741818

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egiteko gertu dagoen emakumea naiz. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Telefonoa: 651 96 78 69

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. 642 37 01 92

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan. Garbiketa lanak ere orduka egiteko prest nago. 642 36 70 42

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, baita ospitaletan txandaka ere. Pertsona nagusiak zaindu edo paseatzera laguntzeko prest. Soziosanitario titulua eta esperientzia ditut. 643 50 56 62

Debagoiena. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan. 613 58 95 70

Debagoiena. Garbiketa lanak egin edota haurrak edo pertsona nagusiak zaintzeko prest. Telefonoa: 641 99 12 18

Debagoiena. Garbiketa lanak egiten, sukaldari laguntzaile, eraikuntzako peoi, orga jasotzaileekin edo dendetan kaxan edo apal-betetzaile lanetan aritzeko prest. Telefonoa: 687 35 06 37

Debagoiena. Garbiketa lanak zein etxeko bestelako lanak egiteko gertu dagoen emakumea. Goizetan lan egingo nuke. Esperientzia eta erreferentziak ditut. 666 07 42 98

Debagoiena. Gizon arduratsua pertsonak zaintzeko gertu. Hamahiru urteko esperientzia eta gomendio onak ditut zaintzan. Kotxea, soziosanitario titulua eta legezko agiriak ditut. Gidari partikular gisa ere lan egingo nuke. 662 43 08 54

Debagoiena. Goizetan orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 651 96 78 69

Debagoiena. Gizon latinoa, arduratsua eta zintzoa, heldu adinduak zaintzen edo garbiketa lanak egiten lan bila nabil. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. 645 70 84 95 (Eduard Castaño).

Debagoiena. Gizona pertsona nagusiak zaindu edo hauek paseatzeko gertu. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxeetan edo ospitaletan lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara: 614 11 43 60

Debagoiena. Lan bila nabil. Hainbat lan egiteko gertu: adinekoak zaindu, garbiketa lanak, animaliak paseatu, eraikuntzan, iturgintzan, errementari lanetan edota soldatzaile gisa. Deitu telefono honetara: 625 90 55 45

Debagoiena. Neska euskalduna, pertsona nagusien zaintzan, egoitzetan edota ospitaletan lan egiteko gertu, baita dendari edo garbiketa lanak egiten ere. Orduka lan egingo nuke. Soziosanitario tituluarekin eta gidabaimenarekin pertsona nagusien zaintzan, egoiliarrak, orduka, ospitaletan... Garbiketa edo dendetan ere lan egingo nuke. 656 79 28 37

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zainduko nituzke astelehenetik ostiralera bitartean. Deitu telefono honetara 603 93 19 87

Debagoiena. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko gertu, baita txakurrak paseatzera ateratzeko ere. Orduka lan egingo nuke. Deitu telefono zenbaki honetara 672 96 46 49

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edo hauek paseatzeko gertu dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten, asteburuetan, orduka etxeetan edo ospitaletan lan egingo nuke. Deitu 643 50 56 62 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaindu edota garbiketa lanak egingo nituzke. Bestelako lanak egiteko prestutasuna. Soziosanitario eta garbiketa tituluak ditut. Deitu 643 47 39 37 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edo paseatzera laguntzen lan egingo nuke. Etxean bertan bizi izaten edo orduka etxe zein ospitaletan. Esperientzia dut. Deitu telefono zenbaki honetara: 614 11 43 60

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketa lanetan aritzeko gertu dagoen emakumea. Etxetik kanpo bizi izaten lan egingo nuke, baita orduka ere. Deitu zenbaki honetara 747 48 32 90

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan edota garbiketan lan egingo nuke. Orduka edo asteburuetan lan egiteko prest. 623 35 99 03

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzan, garbiketa lanetan edo bestelako lanetan aritzeko prest dagoen emakumea. Etxean bertan bizi izaten edo bestela lan egingo nuke. Deitu zenbaki honetara 632 17 21 98

Debagoiena. Zerbitzari lanetarako edo pertsona nagusiei paseoan laguntzeko prest. Deitu telefono zenbaki honetara 611 36 93 74

6. MOTORRA

602. EROSI

Land Rover Defenderra erosi. Land Rover Defenderra behar dut baserrirako, berdin dio ze egoeratan dagoen: IAT gabe, matxuratua, kolpearekin. Interesatuak deitu mesedez, 623 17 95 37 telefono zenbakira.

ZORION AGURRAK

ARRASATE
Oier Añibarro Usobiaga
Abenduaren 12an, urtebete. Zorionak, kuxkurrio! Zure lehenengo urtebetetzia! Muxutxo haundi bat maitia!

OÑATI
Aiur Etxezarreta Castillo
Abenduaren 11n, 7 urte. Zoriona, Aiur! Oso ondo ospatu zure eguna! Segi zaren bezelakua izaten! Patxo haundi bat!

ARRASATE
Catalina De Anta
Abenduaren 8an, 85 urte. Zorionak eta urte askotarako, zure seme-alaben eta zure biloba Uxueren partetik. Ondo pasatu! Muxu handi bat.

OÑATI
Izaro Markuleta Kortajarena
Abenduaren 7an, 7 urte. Zorionak, maittia, dagoeneko 7 urte. Asko maite zaittugu.

OÑATI
Elur Biain Ignacio
Abenduaren 7an, 5 urte. Zorionak, mutiko! Asko maite zaitugu. Muxu pila bat familitxaren partetik. Oso ondo ospatu eguna.

BERGARA
Arane Ziarsolo Barrero
Abenduaren 7an, 7 urte. Zorionak, Arane. Ondo ondo pasa zure urtebetetze egunean. Muxu zaparrada etxekuen partetik. Maite Zaitugu.

ARETXABALETA
Joane Laspiur Rubio
Abenduaren 6an, 8 urte. Zorionak, Joane! Bazoaz handitzen laztana. Ezinhobeto ospatuko dugu zure eguna. Ia sorpresatxo asko jasotzen dituzun! Izugarri maite zaitugu. Besarkada bat familia eta lagunen partetik.

BERGARA
Maddi Elexpuru Gonzalez
Abenduaren 4an, 8 urte. Zorionak, Maddi! Segi hain zoriontsua izaten, muxu handi bat familia guztiaren partetik! Asko maite zaitugu!

ZORIONTZEKO HIRU BIDE

- Goiena.eus-en erabiltzailea sortu eta *Goiena.eus/zorionagurrak* helbidean sartu.
- Mezua bidali *zorionagurrak@goiena.eus* helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.
- Zatoz Goienara edo deitu 943 25 05 05 telefonora.

ARETXABALETA
Nia Miranda Perez
Abenduaren 1an, urtebete. Zorionak, printsez! Besarkada handi bat familia guztiaren partetik. Bereziki amatxo eta amaren partetik! Asko maite zaitugu!

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

BERRI-ZAKUA

Mikel eta Lorea "Tia Lore eta tio Mikel, loretxoak botako dizkizuegu! Ondo pasa ezkontzan eta gozatu ezkon-bidaiaz! Muxu bana! Gora ezkonberriak!".

HILDAKOAK

- **Pedro Ruiz de Azua Elorza**. Aramaion, azaroaren 30ean. 87 urte.
- **Pili Castillo Galdos.** Aramaion, abenduaren 2an. 64 urte.
- **Cesar Velasco San Jose.** Arrasaten, azaroaren 29an. 62 urte.
- **Leonor Lopez Sandoval.** Arrasaten, abenduaren 1ean. 96 urte.
- **Maria Garcia Rodriguez.** Arrasaten, azaroaren 30ean. 97 urte.
- **Damaso Merino Moto.** Arrasaten, abenduaren 2an. 84 urte.
- **Lourdes Azkoaga Gordoa.** Arrasaten, abenduaren 3an. 88 urte.
- **Miren Ibarzabal Azkargorta.** Bergaran, abenduaren 3an. 90 urte.
- **Ana Mari Guirao Serrano.** Eskoriatzan, abenduaren 3an. 88 urte.

GUARDIAKO FARMAZIAK

ARRASATE ***EGUNEZ***

Egubakoitza, 6 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Zapatua, 7 JAIO: Zarugalde 38 / 943 77 16 30
Domeka, 8 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74
Astelehena, 9 JUNCAY: Kontzezino 12 / 943 79 79 99
Martitzena, 10 FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26
Eguaztena, 11 IRIZAR: Erguin 11 / 943 79 12 39
Eguena, 12 SANCHEZ: Euskal Herria plaza 15 / 943 79 09 74

BERGARA ***EGUNEZ***

Egubakoitza, 6 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87
Zapatua, 7 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Domeka, 8 OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05
Astelehena, 9 ESTELLA: Matxiategi 5 / 943 76 19 63
Martitzena, 10 MOZOS: Iparragirre 2 / 943 76 12 15
Eguaztena, 11 URRITIKOETXEA: Oxirondo plaza 4 / 943 76 11 74
Eguena, 12 ZABALA: Barrenkalea 25 / 943 76 16 87

OÑATI ***EGUNEZ BAKARRIK***

Egubakoitza, 6 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Zapatua, 7 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Domeka, 8 GARATE: Kale Barria 42 / 943 78 05 58
Astelehena, 9 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Martitzena, 10 ANDUAGA: San Lorentzo 3 / 943 78 21 16
Eguaztena, 11 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22
Eguena, 12 IGARTUA: Kale Zaharra 1 / 943 78 01 22

ARRASATE ***GAUEZ EGUNERO***
(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: FERNANDEZ: Musakola 11 / 943 79 22 26

BERGARA ***GAUEZ EGUNERO***
(22:00etatik 09:00etara)

Urtea bukatu arte: OIARBIDE: San Antonio 3 / 943 76 11 05

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:
COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play eta App Store dendetan.

OROIGARRIA

Miren Ibarzabal Azkargorta

2024ko abenduaren 3an hil zen, 90 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzetan.

Zure lagunak.
Bergaran, 2024ko abenduaren 5ean.

OROIGARRIA

Pili Castillo Galdos

2024ko abenduaren 2an hil zen, 64 urte zituela.

Zure indarra eta maitasuna beti gurekin egongo dira.

Iñakiren eta Eiderren lagunak.
Aramaion, 2024ko abenduaren 5ean.

ESKELAK JARTZEKO: 943 25 05 05

edo *eskelak@goiena.eus*

- Hileta egunean eskela Goiena.eus-en + Oroigarria edo Esker ona Goiena Paperean eta Goiena.eus-en: 220 € / Goienakideko bazkideendako 195 €
- Eskela mota guztiak Goiena Paperean + Goiena.eus-en: 195 € / Goienakideko bazkideendako 160 €

Goiena: irakurriena Debagoienean.

ASTE BARRUAN, BAITA ERE:

ARRASATE Goiena: Otalora Lizentziaduna 31. 943 25 05 05.

BERGARA Jardun: Errotalde (kultura etxean). 943 76 08 19.

ELGETA Ugari: Andra Mari plaza 2. 943 78 80 80.

ANTZUOLA Itzar liburu-denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN

'DANBAKAST' SAIOA
Durangoko Azoka izango dute berbagai Jokin Bereziartuak, Idoia Asurmendik, Nagore Sanzek eta *Sertx*-ek.
'Danbakast' *Eguena, abenduak 5, 20:30*

DANBAKA KONTZERTUAK: DEL VAL
Arrasateko taldeak azaroaren 29an Seminarixoan egindako kontzertua osorik ikusteko aukera.
'Danbaka' *Eguena, abenduak 5, 22:00*

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA
Abenduaren 3an askotariko testigantzekin egindako saio berezia berriro ikusteko aukera.
'Berezia' *Zapatua, 15:00*

DANBAKAKO KONTZERTUAK: KARENA
Antzuolako eta Hernaniko kideek osatzen duten taldeak Seminarixoan egindako emanaldia, osorik.
'Danbaka' *Domeka, 23:00*

SORTZAILE DEBAGOIENDARRAK DURANGOKO AZOKAN
Bailarako sortzaileek Landako gunean bizi izandakoa jasoko dute Goienako kazetariek, abenduaren 5etik 8ra.
'Bereziak' *Martitzena, 20:00 eta 23:00*

GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:
goiena.eus/telebista
Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUENA 5

ARETXABALETA Euskararen Eguneko ekitaldia
Txalapartariak eta bertsolariak lagun, egunerako prestatutako adierazpena irakurriko dute, eta, bukatzeko, txokolatea hartu.
Udaletxe zaharrean, 18:00etan.

OÑATI 'Here' filma
Zineklubean. Sarrerak, bost euro.
Zinema-aretoan,19:30ean.

BERGARA Organoaren gaineko hitzaldia
SAS Michel Jurinek eta Artez enpresako kideek egingo dute berba.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUBAKOITZA 6

OÑATI 'Izan artzain egun batez' bisita berezia
Gomiztegira bisita berezia. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gomiztegin, 10:30ean.

OÑATI Arantzazuko santutegia ikusteko bisita
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazun.

OÑATI 'Kakaotik txokolatera' bisita gidatua
Kakaoaren historia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Txokolateixan, 12:00etan.

ARRASATE San Nikolas boloa
Kantuen truke gozokiak jasoko dituzte neska-mutikoek.
Herriko Plazan, 12:30ean.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Santic Spiritus unibertsitatea eta parrokia ikusteko aukera. Turismo Bulegoan dagoen errota ikusteko aukera ere egongo da. Izena emateko: 943-78 34 53.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI Espeleotxiki abentura
6 urtetik gorako neska-mutikoendako abentura, gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arrikrutzen,15:00etan.

OÑATI 'Kandelen gaua' unibertsitate zaharrean
Sancti Spiritus unibertsitatean egingo dute. Debalde.
Sancti Spiritus Unibertsitatea, 17:30ean.

ZAPATUA 7

OÑATI Arantzazuko santutegia ikusteko bisita
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazun.

BERGARA 'Laboratorium museoa, familian' bisita gidatua
Museoaren barruko altxorrak ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Laboratoriumen, 11:00etan.

LEINTZ GATZAGA 'Gatz Museoa, familian' bisita gidatua
12:00etan euskaraz eta 13:00etan gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Gatz Museoan.

OÑATI 'Kakaotik txokolatera' bisita gidatua
Kakaoaren historia ezagutzeko aukera. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Txokolateixan, 12:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Santic Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko aukera.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

ARETXABALETA Pilota eta bola txapelketak
GuGeu Atxabaltaren eskutik. Amaieran, Josu Eta Okinaren emanaldi akustikoa.
Iturrigorrin, 16:30ean.

DOMEKA 8

OÑATI Arantzazuko santutegia ikusteko bisita
10:30ean euskaraz eta 12:30ean gazteleraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arantzazun.

OÑATI 'Altxorraren bila' Arantzazun
Pisten jolasa familiendako, ibilbide irisgarrian. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Parketxean, 11:00etan.

BERGARA Stoltz Freres organoaren inaugurazioa
11:30ean, kanpai errepikak; 12:30ean meza eta organoaren bedeinkapena; 17:45ean, aurkezpena; eta 18:00etan, Aitor Olearen kontzertua.
San Pedro parrokian.

ARRASATE Akustik Trio
Iñaki Dieguezek, Angel Unzuk eta Iker Telleriak osatzen dute taldea.
Herriko Plazan, 13:00etan.

OÑATI 'Oñatiko altxorrak' bisita gidatua
Santic Spiritus unibertsitatea eta San Migel parrokia ikusteko aukera. Turismo Bulegoan dagoen errota ere bisita ahal izango da.
Turismo Bulegoan, 13:00etan.

OÑATI 'Ilunpeko altxorrak' bisita gidatua
Arrikrutzeko barrunbeak ezagutzeko aukera, euskaraz. Izena emateko: 943-79 64 63 edo *infoturismo@debagoiena.eus*.
Arrikrutzen, 15:00etan.

ARRASATE Txokolate solasaldia
Gabonen gaineko hausnarketa egingo dute gaztetxoek.
Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.

ARRASATE Akordeoi Lehiaketaren sari-banaketa ekitaldia
Azken kontzertuak eta sari-banaketa ekitaldia egingo dituzte.
Amaia antzokian, 20:00etan.

ASTELEHENA 9

ARETXABALETA 'La renta básica ante los retos del siglo XXI' hitzaldia
Julen Bollainek egingo du berba, Goienagusik gonbidatuta.
Arkupen, 10:00etan.

OÑATI Murgialdai txakolindegira irteera
Pake Lekuren eskutik.
Murgialdain, 10:30ean.

DEBAGOIENA Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatuko dituzte Antzuolan, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin.
Herri horietan, 12:00etan.

MARTITZENA 10

ARRASATE 'Ankur: emakumeak ahalduntzeko lekua' hitzaldia, proiektu horren gainean
Gracy Joseph-ek egingo du berba, Harreman elkarteak gonbidatuta. Idoia Asurmendi musikaria ere egongo da.
Kulturaten, 18:30ean.

OÑATI Literatura solasaldia
Adania Shibliren *Detaile txiki bat* liburuaren gaineko saioa, Itziar Ugartek gidatuta.
Liburutegian, 18:30ean.

BERGARA 'Elkar mugitzen hasteko!' ekitaldia
Euskaraldiaren abiatze saioa gidatuko du Kike Amonarrizek.
Osoko bilkuren aretoan, 19:00etan.

EGUAZTENA 11

BERGARA 'Abentura bat baino askoz gehiago 1984-2024' liburuaren aurkezpena
Iñaki Galdosek aurkeztuko du bere liburua, Goienagusik gonbidatuta.
Seminarixoan, 10:00etan.

ESKORIATZA Adineko pertsonentzako erorikoak prebenitzeko tailerra
Gaur eta bihar.
Ibarraundi museoan, 10:30ean.

GOIENA

BERGARA Stoltz Freres organoaren inaugurazioa
Egun osoko egitarau prestatu dute. Eguerdiko mezan (12:30) bedeinkatuko dute organo eraberritua, eta, jendaurrean ikusgai ipini ostean, Aitor Oleak astinduko ditu teklak.
Etzi, domeka, San Pedro parrokian, 18:00etan.

BERGARA Kafe-konpon
Etxeko tresna txikiak konpontzeko.
San Joxepen, 16:00etan.

ARETXABALETA Ipuin kontaketa
Dorleta Kortazarren eskutik, 4 urtetik gorako neska-mutikoendako.
Liburutegian, 17:30ean.

OÑATI 'Amiantoa. Hiltzaile isila' hitzaldia
Jesus Uzkudunek egingo du berba, Lagun Lekuk gonbidatuta.
Eltziako egoitzan, 18:00etan.

ARRASATE 'Itsasoa bete urre' liburuaren aurkezpena eta ipuin kontaketa
Dani Martirena egileak aurkeztuko du. Ipuin kontaketa 5 urtetik gorako seme-alabak dituzten familiendako da.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA 'Lo que quede' liburuaren aurkezpena
Irantzu Varela egileak aurkeztuko du. Liburua salgai egongo da.
Arkupen, 18:00etan.

ARRASATE Komiki kluba
Tyto Alba idazlearen *Whitman* komikiaren gaineko saioa, Azucena Mongek gidatuta.
Kulturaten, 18:00etan.

OÑATI 'Agroekologia eta etxeko ortua' berbaldia
Jakoba Errekondorekin, Oñatiko Elikadura Taldeak gonbidatuta.
Zinema-aretoan, 18:30ean.

BERGARA 'While we're young' filma
Jatorrizko bertsioan eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoan, 20:00etan.

EGUENA 12

ARRASATE Sasoibide
Irteera berezia egingo du, eta aurrez eman behar da izena.
Zalduspeko geltokian, 09:30ean.

ARRASATE Bergara Oinez
Urteko azken ibilaldia egingo dute.

Agorrosinen, 10:00etan.

OÑATI Ostegun kontalariak
Askatasun doinua ipuinaren aurkezpena eta tailerra, Mitxel Elorzarekin, LH-1etik gorakoendako.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE 'Hitzen ahairea' tailer musikatua
Rafa Ruedarekin eta Gotzon Barandiaranekin.
Kulturaten, 18:00etan.

ARRASATE 'Luces en sombra' dokumentala
Bide Batez elkarteko kideen eskutik, A25aren harira.
Emakume Txokoan, 18:30ean.

ARETXABALETA Literatura solasaldia
Nell Leyshon idazlearen *Esnearen kolorekoa* liburuaren gaineko saioa, Mikel Antzak gidatuta.
Arkupen, 18:30ean.

OÑATI 'Los destellos' filma
Sarrerak, bost euro.
Zinema-aretoan, 19:30ean.

ARRASATE Safu artista
Musika urbanoa protagonista Kooltur Ostegunetan. Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

BERGARA

SEMINARIXOA

Marco
Egubakoitza, domek eta astelehena: 19:30.

Elli y el equipo de monstruos
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Las chicas de la estacion
Egubakoitza: 22:00
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka eta astelehena: 19:30.

Una familia monstruosa
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

Al otro barrio
Eguena (abenduak 5): 17:00, 19:30, 21:45.
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 17:00, 19:30, 21:45.
Domeka. 12:00, 16:15, 18:30, 20.45.
Astelehena, eguaztena eta eguena (abenduak 12): 17:00, 19:15.
Martitzena: 16:30, 18:45, 21:00.

Bird
Eguenetik (abenduak 5) domekara: 20:00.
Astelehena, eguaztena eta eguena (abenduak 12): 19:15.
Martitzena: 21:05.

El ministro de propaganda
Eguenetik (abenduak 5) zapatura: 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00.
Astelehenetik eguenera (abenduak 12): 17:00.

Emilia Perez
Egunenetik (abenduak 5) zapatura: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena (abenduak 12): 16:45, 19:45.
Martitzena: 17:00, 21:00.

Gladiator II
Eguena (abenduak 5) eta egubakoitza: 18:45, 21:45.
Zapatua: 19:00, 22:00.
Domeka: 18:45, 20:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena (abenduak 12): 16.45, 19:25.
Martitzena: 16:45.

Harold y el lapiz magico
Egubakoitzetik domekara: 12:00.

Here
Eguenetik (abenduak 5) zapatura: 20:30, 22:30.
Domeka: 18:30.
Astelehenetik eguenera (abenduak 12): 20:30.

La infiltrada
Egunena (abenduak 5): 17:00.
Egubakoitzetik domekara: 12:00, 17:00.
Astelehenetik eguenera (abenduak 12): 19.30.

Marco
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 22:30.
Domeka: 12:00, 20:30.
Astelehena, eguaztena eta eguena (abenduak 12): 17:00, 19:00.

Por donde pasa el silencio
Eguenetik (abenduak 5) zapatura: 22:30.
Astelehenetik eguenera (abenduak 12): 16:30.

Robot salvaje
Eguena (abenduak 5): 16.30.
Egubakoitza eta domeka: 12:00, 16:30.
Zapatua: 12:00, 17:00.

SuperKlaus
Eguena (abenduak 5): 18:30.
Egubakoitza eta zapatua: 12:00, 18:30.
Domeka: 12:00.
Astelehenetik eguenera (abenduak 12): 18:35.

KRITIKA

Bird ★★★☆☆

Zuz.: Andrea Arnold. **Herr.:** Erresuma Batua (2024). **Aktoreak:** Nykiya Adams, Barry Keoghan. **Iraupena:** 119 minutu.

Errealismoa eta fantasia eskutik

ANTONIO ZABALA

Andrea Arnolden filmetako pertsonaiak nahiko marjinalak izaten dira. Banandutako bikoteak; gazteegi seme-alabak izaten dituzten pertsonak; indarkeriagatik, eta normalean jasaten dituzten mehatxuengatik, beldurra pasatzen duten haurrak; edo nahiko baldintza eskasetan bizi diren familiak izaten dira istorioaren protagonistak. Kasu honetan, filmaren pertsonaia nagusia Bailey izeneko 12 urteko neskatila da.

Filmaren zehar, haren bizimodua nolakoa den ezagutzen joango gara. Okupa bizi da, aitarekin eta anaiordearekin. Beste aldetik, ama eta hiru anai-arrebak amaren bikotekide basatiarekin bizi dira. Kamerak ia denbora guztian Baileyren pausoak jarraitzen ditu. Ikusten duena eta mugikorrean grabatzen duena ikusiko dugu. Mugitzen den giroa ezagutuko dugu. Haren bizitza ez da erraza, eta, askotan hegaztiak ditu lagun. Zuzendaria indarrez hurbiltzen da erretratu soziala egiteko garaian. Baina istorioan, Bird izeneko pertsonaia fantastikoa agertuko da; horrela, errealismoa fantasiarekin elkartuko da. Birdek txorien ezaugarriak ditu. Gustuko du gauzak goitik begiratzea. Baileyren eta Birden artean harreman berezia sortuko da. Errealismoaren eta fantasiaren arteko elkartze hori modu nahasi samarrean azalduta dago. Eta ikusleak aukeratu beharko du zer gertatu den benetan eta zer ez.

PEFC ziurtagiria
Produktu hau kontrolatutako iturrietako materialez egina dago, birziklatua da eta Baso Kudeaketa Iraunkorraren ziurtagiria dauka
www.pefc.es

Zu hemen zaude. goiena

AZKEN BERBA

IZAR ODRIOZOLA

Komunetik behera

Gauza anormal askoren artean, badago oraindik ulertzen ez dudan zerbait. Anakronikoa, antzinakoa, modaz pasatakoa. Komun ez-mistoen erabilera normalizatuaz ari naiz.

Gizarte osoaren puxikak erregulatzen dituzte soinekoa eta prakak daramatzaten pertsonatxo horiek. Komuneko atean itsatsita dagoen sinboloak baimentzen dizu komun bat erabil dezakezun edo ez; gainean txiza egin dezakezun edo ez.

Agian, esajeratzen nabilela usteko duzue, baina egon badago jende bat, aipatutako sinboloak ez mintzearren edo, sekulako ilara egiteko prest daudenak, hortzak estutu eta beste komuna libre egonagatik ere, euren puxikaren eusteko ahalmenean itsu-itsuan sinesten dutenak. Autodesafioa, prakako lehen botoia askatzen duten bitartean.

Neure buruak, ilaran daudenei puxikak egin bezala, eztanda egiten dit gai honekiko dagoen leialtasun ia erlijiosoa ikustean. Sinboloak erabat naturalizatzen ditugun beste seinale bat baino ez da. Norberak aukera dezala sistema bitar naturalizatuaren arauari men egiten jarraituko dion edo hau ere komunetik behera botatzea nahiago duen. Amaitutakoan, garbitu eskuak.

BUKATZEKO

Txuri-Urdin Amerikanuak lagunartea eta Realeko Xabi Prieto –atzeko ilaran, eskuinetik bigarrena–, Boisen (Idaho). REAL SOCIEDAD

Bailarako zaleak, Boiseko txuri-urdinekin

Real Sociedad taldearen zaleek muga guztiak gainditu dituzte, eta orain, lehen aldiz, AEBetan sortu dute lagunarte ofizial bat: Txuri-Urdin Amerikanuak. Boiseko euskal komunitatean sortutako ekimenaren lehendakaria Haritz Maillo arrasatearra da

Sara Lanz Azpiazu DEBAGOIENA

Ameriketako Estatu Batuetako Boise (Idahon) hirian jaio da Txuri-Urdin Amerikanuak, Real Sociedad futbol taldearen lagunarte ofiziala, eta Debagoieneko hiru herritarrek parte hartu dute: Haritz Maillo arrasatearra lehendakaria da, eta oñatiar bik, Jesus Alcelayk eta Jon Kortabarriak, lagunartean parte-hartze aktiboa dute. Lagunartearen sorrera-prozesua eta inaugurazio-ekitaldia futbolarekiko grina eta euskal komunitatearekiko lotura uztartzeko gune bihurtu dira.

Lagunartearen sorrera

Maillo lehendakariak azaldu duenez, lagunartearen ideia Ameriketako Estatu Batuetan sakabanatuta zeuden txuri-urdinak biltzeko gogotik sortu zen. "Realzale naiz betidanik, eta taldeari ikusgarritasuna emateko beharra sentitzen nuen. Ameriketako zale guztien artean lotura sortzea erronka polita izan da".

Izenari dagokionez, argi zuten euskaraz izendatu nahi zutela: "Asanbladan hainbat izen proposatu genituen, baina argi zegoen euskaraz izan behar zuela. Euskarak gure nortasuna adierazten du".

Lagunartearen helburua ez da tokikoa bakarrik, zabalagoa baizik. Hainbat tokitan bizi diren zaleak batu dituzte; besteak beste, San Frantziskon eta New Yorken. "Sare sozialen bidez asko elkartu gara. Hasieran, gutxi batzuk ginen, baina, gaur egun, 45 kide gara", azaldu du Maillok.

Debagoiendarren presentzia

Lagunartean hiru debagoiendarrek parte-hartze nabarmena izan dute. Haritz Maillo lehendakariaz gain, Jesus Alcelay eta Jon Kortabarria oñatiarrak dira taldeko beste bi kide. Horrez gain, aste osoko ekitaldietan Unai Telleria oñatiarra ere egon zen, Ameriketako Estatu Batuetan Eusko Jaurlaritzako ordezkaria. "Unai Telleriak aste osoan lagundu zigun, eta gure ekintzetan egon zen", dio Maillok.

Ekitaldiz beteriko astea

"Polita izan zen athleticzaleekin partidu txiki bat jokatzea. Giro ona egon zen, eta denok gozatzea izan zen helburua", azaldu du Maillok. Astean zehar euskal komunitatearen hainbat txoko bisitatu zituzten, hala nola euskal etxea, frontoiak eta Boiseko euskarazko ikastola txikia.

Real Sociedad taldearen ordezkaritza ere han izan zen, Xabi Prieto eta Zuhaitz Gurrutxaga jokalari ohiekin. "Idahon bizi garenontzat oso garrantzitsua izan da Realeko delegazioa bertan izatea. Urte osoan lanean ibili ondoren, haiekin ospatzea sekulako esperientzia izan da".